

Jose Eizagirre

EKAITZPEAN

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Ekaitzpean (Ipuinberri)*, Eizagirre'tar Joseba.
Editorial Vasca Ekin, 1948.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00399.htm>

EIZAGIRRE'TAR JOSEBA

EKAITZPEAN
IPUINBERRI

EDITORIAL VASCA EGIN, S. R. L.
PERU 175 — BUENOS AIRES
1948

AURRETIK

Euskera galduko ba litz Euskal-Erria zearo galdua litzakela ziur ba dakigulako gure izkuntza maiteari iraupena eman nai genioke; beraz, mintzatu ta irakurri bearrean gera, eta irakurtzeko irakurgaiak bear ditugu noski.

Orrengatik, aizkenengo gure gudate izugarriaren zipriztin beltzak mendi-mendian izkutatuta dagon baserri bateraño nola iritxi diran, gaitzat artuta, «Ekaitzpean» deitzen deten ipuinberri au asmatu eta argitaratzen det.

Euskeraz irakurtzeko zaletasuna pixtu-arazi eta errezago irakurtzeagatik egintza onen geiena alkarrizketa-eran antolatu det. Eta ala, alkarrizketaz egiña dagona arturik, antzokirako ere errez antzeztu liteke.

OPALMEN

Lan au nere guraso maite zienen oroitza-
nez egiña da. Nere lenengo itzak bere magal-
besoetan euskeraz esan nituan; euskera ta Eus-
kal-Erria benetan maitatzen berak erakutsi zida-
ten. Goian bitez!

Eta «Ekaitzpean» biotz-biotzez eskeintzen
diotet.

I GUDA-OTSAK

Aitzondo-garaikoa izena duen baserriko nekazari jatorrak pozik eta alaitsu bizi ziran. Erritik urrutitxo eta mendi goi-samarrean izanarren baserri eder ta aberatsa da.

Bere lur guztiaz inguratua, arkaitzpeko toki mardul ta babes gozoa egutera bete-betean, eguzki aldera begira, gizaldi ta gizaldietan sendo ta egoki bertan arkitzen da.

Koxka duen arri berezi bat ate-gañean ba du; berak zer esan nai duan Aitona zarrak ba daki; agidanean, basetxe ontan, bere senditik sortutako bat, orain dala zortzireun urte, Naparroko bakaldun-erregearen mendean zaldun-gudari zala, gudaaldi batean ain ausarditsu ta biozdun izanik armarriko agerkai aiek irabazi omen zituan.

Aitzondo-n gaur bizi diranak sendi artakoak dira. Anton-Mari, etxe-nagusia, langille purrukak eta izan liteken gizonik prestuena da, auzoetako guztiak ala diote; bere emazte Mañaxi,

andre txukun, mena, bere etxeko eginkizunak eta sendiaren ondasuna beste buru-austerik ez du, emazte ta ama biotz-bera, maitekor.

Lau aur izan zituzten; zarrena semea, Manu, aita ber-bera, bera bezelako sendo ta prestu, etxeari jarraipena emateko ongi zetorren; gero bi alaba, Malen, emazteki polit, lerdena, baserriko lan zakarretako baño eginkizun txukunagotako ohea dirudi, josten ikasten ere ibilli zan eta kalealdean gauza on aski ikasi ditu.

Urrengoa Joxpantoni, au baserriko neska sendo, eder, abarra da, bere amazazpi urtekin lan guztietan aritzen da, berdin beiak jetzi, sororan atxurlaiak gogor astindu, segan egin, iñaurkiñak bildu; Malen amaren aldamenean, etxeko lanetan bezela, Joxpantoni aitari laguntzen ongi dioa. Laugarrena Txomin, amalau urteko mutiko gaztea, ikastola goiztxo utzi du, batzuetan aur bezela bere kideko mutillekin jostatu nai du eta bestetan baserriko lanetan laguntzen gogorki alegintzen da.

Aizkenik, berez lenengo izan da, guztien guraso ta irakasle, Aitona zarra; ia larogei urte baditu bañan oraindik kementsu da, ezurrak

gogortu zaizkala esaten du bañan bere makiltxo-az arin-asko ibiltzen da, beiak larrera daramazkinean nola zaintzen ditun arrigarria da; batez ere buru-lanetarako gazte arkitzen da, bizi guztian adimen aundikoa izanik bere argitasun osoaren jabe da.

Etxeko guztiek Aitona maite dute, bai berak ere, esan bearrik ez dago, bañan Txomin illoba koskorra, gaztena ta maitena, bere lagun berezia du. Neguko gau luzetan, gaztañak erretzen diran artean, Mateotxistu-ren gertaera bildurgarria, sorgiñen ipuien bat edo gerrateko gauza garratzak esaten Aitona asten danean, oierako gogorik iñork ez du izaten.

Eta bizi izateko bai toki eder ta zoragarria! — Mendi-kaxko batean izanik aurrez-aurre, bera-antzean, beste mendiegalean, beren erri ederra, urrutixko bañan garbi ikusten dute; arrilanduaz egindako Eleiz aundia bere ezkiltorrearekin; aldameneko etxearte zabalean Erri-Etxe ederra, pelota-toki egokia eta inguruan etxepilla bat tellatu zar aundi, tximini ketsu, orma beltz sendoak; guztiak, gain-bera, Aitzondo-tik ederki

agiri dira, baita erriko etxeartean dabiltzanak ere garbi ikusten dira emendik.

Eta erri-burutik gutxi-asko aldenduta, begiak artzen duan eremu guztian an-emenka etxe ta baserri bere lur-landuaz inguratuak, arizti, gazta-ñadi ta sagasti ederren artean.

Urrunago mendi-tontor aundiak agertzen dira; Ernio-ko arkaizti luzea an dago beti etzanda; beste aldetik Txindoki-ko arri-erpiñaren mutur zorrotza. Eta urrutirago ere, ego-aizea danean, Auñamendiko ertzak urdintsu bañan garbi ikusi litezke.

Mendi-magal artan euskaldun nekazarien sendi jator, zintzo au, pakean ta zoriontsu krix-tautasun ederrean bizi zan. Goizeko argia zabaldu baño len lanean asiak dira; etxe-inguruko soro, belardi ta landetan naiko eginkizun izaten da geienez; beste batzuetan gurdia artu eta iñaurkin, garo ta belarretara urrun-xamar joan bear dute bere arizti eta iratze-garamanetara, erri-basoetara ere bai.

Aste guztian lertzen lanari ekin ondoren igandean Eleiza-ko eginkizunak gogoz betetzen dituzte, batzuk lenbiziko mezara, besteak biga-

rrenera; eta bazkal-ondorean gazteak bezperetara bialita, zarrak asteko nekeen atsedengarri lo-xuxta bat egin bear dute; eta gero aitak gizartera agertu bear du txurrut bat egiñez munduko berriak jakitera; seme zarrena ere bere adiskidetara azaldu gabe ezin egon liteke, ogeita bi urteko mutil gaztea etxean lotuta ezin euki bada.

Noizik-bein aita-semeak azoka-perira erri-nagusira joaten dira, bei edo txekorren bat saldu edo erosi bear dutela aitzeki artuta, edo olako lanik ez izanda ere aizkora-apustu edo beste antzeko demarik baldin bada, esaten duten bezela oraingo aizkolari gazte oek aspaldiko Santaageda ta Atxunberri bezin onak ba ote diran ikusi bear dutela-ta.

* * *

Alako gizarte batean berri izugarri bat jakin dute. Errian eta baztar guztietan beste izketarik ez zan. Españian berebiziko naspilla sortu dala, guda-gizon agintari batzuek erkal edo errepublikaren aurka, jeiki dirala, Aprikan asi omen dira

lenbizi, bañan bereala Españiko lurretara sua zabaltzen dala diote.

Gauz oek entzun dituenean Aitzondo-ko biztanleak arritu eta txaututa gelditu dira. «Zer gertatu bear ote du!, zer txamalda etorriko ote zaigu?» —ura naigabea!

«Gutzat gauz onik ez» —zion Aitonak ezpañak okertuta. Emakumeak oso bildurtuak ziran: «ain ederki bizi giñanak... orixe bear gendun oraintxe... zer ikusi bear ote degu...!» —eta berriz Aitonak ala dio: «Karlisten gerran bezela asten ba dira gaizki ibilli bearrak gera...!».

Aitak lasatu nai ditu: —«Ez, ez, nork daki?, apika ez da gauza aundirik izango, gauz oek asieran zalaparta aundia ateararren askotan errez itzaltzen dira; oraindano urrutiko gauza dirudi beintzat eta ez degu geiegi estutu bear, bederen zer gertatzen dan ongi jakin arte lasa egon zaitezte, Jainkoa guztioi begira dago eta berak lagunduko digu»—; eta emazte Mañaxi-kerantzuten dio: —«bai, bai, Arantzazu-ko Amak bere magalean euki gaitzala, bañan ni oso lasa ez nago, zerbait gertatuko ote zaigun bildur naiz, kezka txar bat barrenen sortu zait»—.

Íñork ez zuan ori sinistuko orduan, bañan alazan, andre on arren biotzak gezurrezko mugirarik ez zuan agertzen.

Ondorengo egunetan geldirik ezin egon ziran eta emazteak senarra bialtzen zuan: —«Zoaz, zoaz, Anton-Mari, zoaz errira eta ea zer berri jakiten dituzun»— Manu, seme zarrena, ere zerbait jakiteko asmotan bere adiskidetara joan da.

Irugarren egunean, bakoitza bere aldetik, illun ta naiko buruaustekin erritik datoz —«... bada... agidanean... gertaera ori, asieran uste genduen bezela ezerezkeri bat ez da, ez, Aprikan asi omen zan bañan Españi guztira bereala zabaltzen dala diote eta toki askotan burruka zorrotza sortu da noski...»—.

Ama-alabak zearo estu ta larri dira —«... Jainko maitea!... esaten nizuten nik... zerbait ba zala nere biotzak garbi adierazten zidan...»—.

Eta aizkenik, egun aietako batean, auzoko adiskide batek berri izugarriak ekarri diozkate, «... Españi guztian guda sutan da, bazter guztietan burruka, zalaparta ta naspilla ikaragarriak... esaten dutenez, komunixta eta langille jende gaizto orrek, agintzen zeuden gizonen babese-

tik, oso nagusitu nai omen zuten, eta ori ez gertatzeagatik eskubi aldeko gizon xuriak txutitu omen dira...». Eta Manu gazteak ere ori bera jakin du... Bai, neri ere ala esan didate, eta orain karlixten aldeko mutil gazte zintzoak alkarrengana bildu, armak artu eta krixtautasuna eta zuzentasunaren alde gudan asteko Naparroan biltzen asiak dirala esaten dute...».

Gauz aek entzun, eta etxeko guztiak kezka ta bildur izugarriaren mende arkitzen dira; Manu, seme maitea, guda-adiñean bete-betean dagoa-la garbi ikusten dute eta gertaera garratzen bat nabaitzen dutela ba dirudi.

Illunabarrean, ia oso illundu duan garaiean, atean «kox-kox» ixiltxo jo dute, eta iriki dute-nean «Txinparta» izengoitiz deitzen dioten erriko gazte bat agertu da; beste bi laguntzallekin dator; karlostarren buru egiten duan jauntxo baten semea da; mutil biurri, okerka begiratzen duan pixti zitala; ausart biozdun trebea ez da, bildurti erronkalaria bai, eta erriko naspilla txar guztietan bere izena beti agertzen da, batez ere auteskunde edo botoetako egunetan bera dan

tokian naiko ez-ta-bai-da, ixtillu ta burruka izaten dira.

Ate-ondotik Manu-ri deitu dio eta baztar batean biak ixilka itz egiten dute; gero Aita atearazten dute eta iruren artean izketa gogorra jotzen dute: —«... Begira, Anton-Mari, Españían guda sortu dala ba dakizute noski, bertan agintzen zeunden gizon txar aien kontra zerbait dezateken guztiak jaiki dira; armakiko gudari taldeak, dirudun aberats guziak, krixtautasun Eleiza-ko apaiz nagusiak, zuzentasunaren aldeko gizon garbiak, eta aiekin batera guk ere, karlixtak, agertu bear degu; langille txar batzuek, erkala... eta oiekin bat eginda emengo beste oek, beren buruei abertzale ta euskaldun on deitzen diotenak..., oek omen ziran krixtau onak!... ikusi itzazute orain Eleiza-ren etsai amorratuene-kin beren buruak bat eginda... oek dira okerre-nak... bañan txamalda ederra artu bear dute... zearo garbituta utzi arte ez gera geldituko».

Aita-semeak arrituta entzuten diote, eta berak onela jarraitzen du —«...gu ere atera bearran gera, gureak Naparroan biltzen ari dira, gero andik emengo aldera etorri eta Euskalerrri

guztia garbitzeko, bear diran zizpa, izkillu, arma ta tresna guztiak ba ditugu, eta berealaxe gure etsai guztiak txeatuak izango dira».

Anton-Mari-k gauz oek guztiak alkarren gainka eta zalapartan entzun, ta ezin ongi ulerturik galdetzen dio: «...eta gugandik zer nai dezute bada...?» —«Zer naiko degu? Txinparta-k erantzuten dio azkarki —«Manu gurekin etortzea»— ta Aitak oso txaututa «Manu?... Manu?... nere semea?».

—«Bai bada, —esaten du besteak— ez al zerate zuek ere gure aldekoak, ez al zerate karlixten aldekoak beti izan?» —«Bai, ala da, gure gogoia alde ortarako izan da beti, gurasoak ala erakutsi ziguten, bañan guk politikaz ezer ez dakigu, guk ez degu ezertan sartu nai, utzi zai-guzu pakean».

—«Pakean? —ekiten dio Txinparta-k— orain pakerik ez dago, ori gero etorriko da etsaiak oin peratu ta zanpatutakoan... Gañera zure semeak ogeitabat urte ba ditu, gudari sartzeko garaiean oraintxe dago, eta gukin etorriko ez ba litz beste aldekoak eramango dute, eta ortatik zuek guztientzat zenbat kalte etorri liteken nabaitzen al

dezu?... orain dala egun batzuek Manu-ri gauz au neronek aitatu nion eta ezetzik ez ziran esan... beraz, goazen bereala, une txiki bat ere galtzen ezin egon giñezke... goazen... gure aldekoekin alkartzera gaur bertan, mendiz-mendi bide izkutuetatik barrena Naparro-aldera joan bear degu...».

Beste bi lagunak illunpetan itxo egiten an daude, Manu aitari begira aoa zabalik, Aitak zer esan ez daki; bañan Txinparta-k estutzen ditu berriz... —«Goazen, goazen, ba al ator ala ez...?»— eta Aitari esaten dio «egun gutxiko gauza da, emendik amabost bat egunen buruan etxean dezu berriz... indarra duan guztia gure alde bildua da eta... beste gixaraxo oiek, ez armik, ez dirurik, ez ezer,... zer egin bear dute...?».

Manu-k joateko gogorik batere ez du, bañan zer egingo du?... joan egin bearako...! —«Bañan oinbestez gañera joan bear al dek?» —dio Aitak— «ezer gabe?... aldatzeko zerbait bederen artu gabe?... barrengoei agur bat egin gabe?...».

Txinparta-k ordea, ez dio usten —«ez du ezer bear, bear dun guztia emango zaio...», eta

Manu-k Aitari laztan bat eman ez... —«...Amari agur egiteko kemenik ez det... olaxe joan naiago det... agur, Jainkoak naiko zuan ni ola joatea... aurki-arte, Aita, ongi izan...».

Eta lau mutillak an dijoaz; gaueko illunpe beltzean arin galdu dira eta Anton-Mari etxe-aurrean gelditu da, biotza autsi eta naigabe izugarriaz betea.

Emakumeak guztia nabaitu dute eta mutillak joan dirala sumatu dutenean an datoz laxterka: —«zer da? zer gertatzen da? petral orrek zer bear zuan?...»— Bañan zer ateraldi ekarri ditun eta, batez ere, Manu berekin eramán dutela jakin dutenean an dira negarrak eta Manu-ri deika deadarrak; bera etxera ekarri-arazteko guztik laxterka bere ondoren joan nai dute; ango naigabea!, ango samin ta neke-aldia!

Aitona beste guztik baño mindugoa arkitzen da, sutan dago, itzik ezin egin du; bañan, erri aldera ukabilla jasota, Txinparta eta bera bezelako guda-sortzalle guztiak biotzez madarikatzen ditu.

Aitak, bera ain mindua ta illundua gelditua-
rren, itxaropen izpi bat beste guztiei emateko

esaten die: —«egun gutxiko lana izango dala esan dute, amabost bat egun baño lenago emen dirala...»— Bañan alaz guztiz iñor ez da poztutzen; Aitona-k, asarre bizian, aopean dio: —«...etorri e?... ez zekiat, ez zekiat, barrenak ematen zidak geiago ez diatela ikusiko...»— Orduan guziak ekiten diote: —«gizona, gizona, ez deza zula olakorik esan, olako gauza txarrik gertatzea Jainkoak nai ez dezala...!».

Gertaera izugarri arrenatik baserritar gizarajo aiei lotarako gogoak kendu zitzaizkaten; aizkenik oieratu ziran bañan iñork ez zuen begirik itxi; batzuek arrenka ta eskatzen, besteak gauzau gogotik ezin kenduaz alde batera ta bestera adimena naspillatu arte, gau guztia ala igaro zuten.

Urrengo egunetan ez zan etxe artan atsedenik, ez pozik, ez lanerako gogorik; ala ere itxaropen bat ba zuten, aizkenik laister semea etorriko zala. Aitona zan okerrena, bazter batean oso illun eta eroria zegon, bere barrenean itxaropen ez zan ernetzen.

Egun asko igaro baño len berri beltz ikaragarria etorri zitzaioten.

Artsalde batean, bakoitza bere lanean ari ziran garaiean, erriko Apaiz zarra, Aitzondo-ko atetan agertu zaiote. Ura ikusi zuenean Mañaxiri barren guztia biurtu eta korapillatu zitzaion; Malen, soroan lanean ari zan Aita-ri deitzera, laxterka joan zan.

Eta senar-emazteak bildu ziranean Apaizak al zuan erarik onenean, beren biotzak Jainkoa-gan zuzentzeko itz batzuk aurretik esanez, berri ikaragarria eman zioten; Naparro aldetik Txinpartak papertxo bat biali zuala jakin-araziz, oraindik burrukan sartu baño lenago, izkilluak erabiltzen ikasten mutillak ari zirala, aietako bati usterikguxienean su-tresna bat esku artean lertu zitzaio-la eta bera ta beste bi lagun illak gertatu zirala, eta bi aietako bat Manu gizarajoa izan zala.

Au entzun dutenean etxe artan zer gertatu dan esatekoa ez da; ango deadar, naigabe ta ixtilluk ikusita arriak ere negar egingo luke, biotzak autsi bear dute; Mañaxi etxean batetik bestera Manu-ri deika eroa bezela dabil, bi neskak eta Txomin amari elduta bera bezela erotzeko zorian dira; Aita, berriz, sukalde bazterrean exe-

rita burua bi eskuen artean duala, negarra mara-
mara dijoakiola, txaututa gelditu da.

Aitona, etxaburuko belarditik etxean zerbait gertatzen dala sumatu duenean bereala zalapartan etxera dator, Apaiza irten eta ba dijoan garaiean; bera ikusi duenean, arriturik galdetzen dio: —«zer gertatzen da? Manu-ren berri txarren bat?»—, eta egi garratza ikasitakoan bere barrengo oñaze zorrotza ageri du —«esaten nuan nik... ez genduen gauz onik atera bear... zerbaitegatik nuan nik barrengo kezka ura eztena bezela biotzean sartuta...»—; eta gero begiak malkoz lañuturik, besoak zerurontz jasota dea-darka dio: —«ikusten al dezute orain ere gizon ergel, audinai oiek zer egiten diguten... orain ere beste guda sortu zigutek... jende zirtzil oiek beren buruak goratzeagatik gure mutillak beren odola ixuritzera zaramazkigutek... Manu, nere illoba maitea, oiek eriotzara eraman aute, mada-rikatuak izan bitez...!».

Urrengo egunetan Manu-ren gogo alde elizki-zunak egiten dira. Etxe artako naigabea ikusita erriko guztiak errukitu dira, gañera, errian ongi

ikusiak eta maitatuak bait ziran; ala Eleiza bete-
tzeraño izan dira emakume ta gizonezkoak.

Ondorenean ango ixtilluak apaldu eta itzaldu
dira, gizarajoak ixilik daude, negar-malkoa ugari
ixuri ondoren paketu zaizkate barrenak, bañan
arantza beltza biotzetan sartuta gelditu da,
andik aurrera, aldi luzean beintzat, etxe artan ez
da onik, ez alaitasunik.

Izugarria gertatu zaiote! Baserriari jarraipena
eman bear zion semea Manu bai zuten; eta,
gañera ain mutil ona, langillea, gazte-adiñeko
txorakeri ta aitzekeririk gabekoa, aitari lagun-
duaz baserriko lanetan ain ederki zetorrena;
Aiton-guraso-senide guztien maitea zana!

Eta orain zer egin bear dute? Etxe-jaunari
nork lagunduko dio?, baserriko izaerari nork
jarraitu bear dio? Beste mutilla, Txomin, oraindik
gaztegia da, eta Aita, aizkeneko urtetan lan
geiegi egiñik, nekatzen asia dago. Etxeko denak
gauz oek guztiak gogoan darabilzkitela naiko
buruauste ba dute; aizkenik, krixtau onak diran
aldetik, bide bat bakarrik arkitzen dute, dana-
dala Jainkoak nai duana izan bedi.

Bañan Aitzondo-ko sendi ederra lur-jota gelditu da; etxeko abeak ikara egin du...

Iru illabete igaro dira. Lenbiziko egunetan etxeko guztiak mutuak ziruditen, bear-bearreko itza besterik alkarri ez zioten egiten; bañan pixkanaka pixkanaka mingaÑak azkatu dira eta lengo erara ba datoz; alaz guztiz biotzeko oÑaze sakona ez zaiote berealakoan joango.

Udara-azkeneko illunabar batean ama Mañaxi eta alaba Malen etxeko lanetan ari dira; aitona ere bere eginkizunetan txirrikitxarraka ba dabil, ikulluan eta mandioan naiko lan ba du; sartu ta atera, noizik bein sukaldean agertzen da.

Eta bai sukalde ederra! Baserrietan sendiarentzat tokirik bearrena sukaldea da, lo ez beste guztia bertan egiten dute, antxe jan, an su-aurrean legortu ta berotu, an atsedenean egon, an berriketan aritu, lan asko bertan egin.

Aitzondo-ko sukaldea ez da nolanaikoa. Toki zabal aundia, ezker aldetik etxeko sarreratik urbil du atea eta alde beretik atadi gañera leio bat ba du; aurrez-aurre, alde batean ikullurako

atea, abereak sukaldetik bertara-xamar izatea ona bai da, eta beste aldetik goiko bizitzarako igoeraren lenbiziko mallak; atzeko eta eskubi-aldeko ormen artean su-toki ederra bere txapel aundiaz, onen azpian eta suaren bi aldetan neguan goxoki egoteko naiko toki ba dago; esku-bi aldean, ate batetik, lotarako gela batera sartu diteke.

Artsalde ontan, beste askotan bezela, Aita, Joxpantoni eta Txomin gaztea, garo-iratzetara mendira joanak dira, urruti-xamar noski illunabarra aurrera dator eta orain aditzen diran gauzak entzunaz, ta lenago etxean gertatutakoz gañera ama-alabak kezketan daude; ori gutxi ez dala mendi inguru aietan guda-burruka gogorren batzuek izanak bear dute, eguerdi-arratsaldetan tiro-otsak eten gabe garbiki entzun dira. Etxekoak etorriak ba lira naiago luteke. Ez ote zaiote zerbait gertatuko!

Ama Mañaxi leio-aurrean exerita josten ari da, Malen txutik bere lanetan dabil,

AMA: ... galtzerdi zarrak pasaratzen aritzez oso aspertua natxionan oraintxe...

MALEN: ... ia illuna da ta nola ikusten dezun ere ez dakit...

AMA: Bai, artsaldea oso moxtu din... seiak ez ditun oraindik eta illuna... eta gure jendeak etorri gabe... au den zalantza...!

MALEN: Ez zaitezela estutu, etorriko dira bai... oraindik berandu ez da...

AMA: Ez, berandu ez den... bañan gaurko txinparta-soñuak ez al ditun aditu... eta ain garbi entzuten ziranean ez itunan oso urruti izan bear...

MALEN: Bai, ala da bañan nere ustez burruka-otsak gureak iratzetara joan diran aldetik ez ziran...

AITONA: *(Ikullutik dator eta izketan sartzen da)*... Bai, gureak Larzabal-eko barrutietan dira eta ori ipar-aldeetik dago, zizpa-otsak ego-aldeetik ziran eta ego-aizeak zekarzkien.

MALEN: Bai, ongi etorriko dira... zerbait berandutzea ez da arritzekoa...

AMA: Jainkoak ala nai dezala... bañan lenago gertatu zaigunaz aiek etxean ikusi arteko onik ez diñat... aparia asi bearko den...

MALEN: Ez da zalla, eguerdiko eltzenkondoa berotuaz... eta arren aurrerako baratzuri-sopa berealaxe egiña det...

AMA: Eta Aitonarentzat urtan egindako bi arraultz gertu ditzadan...

AITONA: Ez, ez, gauz berezirik nik ez det bear, ez aritu ezertan, beste guztiak jaten dutena ongi zait...

AMA: Ez, ez, olloak ortako jartzen dituzte...

MALEN: Bai, egin berriak ollategitik ekarriko ditut. (*Billa dijoa*).

AMA: (*Aitonari*)... Egun guztian txirrikitzarra-ka gelditu gabe zabilta, onezkero unatua izango zera noski, exeri zaitea...

AITONA: Ez, ez, orren gauz gutxigatik ez naiz nekatzen, oraindik kemena ba det... erromako... edo alde onek noizik bein gerrietara joko ez ba niñu... bañan ego-aize epel au agertzen danean ondo izaten naiz... Izotzak galtzen naute... (*leio-aldera begiratu ta*)... zein datorren ikusten al dezu...?

AMA: Zein da?

AITONA: Zein izango da, Pello-kirten edo... auzoko ergel ori...

AMA: Orain ere or al da...?

AITONA: Aizkeneko aldi ontan maiz dator etxe ontara, zeren billa datorren ez dakit...

AMA: Zeren billa izango da... gure Malen bere emazteztat nai lukela uste det... bañan gauz ori berari esan besterik ez dago... (*atea jotzen dute eta Mañaxik gogotxarrez esaten du*): —...Aurrera...!

Atea iriki eta Pello agertzen da; itxuraz parragarria da; ez da gaztea, gutxienaz berrogei urte ba ditu, mutilzarra beraz; ergel erdi-txoroa dala-ko erriko guztiak Pello-kirten deitzen diote; bere buruz oso iritxia da, batez ere Bidabe baserria berea dualako aberats purrukatua dala uste du; etxean bere ama eta izeba zar batekin bizi da, baserri-lanetarako morroia ere ba dute. Pello sartu baño lenago Aitonak ikullu aldetik alde egin du.

PELLO: ... sartu al niteke...?

AMA: Bai, bai, Pello, sartu zaite aurrera... ez bildurrez egon...

PELLO: Ara!, andre Mañaxi, bakarrik al zaude?... Malen ere emen zala uste nuen...

AMA: Oraintxe, aixtin, emen zan... ollategira joana da, berealaxe etorriko da noski...

PELLO: A! ori mirabe polita...!

AMA: Ala iruditzen al zaizu, e...?

PELLO: Bai, bera baño emazteki egokiagorik ez det ezagutzen, ain lerdena, ain txukuna, beti alaitsu... Malen nere emaztea izateagatik edozer gauza egingo nuke... oso txoratu nago...

AMA: Bai e? txoratu ere bai?

PELLO: Bai, andre Mañaxi, zuk lagunduko ba zidazuke...!

AMA: Nik?... zertan...?

PELLO: Malen nere alde jartzen...

AMA: Gizona! ori zerorrek egin bear dezun lana izango da...

PELLO: Ni aberatsa naizela ba dakizu, baserria nerea bere lur guztiekin eta beste lur asko ere bai, naiko dirua ere gure etxean ba da... gero, ni ain itxura txarrekoa naizenik ez det uste...

AMA: Ja, ja...! au da arto bero usaia...!

PELLO: Ez dezazula bada parrik egin... oraintxe nago ni ezkonduzko garairik ederrenean...

AMA: Zer? mutilzartuta gero garairik onena...?

PELLO: Oraindik berrogei urte besterik ez ditut eta...

AMA: Berrogei... eta gordetzen dituzunak... ara! Malen or datorrela uste det...

Pello-k, Malen-en aurrean egoki agertzeagatik bere burua txukundu nai du eta estul ta parragarrikeri batzuek egiten ditu... ontan ikulluko atetik Malen sartzen da, arraultza batzuek eskutan dakartzki... Pello-ri arrera onik ez dio egiten; berak bai, goxokeri batzuek par irriaz agertzen diozka.

PELLO: Agur, Malentxo (*eztiki*)... zer diozu?... zu beti lanean...

MALEN: Ara! emen el ziñan...

PELLO: Bai, ni beti zu ikusteko zaletua bai naiz...

AMA: Gure etxeko oien zantzurik ez al da?

MALEN: Ez, ez det ezer nabaitzen...

AMA: Bada, berandu-xamar dala derizkiot, gauz onik ez det sumatzen, oraintxe burruntziko aragia baño estuago nago...

PELLO: Zer da, zer gertatzen zaizute...?

MALEN: Zer gertatuko da? Aita, Joxpantoni ta Txomin iratzetara bazkalondoan joan ziran eta ez dira agiri...

AMA: Eta ni oso luze-iritxita nago... illundu duala ere ia orduerdi bat ba da...

PELLO: Eta zein tokietan dira bada...?

MALEN: Larzabal-eko barrutietan...

PELLO: Urrutitxo... gu ortan ere ongi jazten gera, erri-lurretara joaten aritu gabe etxeko barruti eta basoetan bear deguna baño geiago biltzen degu.

AMA: eta artsaldean entzun ditugun tiro-otsak aditu ta gero ni ezin lasai egon niteke...

PELLO: Bai, gorri txatxu oek... eta berakin jeiki diran beste zirtzillak...? euskaldunik onenak oek omen ziran eta iñor baño aurrerago erlijioaren aldekotzat beren buruak jotzen zituzten... eta orain gorrienakin bat egin da... bañan orain artuko duten txamaldaz berriz asteko gogoak kenduko zaizkatela uste det.

AMA: A! ezin egon naiz... gauza txarren bat gertatua izango dala iruditzen zait... Malen, joan bearko den bidera ia zerbait sumatzen ote den...

MALEN: Bai, bai... illun xamartua da bañan joango naiz...

PELLO: Nik lagunduko dizut...

MALEN: Ez, ez, iñoren bearrik ez det, ezer gertatuko zaitenik ez det uste...

PELLO: Bañan gabez... eta... bakarrik... ni gogo aundiz zurekin joango naiz...

AMA: Lagundu nai ba din... ez den mutil gazte bat bezela... bere urteaz...

MALEN: Ez, ez, bakarrik joango naiz bide zati batean... *(Joateko prestatzen danean ikulluko atetik Aitona laxterka dator esanez...)*

AITONA: Emen dira, emen dira...! gurdiaren soñua garbi entzuten da...

AMA: Bai ote...?

AITONA: Bai, bai, ni gauz oietan ez naiz okertzen... ziur naiz... oraindik belarria nerea det... *(Ama-alabak gurdi-otsa entzutera etxetik ateratzen dira)*.

PELLO: Malen ta ni aien bidera joateko orain-txen geunden...

AITONA: Malen-ekin beraz e...! emengo estutasuna ikusita i nor izan ba itzan onezkero an bear uan bakarrik... Malen-ekin bai... e...?

PELLO: Ara! ez zait bada lenago gogoratu ta...

AITONA: Berriz ere «kirten» esango ditek, kirten ez besteren alena...

PELLO: Zer nai dezu bada...?

(Ama-alabak sukaldera pozik datoz berriz esanez...).

MALEN: Bai, bai, or dira... ba datoz...

AMA: Iesus!, datozenean ez da ezer... orain-txen oso iretzia nitzan...

AITONA: Bai, neronek ere nere kezka ba nuen...

AMA: Ots, ots!, maia jarri eta aparia gertu dezagun bereala, aiek ondo gosetuak etorriko ditunan eta... *(ama-alabak gauzak antolatzen asten dira).*

AITONA: Bai, aek etorri baño len ikulluan egin-kizunen bat ba det... noan...

PELLO: Ni ere asi bearrean naiz, berandutzen ari zait eta...

AMA: Bakoitzak berak daki zer egin bear duan...

PELLO: Lan aundirik ez det bañan... bi morroi ba ditugu ta...

AMA: Ez zerate gaizki... alajañetan... bi morroiekin...

PELLO: Ara! ongi esateko bat besterik ez degu ordaintzen, bañan onek berari laguntzera mantendu-truka beste mutiko gazte bat ekartzen du... eta orra bi morroi...

AMA: Ba negon bada ni bi morroien soldatak ordaintzeraño murgildu ote ziñan...

PELLO: Gure baserria oso aundia bai da, bañan bi bizitzetan puskatuta eta bizitza batean maiztarra daukagula ondo antolatzen gera... guztietatik bear degun baño geiago ba degu... Ongi izateko Malentxo bezelako emazte polit bat bear nuke...

MALEN: Ja, ja, ja... (*parra egiten dio*).

PELLO: Ez al zaizu ala iruditzen andre Mañaxi...?

(*Bat-batean atea iriki eta Txomin mutil koskorra agertzen da; bidean laxterka eta asnas estutuan dator*).

TXOMIN: Emen gera, emen gera... onezkero luze iritxita ziñaten e...

AMA: Emen al zerate, motell? gurdiaren otsa entzun degun arte oso estu egon gaituk... bañan ongi ba zatozte ez dek ezer...

TXOMIN: Bai, ongi gatoz eta apaltzeko gogo ederrarekin...

MALEN: Ia joan niñuan ni zuen bidera... zer-bait gertatuta ote ziñaten uste giñian...

(Aitona ikulluko atean agertzen da eta mutilla bere besoetara dijoa).

TXOMIN: Aitona, Aitona...!

AITONA: Motell, motell, bizi al zerate? galduak ote ziñaten...

PELLO: Berandutu baño len ni ba noa... agur, gabon... ongi lo egin zazute...

AMA: Agur, agur... ondo zoazi...

PELLO: Agur... biar arte... agur Malentxo... *(parragarrikeri batzuk egiñez joan danean, Malen-ek parrez esaten dio):*

MALEN: Agur kirtentxo... *(guztiak par egiten dute).*

AMA: Ez zaiozutela oinbeste par egin, gizara-joak bere buruarekin naiko lan ba du ta...

MALEN: Bai, bañan aspergarria da...

AITONA: Eta berekoi arroa... bere gauzaz ongi iritxia da beintzat... bere ondasunak, bere aberastasunak, bere lurrak, bere diruak... beste gauzik ez du asmatzen.

AMA: Malen-en alde zaletasuna agertzen du beintzat...

MALEN: Bai, Ama, bañan zure alaba olako txori-izugarri batekin ezkondu ta ongi irudituko al litzaizuke...?

AMA: Ez, ez, gauz oietan bakoitzak bere barrenak agintzen diona egin bear din... bañan gizon gizarajoa ez din oinbeste beratu bear...

(Menditik etxe-aldera datorren gurdiaren kurrupil-ots zorrotza entzun dala alditxo bat ba da; gero ta geiago bertaratuaz gero ta garbiago aditzen da. Ongi nekatuak, arratsalde guztian gelditu gabe lanean aritu ta gero pozik datoz etxera Anton-Mari etxe-nagusia eta bere alaba Joxpantoni, neska sendo langillea; Txomin mutil azkar biurriak aurea artu diote eta alderatu diranean, etxeraño laxterka etorri da eta sukaldean, Aitonaren aldamenen eserita an dago.... ez da aldi luzean geldirik egongo, ez... Gero, gurdia etxe aurreraño etorri da, etxeakoak ongi eza-

gutu dute eta Malen ta Txomin datozenengana laisterka ba dijoaz... Ama ere ateraño irtetzen da...).

AMA: *(Belarria kanpo-aldera ernai jarriaz)*
Ara! emen dira.

MALEN: Bai, bertan dira..., goazen Txomin...
(kurpil-otsa gelditu da).

TXOMIN: Bai, goazen *(jeikita biak ba dijoaz).*

ATETIK: Alare, etxeraño etorri diranean ez da ezer, Jainkoari eskerrak...

(Barrendik entzuten da Aitak kanpoan esaten duana).

AITONA: Ala da, bai, etxea bezelako tokirik ez da, nekerik aundienak igaroarren etxean guziak aztutzen dira.

AMA: *(Atetik kanpo-aldera).* Atozte, atozte, gizarajo oek, ongi nekatuak izango zerate ta...

AITA: *(Kanpoan)*... Gurdia sartutakoan mandioko atea ongi itxi gero... Joxpantoni...!

(Mandioan sartzerakoan gurdiak egiten duan otsa ere barrendik aditzen da... gero Aita sartzen da sukaldera; akullua eskuetan dakarki).

... Jainkoak gabon dizutela...

AITONA: Bai zuri ere... emen zerate beraz... eta Joxpantoni?

AITA: Gurdia mandioan sartu eta beiak azkatu bear ditu... bereala emen da...

AMA: Oinbeste lan ta ibilliak egiñaz nekatuak izango zerate noski.

AITA: Ez bada, ez uste... pixka bat berandutu egin zaigu... Larzabal-eko toki ori urrutitxo egiten da bai, bañan barruti aietan gauza ba dago ugari, eta ala izanezkero joan-etorria ta lana pozik egiten dira...

AITONA: Bada, illunduta gero azaltzen ez ziñatenean emen iñor ez zegon lasai...

AMA: Ez, kezketan eta luze-iritxita giñan, ni beintzat oso estutua nintzan eta Malen zuen bide-aldera joateko asmotan jarri da.

AITA: Oinbesteraño bildurtu zerate...?

MALEN: Eta arritzekoa al da; gaurko egunean gauden eran, guda ta burruka nunnaitik sumatzen ditugula... ia gaur bazkalondoko tiro ta izki-llu-otsak zer izan diran...

AITA: Bai, ala da, gu ginjoazen aldetik ez itunan, bañan ongi aditu dizkiñagu... eta illundu ta

gero joango al itzanan?, ez al itzanan bildurtuko...?

MALEN: Bildurtu? ez, ez...

AITONA: Nai izanezkero laguntzallea ere ba zuen...

AITA: Laguntzallea? Nor...?

AITONA: Nor izango zan... (*parrez*)... Pello-kirten...

AITA: Pello?

AMA: Bai, emen izan degu... noizik-bein etortzen dala ba dakizu... bada, nere kezka ikusita Malen zuen bidealdera joateko jarri danean emen zegoan eta berari lagundu nai zion...

AITA: Alako gogo ona ba zun bera bakarrik joan zitekean.

MALEN: Bai, berak bideak ederki dakizki eta gabez ere mendiko oitura ba du... bañan aitzekia bear zuan...

AITONA: Bai, txorrea dala esaten ditene, bañan txorrea baño geiago ez ote dan... nik ez zekiñat...

(*Ikulluko atetik Joxpantoni ta Txomin agertzen dira*).

AMA: Ara! gure neska ere emen degu..., oek ibillik e...! gaztetasuna eta sasoi ederra ba ditunan eta eskerrak orreri.

JOXPANTONI: Gabon, gabon, guztioi; Aitona! su-aurrean? otzak al zaude...?

AITONA: Ez, ez, otzak ez natxionan, bañan nere oiturako tokian jarri naun... eta i nekatu al aiz?

JOXPANTONI: Nekatu...? ibilli orrengatik...? ez, ez, ori baño geiagoengatik ere ez zait neri ajolik...

AITONA: A! gaztetasun-aro ederra... gurea nun gelditu zan...

TXOMIN: Zuk ere sasoi txarra ez daukazu ez... urte asko al dituzu bada...?

AITONA: Ik ohea... gogoratu ere ez nauk egi-ten nere urteak zenbat diran...

AITA: Gurdia mandioan sartu al dezute?

JOXPANTONI: Bai, bai, zuk esan bezela sartu eta bere artan utzi degu.

AITA: Ongi da, biar jetxi eta iratzea metatuko degu... ta beiak...?

JOXPANTONI: Ikulluan betiko bere tokian gelditu dira...

AITA: Janik eman al diozute...?

JOXPANTONI: A! ez, ez gera gogoratu, bañan orain joango naiz nai ba dezu...

AITA: Ez, neroni joango naun... *(ba dijoa)*.

AMA: Nora zoaz orain, gizona? aparia gertu dago ta maiera bildu gaitezten...

AITA: Ba nator, ba nator..., asi zaitezte...

(Malen ta Txomin goiko gelaetara joanak dira eta Amak igoerako mallaetara alderatu ta deitzen diote).

AMA: Malen, Txomin...! maiera atozte, apaldu bear degu ta... atozte bereala or txorakeritan ibilli gabe...

MALEN: Ba goaz, ba goaz berealaxe... *(goitik esaten du)*.

AMA: Tira, Aitona, jarri zaite zure tokian, onezkero zu ere gosetua izango zera ta...

AITONA: Aizkeneko aldi ontan ongi nabil, gose aundirik ez izanarren gogoz jaten det.

AMA: Joxpantoni, atoz zu ere, zuk bai, gose ederra izango dezu.

JOXPANTONI: Bai, jateko gogoa ba det, arratsaldekoa ere lauetako egin gendun ta...

AITONA: Bai, gazteak buruan ere esteak izaten ditula esan oi da.

AMA:Goiko oek zer egiten duten ez dakit... (*berriz deika*). Malen...! zer egiten dezute orain aldi luzean... atozte bereala...!

TXOMIN: (*Goitik*). Ba goaz, ba goaz...

AITA: (*Ikulluko atetik sartuaz*) Zer! goiko oek oraindik ez al dira etorri... (*goikoei*) arbasta bat artu ta joan bearko diñat zuen eske e...!

MALEN: (*Malletatik bera ba datoz*)... Gure gelan gauza batzuk antolatzeko utziak ba giñuzen ta...

AMA: Bai, bai, aitzekien bat izango dezute... beti ola gaitun... beti egin bear guztik maiean jartzeko orduan izaten dituzue... kanpoko atea itxi al dezute...? Joxpantoni, leiatilla ori ere itxi zan... tira... Aitagure bat esan zazute... Txomin, asi adi...

(Guztiak maian jarri dira, Txomin-ek Aitagurea esaten du eta besteak erantzuten dute; Malen-ek ontzi aundi bat, kea dariola, maiaren erdian jarri du eta Ama, banaka-banaka, eltzekari artatik guziaz ematen asten da).

AMA: Eta Aitonarentzat arraultzak nun ditun...?

MALEN: Ona emen... (*beste ontzi-txabal batean ba dakarzki*).

AITONA: Bañan, olako ez-gauzak neretzat jartzzen zergatik aritzen zerate? Nik olako kutizien bearrik ez det... beste guztiak jaten dezutena jan nezake...

AMA: Ez, ez, ondo etortzen zaizkizu... eta etxeak dekarrenetik dira beintzat, iñora ez gera billa joan...

AITONA: Ez bañan, beti ere lana ta nekea da zuentzat...

MALEN: Zer lan...? ori ez da lana... gogoz egiten degu gure aitonarentzat...

AITONA: Bai, bai, ba dakit ala egiten dezute-la...

AITA: Adin bateraezkero urdallari begiratu bear zaio... ta eltzekondoa ona el dago Txomin...?

TXOMIN: Bai, ederra dago... jan liteke ugari...

AMA: Jan zak bada, jan, berdin ba zeok eta... ez beintzat goseak gelditu...

JOXPANTONI: Ez, ez, au janezkero goserik ez da...

AITA: (*Zutik dabilenari*). Malen, zu ere exeri zaitea eta jan zazu...

MALEN: U...! nik nolana berdin jaten det... naiko ogi ba al dezute... bear bada beste bat aterako det...

JOXPANTONI: Ez, ez, nik beintzat naikoa ba det...

AMA: Ik naikoa baldin ba den ez den gutxi izango... oek jaten dituzten guztiak nun sartzen dituen ez dakit...

TXOMIN: Nun, nun? sabelean, sabelean...

AITONA: Obea dek, bai, olako gogoia izatea, orrek esan nai dik osasun ona deztela eta Jainkoak bialtzen dizkigun gauzen artean bearrenbearrena ori dek, osasuna...

AITA: Bai, ori ona izanezkero lanak eta nekeak eta beste gauz guztiak errez igarotzen dituk...

AMA: Eta gaur egoardiko tiro eta guda-otsaiek zer ziran? gu oso bildurtuta egon gera...

AITA: Bada, ura gertatu ta andik ordu-erdi batera, gu garo biltzen ari giñan tokian Garmendi-bordako Praxku agertu zaigu, burruka-soñua

zan tokiko aldetik zetorrela esan digu... agidanean sua ta ixkanbilla gogorra zan... alde batetik eta bestetik gogor ekin omen diote alkarri... eta ez zan antxe atsegin izango... berak laister alde egin du andik noski...

AITONA: Ez zekiat, ez zekiat, zer ikusi bear degun...

AMA: Jainkoak lagundu degigula!... Iesus...! Iesus...!

AITA: Bai... eta agidanean alde batetik Naparrotik datozen karlista edo oek, eta Españiko gudaritaldeak izan bear dute... eta bestetik emen bertako euskaldun bizkaitarrixtak edo esaten diotenak eta gorri jende puxka bat ere bai...

AMA: Ez zuten bada esaten euskaldun oek Eleizaren aldekoak zirala...?

AITA: Bai, bañan zer nai dezu...?

AITONA: Adi zazu, gutzat ez ziran txarrak, ez... aldi batean nekazarien alde ongi mintzatu ziran...

AITA: Bai, ala da, eta lana ere ongi egin zuten gure alde...

(Malen-ek lengo ontzia maigañetik kendu eta pertza aundi bat jartzen du).

MALEN: Ona, emen naiko esne...

TXOMIN: Eta taloak...?

MALEN: Bai, motell, ik jan ala izango dituk...

(ba dakarzki).

JOXPANTONI: A...! talo ta esnea baño gauz ederragorik ez da...

AMA: Artu zazute bada ontatik oparo, berdin ba zegok eta...

TXOMIN: Bai, bai, eman, eman... katillua bete arte...

AMA: To, to, ase adi... oinbeste janda mutill au nola lertzen ez dan ez dakit...

AITONA: Utzi zaiozu... «au ez det nai... ura ezin jan det...» aritzea baño jateko gogo ona izatea ohea da...

AITA: *(Alditxo batean talo ta esnea jaten ari ta...)* Bada Praxku-k esan duenez, emengo euskaldun eta gorri edo diran oek, arma, zizpa ta guda-tresna gutxi omen dute... eta gaizki-zamar ibilliko ote diran...

AITONA: Um...! Bai... gudan biotza ta ausardia onak dituk bañan tresnik gabe ezer-gutxi egingo ditek...

AMA: Guri beintzat pakean utzi dezaigutela... len ere, asieratik txamalda ederra izan degu... nai duen gaizto egin bezate... guk naiko illuntasun ba degu barrenean, naiko negar ixuri degu... eta oraindik ere... gure seme gizarajoa... gure Manu!... *(negarrari ekiten dio... beste guztiak ere negarra begietan dute, batez ere Txomin eta bi neskak... mutilla Ama-ri elduta zotinka, Aita-k malkoak legortzen ditu eta Aitona-k ere bere eskua begietara darama...)*.

AITA: Bai, gure seme ona ezin aztu zaigu...

AITONA: Ala da..., bañan bizi guztian negarrez ezin arituko zerate... Jainkoagan biotzak jaso ditzagun eta gure barnetan atertu dedilla...

AMA: Bai, ongi esaten dezu... gure itxaropen guztia an goian izan bedi... paketasun eta biotzeko atsedena andik datozkigu...

AITA: Bai, gero ere arren laguntza bearko degu... bere eskutik euki gaitzala...

AMA: ... Orain, jatez bukatu baldin ba dezute, gaberoko lana bete bear degu, Arantzazuko Amari agurtza esan bear diogu, Manu gizarajoa-ren alde...

AITONA: Bai, bai, bukatu degu... eta asi ziñez-ke...

TXOMIN: Itxo egin, itxo egin, pixka bat... bereala... (*jaten du laisterka*).

AITA: Oraindik orrela al aiz...? asko dek beti azkena izatea...

AMA: Tira, tira, astiro bukatu zak, oinbestera-ñoکو itomenik ez diagu ta... bitartean, Malen ta Joxpantoni, ontziak jaso ta garbitzen asi zaitez-te...

JOXPANTONI: Bai, bai, ez da lan aundia, laxter egingo ditugu...

AITA: Asi gaitezen bada...

AMA: Gure Manu gizarajoaren gogoaren alde... Aitaren, eta Semearen, eta...

Agurtza esaten asten dira... Ama-k darama eta beste guztiak erantzuten dute... Asi besterik ez dute egin, mutil koskorra mai ertzean burua etzanda, lo artzera dijoa... ontan, gutxiena uste dutenean, atea jotzen dute kanpotik indartsu, gogor.... dan, dan, dan...

Ori entzundakoan guziak ixiltzen dira... bat-batean berriz kezka ta bildurra sartu zaiote... ia

lo artuta zegon Txomin, ikaratuta, esnatzen da... guztiak alkarri begira gelditu dira itzik gabe.

Berriz len baño indartsuago atea jotzen dute... dan, dan, dan... eta etxe-aurrean ots eta gizaardalla entzuten dira: —iriki, iriki— ... deitzen dute... gazteen batzuk dira...

MALEN: lesus! zer ote da...

AITONA: Gauz onik ez...

AMA: (*Aitari*). Ez zaitezela atera... zerbait egingo dizute...

JOXPANTONI: Ez joan, ez joan.

AITA: Nola ez...? nola deitzen duten ez aldezute ikusten...?

AMA: Ene bada... Arantzazu-ko Ama...! zer ikusi bear ote degu!

AITONA: Zer dan ikusi baño len oinbesteraño ez zaitezela estutu.

(*Berriz ere jotzen dute «dan, dan, dan...»*).

AITA: Goiko leiotik aditzera emango diotet...

AITONA: Bai, ori da onena... (*Goiko bizitzara Aita ba dijoa, Joxpantoni eta Txomin bere ondo-
ren dira... Aitona oiei begira mallaen oñean gel-
ditu da... beste emakumeak sukaldean arrituta
zearo bildurtuak daude... Malen, zerbait aditu*

naiean itxita dagon leiora alderatzen da... eta Amak deitzen dio ixil-xamar):

AMA: Malen, etorri adi onera, kendu adi leio aurretik... itxia egonarren orrera bota lezateken...

MALEN: Asmo txarrekin datozenik ez dirudi... asko izan bear dira ...

(Aitak goiko leiotik zer esaten duan, sukaldekoak aditu nai dute, baita kanpokoan erantzunak ere... ortarako belarria luzatu ta an daude... Aitonak ez du garbi entzuten...).

AITONA: *(Malen-i).* Zer diote, ongi aditzen al dezu...?

MALEN: Ixo... irikitzeko eskatzen dute...

AMA: «Jainkoa-ren izenean» batek esan du... zer ote dute?

AITONA: Asarrean izatea baño ohea da...

MALEN: Arren ta arren, irikitzeko laister... euskaldunak dirala beintzat eta armak berekin izanarren ez duela indarrez ezer egin nai...

AITONA: Ez dago gaizki...

MALEN: Ara! Aita leiotik kendu da... ba dator...

(Oin-otsak entzuten dira eta goitik-bera Aita an dator, Joxpantoni ta Txomin ere bai).

AMA: Zer da, zer diote...?

AITA: Iriki egin bearko diegu...

AMA: Iriki?

AITA: Bai, zauritu bat berekin dakarkite.

AMA: Zauritu bat...?

AITA: Eta oso estu ta larri dira... Jainkoak lagundu deigula... bañan zauritu batekin etorri eta euskaldunen artean ola eskatuezkero iriki gabe ezin gelditu giñezke. (*Atea irikitzeke ba dijoa*).

JOXPANTONI: Jende onak dirala uste det... eta euskaldun garbiak...

AMA: Ene bada! Arantzazu-ko Ama gutzaz errukitu zaite!

Aitak atea iriki duenean an agertzen dira sukaldean kanpoan zeuden gudariak; bat aintzindari bezela ba dute; au sartzen da lenbizi; Aitari eta beste guztiei agur egiñaz, barkatzeko eta ez bildurtzeko esaten diote; bere ondoren beste bost edo sei gudari sartzen dira. Bien artean, eskuoean, zauritu bat dakarte eta lurrean jartzen dute; gizarajoak gudari gazte bat dirudi, eta ildako baten antzera zuri-zuri dator.

AINTZINDARIA: ... Jainkoak gabon dizutela; ordu oietan eta era ontan etortzea barkatu zazu-te, bañan naitanaiezkoa degu... ez bildurtu gugatik... gaizkilleak ez gera...; gaur arratsal-dean or goiko zelai oietan izan degun burrukaal-dian gure aintzindari gazte au zauritu digute... odol-ixurtzen ba dijoa eta odol ori azkar gelditua-razten ez ba zaio ilko zaigu noski... urruti emate-rik ez daukagu bada... nere anaia da... eta arren-ta arren, Jainkoa-ren izenean zuen aterpe ontan artu zazute, eta ea odol ori gelditzen zaion...

(Guztiak, bañan batez ere emakumeak, eskuoetan dagon zaurituari erruki aundiz begira-tzen diote).

... zuei kalterik egitera ez gatoz, ez bildurrik izan, ez dizutet indarrez ezer agindu nai... Jain-koa-ren izenean gazte gizarajo onentzat lagun-tza eskatzen dizutet. *(Etxekoak alkarri begiratu-ta ixilik daude).*

... gogo onez laguntza ori eman nai ba diozu-te nere eta gure sendi guztiaren eskerrik obere-nak bizi guztian izango dituzute... bestela nere anaia ilko da...

(Ixilik alditxo batean alkarri begira egon ta gero, Ama mintzatzen da...):

AMA: Zer egingo degu bada Anton-Mari?... artu egin bearko degu... iruditzen ba zaizu... *(erdi negarrez)* gure Manu gogoratzen zait...

AITA: Bai... Jainkoa-ren izenean eta euskaldun anaiak ola eskatuezkero...

MALEN: Bai, bai... kristau artean orrela iltzen utziko degu bada?... alegiña egin bear genioke... gizarajoa!...

AMA: Gure semeak ere laguntzalleren batzuek izan ba zitun agian ez zan ilko...

AITA: Bai... al degun guztia egingo diogu... gela ortara eraman zazute...

AINTZINDARIA: Eskerrik-asko, eskerrik-asko, Jainkoa-k ordainduko dizute eta damutuko zaizutenik ez det uste...

(Ori entzundakoan Ama eta neskak aldame-neko gela antolatzer bereala dijoaz; gero bi gudariak, esku-oea aldean artu, ta zauritua daramate...; beste gudariak Aitona ta Txomin-ekin sukaldean gelditzen dira...; Aita ere gelan sartu da).

AITONA: Eseri zaitezte, eseri... jarri emen, su aurrean... nekatuak izango zerate ta...

1. GUDARIA: Otzik ez dago bañan goizean egin duan euri pixkaz busti-xamarrak gera... nekatuak bai... ibilliak eta burrukak baño geiago gañean ditugun zama eta tresna oiek nekatuarazten gaitue...

AITONA: Kendu ditzazute bada, kendu... eta jarri lasai... *(Kentzen dituzte ta bere zizpak ere bazterrean utzi).*

2. GUDARIA: Au dek lasatasuna... egun guztian gauz oek bizkarrean artu ta lokarriz bularrak estutu ta...

3. GUDARIA: Onela ibiltzea baño gizonak edozer gauza obea likek...

AITONA: Ori ala da bai... eta zergatik zabilzate bada...?

1. GUDARIA: Naitanaiez ortara beartu gaituelako... *(Bi neskak gelatik irten eta surtan zerbait antolatzen asten dira).*

AITONA: *(Neskei)*... eta zauritu orrek zer dio...?

JOXPANTONI: Oso eroria dirudi, odol asko galdua izan bear du ta...

MALEN: Otzak dago, eta ur beroz ea bere onetara etortzen dan...

3. GUDARIA: Gizarajoa... orain dala iru illabete ola arkitu bear zuala esan ba zioten... oso etxe onekoa da gero...

AITONA: Zuek guziak kaletarrak izango zerate noski... gudako gauz oietan baserritarrak ez gaituk sartzen...

4. GUDARIA: Ez ba, ni nekazaria naiz... Oiartzun-go baserri batekoa... Oiartzun nun dan bai al dakizu...? emendik oso urruti da...

AITONA: Bai, gizona, nun dan ba dakit... bein izana naiz... nere emazte-zanarekin Lezo-ra joan giñan batean, gazteak giñaneko adixkide batekin eguna igarotzera Oiartzun-eraño iritxi nitzan... Lezo-tik ez da urruti...

4. GUDARIA: Ez, ez... ordu-erdi bateko bidea... *(Gelako atea erdi-iriki eta Aitak Maleni esaten dio...)*.

AITA: Malen!... goitik maindire bat ekarri zan... bereala...

MALEN: Bai, ba noa... *(Joxpantoni-ri)* pertza oneri begira zaion...

JOXPANTONI: Bai, ba... noa... (*Malen laisterka goiko bizitzara ba dijoa*).

1. GUDARIA: Eta zuk, Aitona, zergatik ola gabil-tzan galdetzen zenduan; guda asieran izan dan tokietatik urrun-xamar ziñatela ezagun da bai...

3. GUDARIA: An bertan izan ba ziñan galdetu bearrik ez zenduen izango ez...

2. GUDARIA: Ez gera, ez, gure gogoz atera... gure etxetan, pake-pakean ederki geunden, gure lanei buruz...

AITONA: Bai, burrukan ta eztabaidan ibiltzea baño ori obea dek, bai...

1. GUDARIA: Guda ez degu guk sortu, besteak sortu dute, aiek asi dute. (*Malen, maindire toles-tu bat eskuetan duela, goitik ba dator, gelako atean «kox-kox» jo ta Aita-ri ematen dio eta su ondora biurtzen da*).

3. GUDARIA: Gure etsai oek, izkillu eta guda-tresnaz ondo jantzi diranean jeiki dira eta itxu-mustuan guri ekin digute... zer egin bear genduan?... erailtegiara eramaten dan zekor baten antzera gu erailtzen utzi...? ez arranea, ez...

4. GUDARIA: Ez... bi zango ta bi beso oek eta emen euzkotar-biotza degun bitartean, ez...

AITONA: Eta zergatik ekin dizute?... berak krixtautasunaren alde dirala ez al ditek bada esaten...?

4. GUDARIA: Ala esaten dute... bañan esatetik izatera bide luzea dago.

1. GUDARIA: Bai al dakizu zergatik ekin diguten?... bada euskaldun onak geralako, Jainkoaren urrena Euzkadi, gure Euskalerrria, maite degulako, eta euskAITAsunaren aldekoak geralako... orixe...

AITONA: Eta euskalduna euskaldun ona izatea gauza txarren bat al dek bada?... eta berak zer dituk?...

2. GUDARIA: Bada, ori da guztia... ori eta gu zuen aldeko, nekazarien aldeko izatea... gauz oiengatik gu begiz ezin ikusi gaitue...

1. GUDARIA: Ori gure aldetik... bestetik, Españi-ko erriak bere buruari eman zion legearen aurka altxatu dira, lege arrek dakarkin aztatatuna ez dute nai eta ura kendu eta guztiok bere mendean jarri nai gaituzte...

AITONA: Ori ez zeok ongi... batek, berak nai duan bezela, agindu eta beste guztiak arren aurrean aozpez egon bear...?

(Len bezela, gelako atea erdi-iriki eta Aita agertzen da esanaz...).

AITA: Malen... ur bero ori ekarri zazute... eta ontziak ere bai.

JOXPANTONI: Bai, ba goaz...

AITA: Ondo irakin al du...?

JOXPANTONI: Bai, oraindik irakiten dago...

AITA: Tira bada, laister...

(Joxpantoni-k pertza eta Malen-ek bazter batetik artu dituan ontzi batzuek eramaten diozkate; Aita-k atean artu eta gelan barrura daramazki).

1. GUDARIA: Eta gizatasunik ez duten zirtzil oek nai dutelako gu ola ibilli bear...

3. GUDARIA: Bai, gizona... eta gaur arratsaldean ere an etzanda gelditu diran aiek...?

2. GUDARIA: Ori dek okerrena...!

4. GUDARIA: Eta Xabier or degun bezela, iltze-ko zorian...? *(Berriz gelako atean Aita agertzen da esanez):*

AITA: Malen, larramillu ori gertu zan lenbaitlen... bañan gizon oei ezer ez al diozute eman bear?... gazta pixka bat eta ardo edo sagardoa bederen... ezer ez zaizute gogoratzen... oinbes-

teko aldi luzean or dauzkazute ezer eskeñi gabe...

MALEN: Bai, ala da... zaurituaren gauzaz gogoratu ere ez zaigu... barkatu zazute...

1. GUDARIA: Zer barkatu?... gu emen artze-utsaz geiegi egiten dezute ta... ez ezertan ibilli... ez degu ezer bear...

4. GUDARIA: Gizona, gizona!... ez degula bear... gogo onez berak eman nai digutenezkero ez al degu bada eskertu bear...?

AITONA: Ori dek ori... eskeintzen zaiona gizonak artu egin bear dik...

4. GUDARIA: Muturreko bat ez dan bitartean...

AITONA: Ori, ori, baserritarra aizela ezagun dek bai...

MALEN: *(Joxpantoni-ri)*... katillu au gelara eraman zan... *(Joxpantoni-k gelako atea jo eta kati-llua Aita-ri ematen dio— Malen-ek gazta, ogia eta sagardo-txarro bat mai gañean jartzen ditu, esanaz):*

Jan zazute eta edan lasai; etxean ba degu eta ori edatean geiago ere ekarriko dizutet...

1. GUDARIA: Eskerrikasko, eskerrikasko...

2. GUDARIA: Bai, gogoz edango degu... olako gauzarik noiz-nai ez degu izaten...

AITONA: Gudatean al dan bezela ibilli bear...

3. GUDARIA: Bota, bota... oraintxe egarritua nitzan...

4. GUDARIA: Ikusten al dezute?... beti gure baserritarra esku-zabal... bear duenari berak duan guztia ematen dakiena...

2. GUDARIA: Bai, motell... orregatik nekazarien aldekoak gu beti izan gaituk...

1. GUDARIA: (4. *Gudaria-ri*) Bañan ez uste i bakarrik aizela baserritar, euskaldun guztiak baserritik gaxetorrek, gure aurrekoak baserritarak izan ituan... eta ori dek guretzat gorapenik aundiena...

AITONA: Bai ote?...

1. GUDARIA: Bai, bai, ori gauza jakiña da...

AITONA: Joxpantoni, sagardo geiago ekarri zan... oek edango ditzen eta...

JOXPANTONI: Bai, berealaxe... (*txarroa artu ta ikulluko atetik dijoa*).

AITONA: Jan zazute jan, bildurrik gabe... (*Esku-oearekin sartu diran bi mutillak ere Aitak gelako atetik sukaldera sar-arazten ditu*).

AITA: Zoazte, zoazte, zuek ere zerbait artzera lagunekin...

1. EKARLEAK: Eskarrikasko, nagusi...

AITONA: Atozte, atozte, gizarajo oek, zerbaiten bearrean arkituko zerate ta...

3. GUDARIA: Ta, Xabier nola zegok, biziko al da?

2. EKARLEAK: Bai, nik uste diat obetoxeago dagoala...

1. EKARLEAK: Sartu geranean oso gaizki zegoken...

2. EKARLEAK: Bere zuritiesunak bildurra ematen zidan... illa bezela zegok. (*Joxpantoni sagardoakin ba dator; guziak jaten ari dira*).

1. GUDARIA: (*Sagardoa edan ondoren*) Sagardo au kanpotik ekarria izango dezute, e...

AITONA: Ez, ez, etxean egiña da... sagarra ba degu ugari eta urtero bear degun guztia etxean bertan egiten degu...

1. GUDARIA: Bañan ederra da... Astigarragan saltzeko egiten duten sagardoa dirudi... baserri-etxekoa danik iñork ez luke esango...

AITONA: Ala da bada, ez dira beti ain onak ateratzen bañan aurtengoak onak ziran... joan

dan udaran, bero aundi aiek ziranean, ekiñaldi ederrak upelari eman dizkagu...

1. GUDARIA: Bai, xinixten dizut, errez edaten dana da... *(Txomin zizpa batekin jostatzen asi da).*

1. EKARLEAK: Motell, motell, utzi zaiok orri pakean...

MALEN: Txomin... ea izkillu ori uste deken... aur au geldirik ezin egon da...

TXOMIN: Eo... zer da bada... zizpa ori nolakoa dan ez al det ikusi bear...?

AITONA: Ez, ez, geldirik egon adi... ola gertatzen dituk gero gertaera negargarriak...

MALEN: Jan ta edan egin zazute, mutillak, bildurrik gabe... *(Joxpantonik beste bi txarro sagardo ekarri ditu).*

4. GUDARIA: Eskerrikasko... olako atsedena aldik maiz ba giñuzke...

2. GUDARIA: Bai... gizon zital batzuen aundikeriagatik gu ola ibiltzea ere ba dek gauza egokia...

AITONA: Beraz gudaren aldekoak ez zerate e?...

2. GUDARIA: Ez, Aitona, ez, guda baño gauza txarragorik ez da, ez bertan izkillukin burrukan

gabilitzanentzat, ez burruka-tokitik urrunxamar zaudetenentzat, ez Euskalerrria-rentzat, ez iño-rentzat...

AITONA: Ala dek bai, gudatik gauz onik ez dek sortu beñere.

3. GUDARIA: Guk baño obeki jakingo dezu zuk, Aitona, lengo gerrateko abesti zar arrek esaten zuana...: *(ixiltxo abestutzen du)* Ez naiz ni gerraren zale, baizik pakearen alde. Zeñek nai duen galde, berari tira, dale! bala bat sartu buruan, aspertuko da orduan...

2. EKARLEAK: Ixo... ixo... *(beatza ezpañetan jarrita ixilik egoteko esaten dio, aldameneko gelan beren laguna gaxo dagola gogoratu-araziz).*

1. GUDARIA: Ez... orren ixilik abestuezkero gelatik ez dek aditzen...

AITONA: *(Pozik)*... Ori dek, ori egi aundia; ni gaztea nintzaneko kanta dek ori... guda ta gauz oek sortzen dituztenei berari tirako ba litzaioteke aspertuko ituke bai...

AITA: *(Gelako atea iriki ta Aita sartzen da)* Zer, bertsuak ere ba al ditugu... e?

2. GUDARIA: Jan degu ta... sagardo ederra ere oparo eman digute ta... alditxo batez gudan gabiltzala aztu egin zaigu...

AITA: Ez dago gaizki, gizona, gauza txar oiek aztutzeko obeak dira...

4. GUDARIA: Bai, zearo aztuko ba giñuzke...!

1. GUDARIA: Ta gure adixkidea nola arkitzen dezu?... ontatik biziarekin aterako ba litzake...

AITA: Nik ikusi detenean arrunt galdua zirudien, oso gaizki arkitu det, zearo odol ixuria zan, oieko maindire zuria baño zuriago... eta dar-dar otzak il bear zuan... bañan orain pixka bat bertu-arazi degula uste det... eztiki-eztiki bere onetara ba dator... nere ustez iztarreko zauria ez da garrantzi audikoa, ba liteke zain nagusien bat joa izango zuan eta orrengatik odol galtze izugarria izan du... bidean ilda nola gelditu ez zaizuten ez dakit...

1. EKARLEAK: Ba dakizu... ainbeste odol zijoa-la ikusi degunean lokarri batez zauria baño goragotik iztarra estu-estu lotu diogu.

AITA: Ederki egin dezute... baldin bizirik ba dago gauz orrengatik izan dala esango nuke... eta neri sagardorik ez al didazute eman bear?

1. GUDARIA: Ederra dek... etxeko nagusia ezer gabe utzi... (*Batek eta besteak beren edanontzia eman nai diote leian. Batena artzen du...*).

AITA: Ba... ondo da... naikoa det... eskerrak... (*edaten du*)... orain odola gelditu zaio, zauria urirakiñez garbitu eta zerbait berotzen ere asi da... aurki bere onetara etorria izango degula uste det...

2. GUDARIA: Ala ba litz...!

4. GUDARIA: Jaunari eskerrak...

AITA: Bañan... bañan zuekin ezin eramango dezute... orrek emen gelditu bearke du... orain orain-bezala iñora eramateko gauza ez da...

1. GUDARIA: Orixe da beste gauza bat... eta zer egin bear degu... emen eukiko al dezute...? Eta zuen kaltean ba litz...?

AITA: A!... zer egingo da?... iltzera ezin bialduko degu beintzat... krixtautasunak ez du ori agintzen... al deguna egin bearke diogu...

3. GUDARIA: Bejondeizula!... krixtau eta euskaldun batek ola itz egin bear luke beti...

2. GUDARIA: Euskaldun jatorra zerala ezagun dezu, bai...

AITA: Jainkoak lagunduko al digu...! (*Gelako atea iriki eta Ama ta lengo Aintzindaria sukaldera sartzen dira; alkarrekin itz egiten datoz*).

AINTZINDARIA: Bai, bai, ongi dago... orixe egingo ba zenduteke...!

AMA: Bai, al deguna egingo diogu...

AINTZINDARIA: Aingeruak ekarri gaitue onera... eskerrikasko...

AITA: Eta mutill ori nola utzi dezute...?

AMA: Polikixeago ote dagon... orain atsedean onean dagoala dirudi...

AINTZINDARIA: Berotzen asi da eta bere onetara datorrela uste det.

AITA: Oraindik naiko ikuskizun izango du noski...

AINTZINDARIA: Odol galtze izugarriaz oso makaldua gelditu bai da...

AMA: Ala da bai, bañan gaztea ta indartsua da, emengo geldi-egonaz eta janari garbian bidez berriz egingo da... orain ain eroria ikusiarren laxter xuxpertuko da.

MALEN: Jainkoak ala nai dezala...!

AINTZINDARIA: Mutillak! Euskalerriko gure baserritarren biotza zenbaterañoa dan ikusten al dezute...?

2. EKARLEAK: Bai, oraintxe arestian orixe bera esaten ari giñan; oiengatik izan ez ba zan, Xabier, gure adiskide ta aintzindari gazte maitatua, ziur garbitua gendun...

AMA: Oraindik naiko ikuskizun izango du, bañan...

AINTZINDARIA: Bai, guztion izenean bañan batez ere nere aldetik, zauritua nere anaia detenezkero, biotz-biotzez eskerrak zuei...

AITA: Ez dezu eskerrik eman bear... krixtautasunak eta euskaldun-anaitasunak agintzen diguna betetzea besterik ez degu egiten... barrengo agindea degu...

1. GUDARIA: Bejondeizula...! euskalduna izatea baño gauza aundiagorik, ederragorik munduan ez dala berriz ere esango degu...

3. GUDARIA: Ala dek, bai. .. eta arrotz oek, euskaldun ergel batzuen laguntzarekin, gure erri au menderatu ta oinperatu nai...

4. GUDARIA: Oinperatu, zapaldu, txeatu ta betirako ondatu, ori nai ditek.

1. EKARLEAK: Bai, ori nai ditek bañan naiko lan izango ditek...

2. EKARLEAK: Ez arranea...! egiazko euskaldunak gure zango gañean txutik gauden artean...

AITONA: Ori dek ori... gu ere lengo karlixten gudan orretxeagatik ibilli giñuan, krixtautasuna ta euskAITAsunagatik...

2. GUDARIA: Zuek bai, euskaldun onak bai...

AINTZINDARIA: (*Aitari*)... Orain alde egin bear degu...; nik esku-agertu bat egin nai nizuke... diru asko ez daramat bañan detena tori...

AITA: Ez, dirurik ez det bear nik... ez... ez... ez dizut artuko... gauz oek diruarengatik ez dira egiten, Jainkoa-gatik bai.

AMA: Ez, ez, dirurik ez...

AINTZINDARIA: Ala da egia, ongi esaten dezu... al egiña egin zaiozute ta damutuko zaizutenik ez det uste... gero ere bizi diranak munduan izango dira... eta gaur edo biar gauz oek igaro ta Jainkoak nai ba du pakean izatea alkarren berri jakingo degu... ta zuei esker ona biotzez agertzeko aldi ona orduantxe izango da noski...

AITA: Bai, bai, ez estutu orrengatik...

AMA: Guk, gure biotz onez, al degun guztia egingo diogu beintzat...

AINTZINDARIA: Eskerrak eta eskerrak.....

AITONA: Joan baño len gizon oni sagardo pixka bat, besterik ez bada ere, emaiozute... onek ezer ez du artu...

AINTZINDARIA: Ez, ez det ezer bear...

AMA: Bai, bai, ala da... guztiok aztuta giñan... artu zazu sagardoa gazta-zati batekin...

AINTZINDARIA: Ez, ez, sagardo pixka bat artuko dizutet bada... ori naikoa det... (*ematen diote*)... gaur arratsaldeko gertaera oiez janaz neroni oso aztua nitzan...

MALEN: Ar zazu, ar zazu, geiago...

AINTZINDARIA: Ez... naikoa det, eskerrak ainitz... orain joan bearrean gera...

(*Gudariak beren zaina ta tresnak antolatzen asi dira*).

2. GUDARIA: Emen ederki gatxioken bañan... joan egin bear...

3. GUDARIA: Guda bizi-bizian gebitzala aztu egin al zaik...?

AITA: Bakoitzak berak zekik zer egin bear duan...

AINTZINDARIA: Bai... Gaur eguerdian izan degun burruka-aldi ortan gure etsaiak atzealdera bota ditugu, bañan gudako zizpa, izkillu eta tresna gutxi eskuetan oraindik... noski, guda ez gendun nai eta gudarako gertu ez giñan...; orrengatik Bizkai-aldera joateko agindu digute... uste dan bezela, arma ta tresnak egun batetik bestera etortzen ba zaizkigu, urruti joan gabe etsaiei gogor elduko diotegu...

1. GUDARIA: Orduan toki au etsaien mendean geldiko da...

AINTZINDARIA: Orain orain-bezela bai... (*etxe-koei*) orrengatik Xabier ixilka euki bearko dezute... ori emen daukazutela beste oek jakingo ba luteke berealaxe bera garbitua izango litzake... eta zuek ere gaizki ibilliko ziñatekela uste det... ara nik garbi esan...

AMA: Oinbesterañoko basatiak ote dira ba... gaxorik dagon bat ola ilko ote luteke... krixtau onak dirala ez al dute bada esaten...?

1. EKARLEAK: Bai, esan ala egiten dute, bañan... esatea eta izatea ez dira berdiñak...

4. GUDARIA: Berak, sartu diran tokietan egin dituzten zitalkeriak ez dakizkizute ongi... nik bai... ikusi ditut ederrak...

AINTZINDARIA: Bada, euskaldun abertzale bat zauritua etxe ontan daukazutela iñork ez dezala jakin... bestela emen zer gertatu liteken ez dakit...

AMA: Bai, bai, jakiñaren gañean egotea obea da... ixilik eukiko degu...

AITA: Ez da zalla izango...; gure baserri au erritik urruti-xamar dago; erria emendik ederki ikusten da bañan mendian beste egalean bai dago eta sakonera jetxi eta beste maldan gora joateko beta bear da...; gañera ez da emendik iñorako biderik eta iñor-gutxi ibiltzen da, eiztarien bat edo beste...; orrengatik gauz au errez ixilik eukiko degula uste det... orain norbaitek salatuko ba lu...!

MALEN: Ondo begiratuko degu bai...

AITA: Beste gauz bat ere ongi etorriko zaigu... Erriko sendakin gaztea, nere ustez, ez oso agertua, bañan zuen aldekoa izan bear du...

AINTZINDARIA: Bai ote...? zein da bada...?

AITA: Xanti-jauna deitzen diogu... bere abize-na Bidaburu dala uste det...

AINZINDARIA: A!... bai... zerbait gogoratzen naiz... gaxo dagonarentzat ori ez da gaizki etorri-ko... Agur bada... joateko garaia degu... *(Aita-ri eta gero beste guztiei esku eman eta agur egi-ten diote; beste mutillak ere berdin egiten dute, esker ugariak emanez; esku-oe-zaleak gelan sartu dira ta beren makil luzeak bizkarrean artu-ta datoz... Aintzindaria zaurituari azken-agurra egitera gelan sartu ta berealaxe irten da).*

AITA: Esan oi dan bezela: «Joan bear duanak egotea kalte»...

1. GUDARIA: Bai, egi aundia da ori...

(Oraindik gelako atetik gaxo dagonari begira-tzen diote).

4. GUDARIA: egon ongi, e... Xabier...

3. GUDARIA: Aurki emen gaituk berriz ire billa...

2. GUDARIA: Agur, Xabier... *(guztiak kupituta dira).*

AINZINDARIA: Tira, tira, motellek... goazema-zute... goazemazute...

1. GUDARIA: Bai, bai, ba goaz... agur etxe-koak... agur... eskerrikasko.

4. GUDARIA: Eskerrak guztiengatik...

3. GUDARIA: Zuen arrera ona ez zaigu aztuko beñere... agur...

AITA: Badaezpada ixilik atera zaitezte...

AINZINDARIA: Bai, bai..., ixilik, motellek, emen izan gerala iñork ez dezala sumatu...

AITONA: Agur, agur... ondo ibilli zaitezte...

AMA: Jainkoak lagun deizutela... Arantzazuko Ama-ri zuen alde eskatuko diogu...

(Gudari mutillak ba dijoaz; etxe-koak ateraño joan dira eta oraindik, ixilka-xamar aizkeneko agurrak aditzen dira;... gero etxe-koak sukaldera datoz).

AMA: Gizarajoak!... oien Amak ere an egongo dira, beren semea nun duten jakiteko irrikitzen...

AITA: Bai... gazte oek ola ibiltzea izugarria da...

AITONA: Euskalerriko gaztedi guztia olako zir-zilkeritan galdu bearra da...

TXOMIN: Eta nora dijoaz orain mutil oek...?

AITA: Nork zekik?... berak ere ez zekitek noski...

TXOMIN: Eta nun lo egin bear dute...?

AITONA: Lo? Gudan dabillenak nun lo egin bear duan eta geldialdi bat nun egin bear duan ere ez dik jakiten...

TXOMIN: Eta lorik egin gabe ibiltzen al dira bada...?

AITONA: Al duten bezela...

AMA: Eta orain emen guretzat gelditzen dan lanbideaz jazten al zerate...?

AITA: Bai, bai... ala da... bañan zer egin... guk artu ez ba genduen ordu ontarako mutil gizarajo ori illa zan...!

AITONA: Bai, ala da. .. ongi egin dezute... biotzaren aginduei jarraitzea lenengo gauza da...

AMA: Noski... eta gogo onez alegin guztia egingo diogu... eta beste aldekoak jakin eta etortzen ba zaizkigu...?

JOXPANTONI: Iesus!... olakorik ez dedilla gertatu...

MALEN: Guk nai ez izanarren gertatu liteke ordea... eta orduan...?

AMA: Jainkoak nai ez dezala...!

AITONA: Gure asmo onagatik Jainkoak lagun-
duko digu... Goikoagan itxaropen osoa izan bear
degu...

AITA: Ortarako bear deguna da ixilik egotea,
etxe ontan zer gertatzen dan iñork ez dezala
jakin... ez eta emen barrenen nor dagon... adi-
tzen al dek Txomin...? mingañari ongi begiratu
bear diok... e...?

TXOMIN: Bai, bai, nigatik iñork ez du ezer
jakingo ez...

AMA: Baldin-baite, ez al da lagun artean gauz
oek esaten ariko...

TXOMIN: Ni?, ez, ez, nik iñori ezer ez diot
esango...

AITA: Zuek ere, Joxpantoni ta Malen, adixki-
dien artean zer esaten danari ondo begiratu...?

MALEN: Ni beintzat iñortxorekin ez naiz bil-
tzen...

AMA: Bada ni gutxiago, Eleizako lana buka-
tuezkero bereala etxera etortzen naiz iñun geldi-
tu gabe...

AITA: Bai, bañan era askotara bear ez dan
gauzen bat esan edo txorakerien bat errez egin
liteke eta arreta aundiz ibilli bear degu guztiok...

edozer gauzengatik galtzera etorri giñezkela gogoan izan beti...

(Malen, Joxpantoni ta Txomin gelan sartu dira ixilka, otsik egin gabe; gero sukaldera datoz berriz kupituta, negar malkoen batzuk legortuaz).

MALEN: Girazajoa... oso gaztea da ... ikusi gaituenean par-irria egiten zigun...

JOXPANTONI: Bai... ta bere burua ola arkitzea izugarria da...!

MALEN: Eta etxe onekoa dala esan dute...

AITA: Bai, onek eta beste bere anai arek, ondo eskolatuak dirala ezagun dute...

(Aitona ere gelan sartu da eta ateratzerakoan illun-antzean dator).

AITONA: Erruki det, mutil ona dirudi... agur egin nai zidan... oso auldua dago... zerbait esan naitarren ezin zuan...

AITA: Onen-onena pakean ustea izango da... gabean, bakarrik gelditu ez dedin, lagundu eta bear duana emateko, banaka bere aldamenean egongo gera, ala ongi zainduko degu...

MALEN: Ongi da... ori ikusita gure Manu ez al zaizute gogoratzen...? *(negar egiten du).*

AMA: (Negarrez) Ixilik zaude... zauritu ori ikusi detenezkero nere semea begien aurretik ezin kendu det... ori sendatzen ari nintzanean, beso artean nere semea nuela iruditzen zitzaitzen... (*Guziak illuntzen dira*).

AITA: Emen agertu diran guztiak gizaseme egokiak dira... euskaldun onak... ez dira gudaren aldekoak, pakea ta lana geiago maite dituzte...

AITONA: Arrazoia dute... ori da zuzentasuna...

AITA: Naitanaiez gudara joan bearrean arkitu dirala zioten... bestela bere etsai oiek garbituko emen zituzten...

AMA: Eta beste gauz batez ere ez gera gogoratzen...

MALEN: Zer...?

AMA: Ekarri dutenean baño obeto egonarren, mutill onek ikuskizun aundia dauka oraindik eta, nai ba degu ta ez, sendakiñari deitu bearko diogu... eta arrek beintzat emengo gertaera jakin bearko du...

AITONA: Bai, ala da, ni beintzat ez nintzan gogoratzen...

AITA: Arekikoa errez egingo detela uste det... oso gizon zuzena da eta euskaldun zintzoa... adi-

tzera detenez emen izan diran oien etsaia ez du izan bear.... nik bear bezela itz egingo diot, eta salduko gaitunik ez zait iduritzen.

AMA: Ala ba litz...

AITA: Bai, bai, ziur naiz... nik gauz ori antolatuko det... eguna zabaldu baño lenago iñork ikusi gabe joango naiz...

AMA: Orduan... oso berandu degu, bai... eta zuek ondo nekatuak izan bear dezute... gaxo dagona zaintzen ni geldituko naiz eta zuek oiera zoazte... Malen-ek aldizka lagunduko dit...

MALEN: Ez, ez, zu zoaz oiera, ni bakarrik geldituko naiz...

JOXPANTONI: Ni ere bai, geldituko naiz... nekakua ez nago...

AMA: Ez, ez.... zuek biar lana gogotik egin bearko dezute ta... Malen ta ni moldatuko gera emen... zuek zoazte...

AITA: Bañan, guda-gizon oek etorri diranean zer ari giñan ez al zerate gogoratzen...?

TXOMIN: Zer?

AITA: Bada, Ama-Maria-ren agurtza esaten asiak giñan... ta...

MALEN: A! bai...

AITA: Bada jarraitu dezagun eta berealaxe amaituko degu...; bere eskutik euki gaitzala eta oraingo estuasun ontatik ongi ateratzea eman deigula Ama-Maria-ri eskatu dezaiozun... Bere laguntzaren bearra izango degu noski eta...

AMA: Bai, ongi esaten dezu... eta Manu zana-ren gogoaren alde... ta zuek, Joxpantoni, Malen, bitartean maieko ontzi ta tresna oiek jaso ditza-zute...

JOXPANTONI: Bai, bai, ori laister egingo degu...

AMA: Ea bada, asi gaitean... Aitaren, Semea-ren eta...

* * *

(Agurtza esaten asi dira).

Gabeko illuntasun eta ixiltasun bildurgarri artan arrentza onen susmurra besterik ez da aditzen.

Kanpoan guda zorrotza dabil. Batzuek beren iritziaren alde, besteak beren ondasun ta aberastasunak zaindu ta goratzeko, asko beren agintzapean guztiak menderatu naiean, gizonak gogor burrukan dabilta, kupidik gabe alkarri

ozka ekiten diote, alkarri amorerik ez diote ematen.

Maitetasuna, errukia, giza-arteko biotz-biguntasun eder guztiak burrukalari aien artetik iges egin dute.

Maitetasun, erruki ta biotz-samurtasun eder-rak euskaldun baserri artara bildu dira.

Eta agurtzaren susmurrarekin batera andik zabaltzen da krixtautasun, zuzentasun eta gizatasun-argi izpi bat.

II

BABES GOXOA

Etxe ontako baserritar gizarajoei txamalda ederra etorri zaiote!; ordu arte beti paketasun osoan bizi izan ba ziran ere oraintxe naigabe, arraxko, kezka ta illuntasunpean arkitzen dira; Jainkoa-ren laguntzak etxe artatik zearo alde egin ote du bada? — Ez, ez, Bera-gan duten itxaropen zintzoak jaso eta gaizkatuko ditu.

Iru illabete ez dira oraindik gudaren arazoaz seme zarrena galdu dutela; gertaera beltz arren-gatik negarrez urtzen, atsekabepetik burua ezin jasoaz, biotzak lertzeko zorian, luzaro egon dira; orain pixka bat xuxperten asi diranean berriz beste zigorkada datorkiotela dirudi, eta orain etorri litekena lengoa baño izugarriagoa izan liteke.

Euskaldun-gudarien arteko aintzindari gazte zauritu bat Aitzondo-garaikoan ixilka daukatela burrukan dabilzan beste aiek jakingo ba luteke zer gertatuko litzake?

Gezurra dirudi bañan Jainkotasunaren alde datozela esaten duten aien odol-egarriak neurri-rik ez du; olako gauzen bat gertatuko ba litz euzkosendi eder arrentzat ordu latzak izango lirake.

Aitak gauz ori garbi ikusten du eta kezka izugarria darabilki barrenen; Ama ere ez dago lasai; bañan gazteak pozik dira, asiera artan bildur izugarria izan zuten bañan gero oitu eta lasaitu dira eta etxeko gertaerari garrantzi aundirik ez diote ematen.

Amaika aldiz Aitak esaten diote «lur-alde au guztia Xabier gure zauritu orren etsai amorratuen mende zegok, etxe ontan ori izkutatuta daukagula oek usanduko ba litekek bera erail eta gu guztion gañera izugarritzko txamalda etorriko ukek» eta arreta aundiz ibiltzeko, zer ta norekin mintzatzan diran ongi begiratzeko bein ta berriz oartu-arazten diote.

Ura entzundakoan Aitonak bere semeari esaten dio: —«orixe ere ikusgarria izango ukek bada; gure sendi au beti karlixten aldekoa izan dek, neroni lengo gerratean karlixtetan ibillia nauk; oraintxe, arestian, ire seme zarrena, gure Manu gizarajoa, berekin eraman zidaten eta aie-

kin dabilela galdu diagu; guri kalte egiteko barrena izango lutekenik iruditzen al zaik? Ori gogorra izango ukek...!».

«Bai ori ala da —Anton-Marik esaten dio— bañan agidanean iñori ez diote barkatzen... oraingo oek zure gaztealdiko aiek bezelakoak ditala ez uste, e...».

Lenbiziko egunean pausorik zallena eman bearrean arkitu ziran; Xabier ez zegon ondo, asieratik baserrira ekarri ondorean xuxpertz-aldi polit bat izan zuan bañan berealaxe auleriaren mende berriz erortzera zetorren; naitanaiez sendakiñari ots egin bear zioten, eta egun-txinta baño len Anton-Mari bera joan zan ikustera.

Eta gauza ain ederki eratu zitzaion; bere etxeraño joan bearrik ez zuan izan, erri inguruko bide batean eizera zijoala arkitu zuan eta, bidean alditxo bat lagunduaz, gizon ongille, biotz aundiko ta euskaldun zintzoen aldekoa zala jakiñik, garbi itz egin zion ta aurreko gabean bere baserrian gertatutako guztiak agertu zizkion.

Entzuten zituan gauz aien egiazko garrantzia bereala ulertu zuan sendakiñak eta alditxo batean ixilik eta arpegi illunez egon ondoren ola

esan zion: —«Begira, Anton-Mari, zuri gertatzen zaizuna arraxko aundiko gauza da, bañan ongi egin dezula irizten det; gizon zauritu bat etxeko atera era artan ekarrietzkeru, krixtau danak, biotza duanak, uxatu ta ezin biali lezake, eta zauritua euskalduna ba da, gure anai bat izanik, gure sendiko bat bezela artu eta al deguna egin bear diogu; ongi egin dezu, gizatasunak ori agintzen du. Zoaz lasai etxera, ordu asko baño lenago an izango naiz; bañan zearo ixilik euki bear degu gauz au, iñork ez dezala ezer jakin, bestela guziok galduak giñake... zorionez eiztaria naiz eta urtearo ontan usoak eta beste egaztiak gure mendietan izaten dira, e...».

Anton-Mari pozik joan zan etxera eta andik ordubete baño lenago an agertu da sendakin-eiztaria bere zizpa sorbaldatik zintzillik eta bere zakurra aurretik artuta.

Xanti-jauna errian deitzen diote, gaztea da, ogeitamarren bat urte, sendakin ona dala esaten dute, buruz ongi jantzia eta biotzez obeto; erriko eztabaietan ez da sartzen, bañan euskaldun onen aldekoa da. Euskalerrria biziki maite du eta baserritarrei al duan guztia laguntzen diote.

Xabier ikustetik atera zanean etxekoei pozik esan zioten «lasai egon zaitezte, ausi-ateretik ez du, zauriak itxura ona dauka, bañan bera oso auldua dago, odol asko galdu du noski, eta orrengatik arreata aundia bear degu izan; zauria ongi garbitu eta lotu diot, eta auleriari aurka egiteko jaten eta edaten eman bear zaio aukeraz eta pittakapittaka...; zer egiten duan ikustera maiz etorriko nazazute... okerrago jartzera etorriko danik ez det uste bañan alakorik ustekabea gertatuko ba litz deitu zaidazute lenbaitlen...».

Ala joan zan sendakin pizkorra eta Aitzondo-ko sendia naiko lasatu zan. Ordu arteraño beintzat gauza ondo zijoan eta erriko iñork ez zuan ezer sumatu.

Geroztik Xabier egunetik-egunera obetoago dioa; Malen-ek ematen dizkan ollo-saldaz, Amak egiten diozkan zurikeriaz, Aitona-k esaten dizkan ipuin politaz eta guztiek agertzen dioten naitasun onaz ederki xuxperten ari da.

Usoak aitzeki artuta sendakiña askotan joaten zaio izketan aritzera, Xabier-en sendiaren aditzera ba zuan eta orain oso adiskidetu dira.

Asiera artan oso gaizki zegolaz askotan gogoratzen dira, eta esaten dute: «Orduan il ba zitzai-gun zer egin bear gendun? orduan bai guztia agertu bear zuala... bañan Jainkoa-ri eskerrak ez da ala gertatu».

Sendatu eta indartzen ari da eta, Xanti-jau-nak dionez, aurki, egoaldiak onak diran artean eguzkia artzera pixka bat ateratzen asi bearko du.

Azaroa aurrera dijoa, usoak joan dira, banaka batzuk besterik ez dira agertzen. Alaz guztiz ere egoaldi ederrak dijoaz. Urriko ego-aize epel goxoak irauten du oraindik, udara luzatu egin dala dirudi.

Gure Euzkadi-n izaten dan udarazkeneko egoaizea baño gauza ederragorik, atsegingarri-rik bai al da? Laño ta lausoak iges egiten dute, baztar guztiak garbitzen dira eta urrutiko men-diak bertaratzen zaizkigu.

Orduan agertzen dira mendi-egaletan margo berri politak, lengo osto orlegi ezkoak ba dijoaz eta beren ordez iratze onduen gorritasun zaplaz-tak eta zuaitz mordo idortuen basaldi orixkak Euskalerriko lurraldeei alako biguntasun alai bat

ematen diote. Neguan sartu baño lenago, alaitasun guztia galdu ta belztasun illunean jausi baño len, beren soñekoa margozki politenez, alaienez apainduta agertu nai dute noski.

Gero ego-aize zakar indartsuak zuaitz abararak ondo astinduz aizkeneko osto iraunkorak erorarazten ditu; baita mendisakan bazter guztiak legortu, iturri eta ur-negar guztiak agortu eta eiztari eta ibilkariei barrengo zaletasuna mugiarazi eta euskaldun erritarrak karriketatik irten azi ta beserritarrengana, egiazko euskaltasunez asetzera eramaten ditu.

Ego-aize goxoa, udarako atsegintasun alaia luzatzen dezuna, negu zorrotza moztu ta erreztu egiten diguzu, zu zera euzkotarren aize biguña. Noizik bein zakar-aldi izugarri batzuek izaten dituzu eta zure indarrez sua sortu, gar-txinpartak zabaldu eta zugatik baserri ederrak erretzen dira, nekazariak negar ta naigabez txauturik!

Baztar guztiak arrotzen dituzu, ots eta zalapartak zugatik izaten dira, ate ta leio astintzen dituzu; zenbaiten buruak ere, zu zerala-ta, arindu ta txorakeri bizira jotzen dute, bañan zure orru ta ziztu zorrotz bildurgarriak euskal-ipuin,

esaera zar eta biotzaren gogorapenak berekin daramazkite. Zu zera euskaldunen aize berezia!

Zauritua ongi doa, emeki-emeki sendatzera dator, indarrak ba datozkio, eta gaztetasunak berekin duan alaitasuna bere arpegian agertu da.

Etxeko guztiak berari begira daude, bere oia-
ren inguruan dute biltokia; Amak eta Malen-ek
bere josteko lanak, oiean dagonari izketa ema-
naz, gela artan egiten dituzte; Joxpantoni ta Txo-
min landan edo soroan bere ekiñaldia amaituta-
koan bertara datoz laxterka eta Aitona etxe-
inguruko eginkizunen tartetan beti an dago;
Aitak ere bere nekien atsedena an arkitu nai du
ta lanetik etxeratzen danean ara jotzen du
zuzen. Gauetan batez ere sendi guztia an bildu
ta bere opor-aldia zaurituarekin egiten dute.

Mutil gazte egoki ura etxe artara ekarri zute-
nean ain errukarri ikusirik guztiak samartu ziran
eta biotz onez artu zuten; asieratik, beren Manu
seme-senide il-berria gogoratuta al zuten on
guztia gogoz egin zioten.

Alako mutil atsegin eta barren onekoa bait da; bera, sendi ontako guztien arrera, gogo ta biotz zabala ikusita samurtua arkitzen da ta eskerrak nola eman ez daki.

Egunetik egunera geiago maite dute guztiak, bere izena ikasi zutenezkero, «Xabier gora ta Xabier bera», etxe artan beste gauzik ez da entzuten.

Egun batean, sendakiñak obeto arkitu du eta pixkanaka jekitzen asteko agindu dio; ura izan zan guztientzat pozgarria! Jekitakoan txutik ezin egongo zan noski eta laguntzen bat bearko zuan; ortarako Aita mendira joan eta berak ekarritako aritz-adar batzuez galtzarbe-makillak antolatu ziozkaten. Aitaren beso indartsuak euki ta makil oien laguntzaz, leio-ondoan eseritzera iritxi zan, gelatik irten gabe.

Asieran bere soña aul arkitzen ba zuan ere laister indartzen asi zan, ta egun gutxi igaro baño lenago etxe guztian barrena ba zebillen. Gaztea eta osasun onekoa beti izanik bere onetara bereala ta ongi zetorren.

Andik aurrera illunabarrero sukaldeko su-bas-terrean egonaldi ta izketa ederrak izaten ziran.

«Xabier-ek asko daki e...» —esaten du Txomin-ek—. «Gaztetandik ongi ikasia bait da —erantzuten du Amak— ta ez i bezela, ikastetxetik iges egin arteko onik ez uan izan eta bizi guztian astokoskor bat bezelakoa izan bearke aiz». «Ez, ez, —zion Xabier-ek—Txomin gaztea da ta oraindik ikasiko du».

Bañan su-baztar goxo artan, gaztañak, zirteta-zart, erretzen ari diran artean, Xabier-ek Aitonaren ipuin eta esaera-zarrak aditu nai izaten ditu eta al duan guztian izketa ortara ekartzen du.

Gau aietako baten ego-aizeak indar aundia artu du eta baztar guztiak eraman bear dituala ba dirudi, batez ere inguruko zuaitz artean abarrots eta txistu izugarria jotzen du; edozeñi bildurra emateko gau-giroa da, suaren kea ere bere bidetik joan bearrean sukaldean zabaltzen da.

Aizearen txistu zorrotz ikaragarria luzaro ta gogor entzun dan batean Aitonak ala dio: —«Ara! Mateo-txistu or dabil...». Etxeko guztiak bildurtzen dira; orduan Xabier-en jakin-naia ikusita Aitona-k ipuia esaten diote:

«Mendiko erri txiki batean apaiz bat ba omen zan oso eiztaria, eizaren zaletasuna odoleraño sartua, eizarengatik edozer gauza egingo zuana. Bein batean, Mateo izena zuan apaiz ura, bere Eleizan meza ematen ari zan eta mezaren aldirik berezienean arkitzen zan garaiean bere zakur-
rren zaunka aditu zuan; une batez meza gelditu eta kanpoko zaunkei arretaz lotu zan; zaunka bero-beroa zan, zakurrak erbien bat jeiki-arazi eta bere zalapartapean zekarkiten.

»Apaizari zertan ari zan aztu zitzaion zearo, eta aldareko lanari utzita, zegon bezela, bere Eleiz-jantziak kendu gabe, irten zan eta inguruko bere etxean artu zizpa eta laxterka zakurretara urbildu eta erbiaren ondoren guztiak ba doaz... erbiak txiri egin ta alde, zakurrak atzetik dituala, eta Mateo, apaiz-eiztariak, zakurrei deituaz oiur ta marru, txistu ta txistu, jarrai ta jarrai...; txistu, zaunk eta zalaparta gero ta urrunago, gero ta ixillago, joan-ta-joan.

»Aizkenik ots guztiak galdu ziran bañan apaiza ez zan geiago etxeratu, bere aztarnik ez zan izan iñondik, urte ainitz igaro dira eta oraindik ez da azaldu.

»Meza bere-artan utzi eta alde egin zualako Jainkoak zigortu zuan ederki; orduzkerotik, mundua-mundu dan artean, bere zakurren ondoren txistu, orru ta deadar odei-tartean laxterka ibili bearko du... Noizik bein itxumustuan egoaize zakarraren txistu zorrotz luze ikaragarri bat entzungo dezute... bera da... Mateo-txistu dabil... eta berak egindako gaiztakeria ezin ordainduz beti ola ibili bearko du...».

Aitona ixildu da, Txomin aoa zabalik arrituta dago, Joxpantonik «Aitaren...» egin du, eta Xabier-ek erriko ipuin ori arras polita eta irakasgai sakona arkitu du.

Ala dijoaz egunak. Xabier-i gero ta obeto indarrak ba datozkio eta ongi bere onetara etortzen ari da. Zangoa ez zaio orren azkar sendatzen; zauria uste baño gaiztoagoa zan noski; bañan, bere galtzarbe-makillen laguntzaz, etxebarrunbean naiko ongi dabil batera ta bestera, sukalde ta ikullu, mandio ta gela, eta tartetan, su-ondoan Aitonarekin edo Ama ta Malen josten ari diran tokira urbilduta, egon-aldi ederrak egiten ditu.

Oraindño ongi egon da izkutuan, arrotzen bat axe artan ba dagonik iñork ez du sumatu; eta guztiak pozik daude.

Bitarte ontan beste gauz polit bat ere etxe artan gertatu da. Biotz gazteak dar-dar egin dute, landare berri bat bere barnetan ernetu da eta lore eder malatsak lertu nai dute. Malen eta Xabier-en biotzetan egiazko maitetasuna, sakonki, ustekabeen sortu da; gogoratu gabe, berak baño geiago dezaken indar orren mendean arkitzen dira; indar orrek, naitanaiez, alkarrengana daramazki.

«Ez ez —Malen-ek berekiko esaten zuan— ni bezelako ezer ez dakien neska baserritar tuntun batek Xabier bezelako gazte argi, asko ikasia, kaletar egoki batengan bere begiak ipintzea nola liteke? eta zaletasun ori burutik kendu naiean zebillen; bañan biotzak beste aldera agintzen zion eta naitasunari lotua arkitzen zan; poz eta kezka, alaitasun ta oñaze, guztiak batera bere barnean burrukan zebiltzan».

Era batera, Xabier-ek ere bere biotza Malen-en ondoren ba zijoakiola bereala ezagutu zuan eta asieratik biotz-biguntze ari gogor egin nai

izandu zion; ala ere, bere gogoan baño indartsu-
goa da eta zearo mendean artu du.

Maitetasun arrek asiera ta oñarri eskertasu-
nean zuan; etxe artako nekazari aietzaz Xabier-
ek zorrik aundiena zuan, bizia zor zioten, berak
egin zutena ez egitera onuzkero aztuta zan; aien
aldeko eskertasun aundia Malen-ganako maite-
tasun biurtu zan eta, orduetik, beratzaz oso txora-
turik arkitzen da.

Iñor gogoratzerako biak azkar ezagutu zuten
eta andik aurrera alkarganatu arteko onik ezin
izan; lenbizi alkarri ezer esan gabe beren zaleta-
suna ezagutzen zuten; gero, itzez bere biotza
alkarri agertu diote. Malen-en lotsa ta arpegi-
gorritzea!

Bañan, ura poza, ura atsegiña, ura goxotasu-
na!; andik aurrera beti alkarrenak izango dirala,
batak-besteari esaten diote, ta alkarri agintza
zoragarriak egiñez egoten dira.

Berak ezer esan baño len Ama azkar oartu
zan. Bakartasunean Aitari berri au eman zionean
Anton-Mari-k aintzakotzat ez zuen artu nai, gaz-
teen txorakerien batzuek izango zirala ta, artatik
egiazko ondorenak etorri bear zuenik ez zitzaion

iruditzen. Orrelako elkarte ezberdiña nola zitekean? Bañan ezin gertatu zitekeala ustearren, bere ez-sinestea ere par-irri batez agertzen zuan, gazte ura ain ona ta atsegiña bai zuten! Alako berri arrigarria jakin zutenean etxe artako guztiak pozez beterik ziran.

Lenago ain gogokoa ba zuten, orain guztien maitea dala esan bearrik ez da. Aztu dira etxe artako negar, neke, naigabe ta kezkek eta, Malen lenengo dala noski, guztiak Xabier-i begira bizi dira; gudako gora-beraz ere iñor ez da gogoratzen, an beintzat guda amaitu dala edozeñek esango luke.

Oinbeste burruka, erailtza ta gertaera izugarri beetan, zelaietan, errietan gertatzen diran artean, mendigain artan pakea ta maitetasuna. Ura da atsedeen tokia! Uraxe bai babes-goxoa!

Xabier etxe ontara ekarri zuenetik ia illabete bat igaro da. Udarazkena aurrera dijoa bañan egoaldi epel biguñak irauten dute.

Igande bazkalondo ontan Aitzondo baserria eguzki goxo bete-betea agertzen da; aldamean etxeordekoaren orma zarrak; aurre ta inguruko zuaitzak bere aizkeneko orria ez dute galdu

oraindik. An, urrun, bañan garbiki, aurreko mendiegalean, erriko Eleiza eta bere inguruko etxadia ageri dira.

Xanti-jauna, sendakin gaztea, zauritua ikustera etorri zaiote; gaxorik dagoenarengana sendakiña etortzeko ez da bazkalondokoa ordu oso egokia bañan orretxengatik berak olako orduak aukeratzen ditu, ala, nora ta zertara dijoan iñork ez du sumatzen, zizpa zintzilik zakurra aurretik, eizera dijoala uste dute, eta ikusten dutenak ala diote: «... Ikusten al dezute?... usotarako ain berandu izanarren orain ere mendira ba ziak... eiztari purrukatua bai da...».

Ala Aitzondo-ra joan da eta zauritua ederki arkitu du; zauria itxi zaio eta ongi indartu ta sendotzen ari da.

Igandero egiten duan bezela Anton-Mari bazkalondoko loxuxta egitera oieratua da. Sendakiñak beste guztiekin itz-aldi bat egin du; beko errietan dabillen guda zorrotza eta beste gaiez mintzatu dira; etxe artakoak zerbait jakiteko gogoa ba zuten, mendigoian artan ezer ez bai dute ikasten.

Baserriko atadia unetxo batean utsik eta ixilik egon ondoren atea iriki eta, ba dijoan sendakiñari agur egitera, etxekoak agertzen dira; Xabier barnean gelditu da. Sendakiñak, txistu ta deadar, zakurrari deitzen dio... nun ote dabil?... bañan ez zaio azaltzen... gero bilduko zaio, bai...

Lenbizi sendakiña eta berarekin Aitona ta Ama datoz, gero Malen tartetan Joxpantoni ta Txomin sartzen dira.

XANTI: Agur, bada, e, ondo izan zaitezte...

AMA: Beraz, gure gazte ori ongi arkitzen dezu...

XANTI: Bai, oso ongi da... zauria ia itxi zaio eta onetara laister dator... bai... gaztea ta gizaseme sendoa bai da... gañera, guztia esan bear da, ondo begiratu diozute.

AMA: Al deguna egiten diogu... eta gogoz... bera ain egokia ta atsegiña da...

AITONA: Bai, guziok maite degu... gure biotzetan sakon-sakoneraño sartu zaigu...

XANTI: Eta gazte argi eta sen-aundikoa dirudi...

AITONA: Bai, asko ikasia izan bear du... gai guztietatik ba daki...

XANTI: Nere txakur ori nun ote dabil... «Txuri, Txuri...» (*alde guztietara txistu ta deadarka asten da*).

AITONA: Ez da galduko ez, landaz-landa laxterka or ibiliko da.

XANTI: Agertuko da, bai... (*landen aldera txistu jotzen du berriz*)... Or goitik itzuli bat egiñez joango naiz eta an arkituko det...

TXOMIN: (*Landa aldetik agertzen da*)... Egazti batzuen ondoren goiko belardietan dabil...

AMA: Zerbait izango du...

XANTI: Uso ta beste egaztiak igarotzeko berandu-zamar da...

AITONA: Bai, aek joan dira, aurtengoak beintzat... aldi batzuetan talde ederrak ba ziran...

XANTI: Egoaizeak maiz ditugu aurten eta usoa ugari ikusi da...

MALEN: (*Barrendik dator*) Adi zazu, Xanti jauna, babarrun, barazki, txerriki eta olako gauzak jaten Xabier asi al liteke?

XANTI: Bai, bai, jan ditzazke... guzitatik jan dezake... bañan ez geiegi eman... pittakapittaka asi bear degu... len esan dizuten bezela, egoaldi on oiek irauten duten artean, orrek etxetik ate-

ratzen asi bear luke... gutxi bederen pixka bat ibiltzeak on aundia egingo lioke...

AMA: Bai, gaxo egon ondoren aizea artzea gauzik onena dala esaten dute... bañan...

MALEN: Ala da... bañan... ta norbaitzuk ikusten ba dute...? zer gertatu liteke...? gogoratu utsaz otzikara biotzeraño sartzen zait...

AMA: Bildur izatekoa da... oraindaño ain ederki etorri ta orain gauza txarren bat gertatzea izugarria izango litzake... Jainkoak nai ez dezala...

XANTI: Bai, ala da...

AITONA: Bada, nik uste det ori errez egin litekela...

MALEN: Nola?... eta norbait etortzen ba da...?

AITONA: Emen, geienezan iñor-gutxi agertzen da, iñorako biderik ez bai dago... gañera iñor etorriko ez dala ziur esan liteken tarte batzuk izaten dira...

MALEN: Noiz?

AITONA: Ara, gaur bertan, emendik alditxo batera bezperetako ordua da, erriko guztiak Eleizara joaten dira... gero andik, Eleizkizuna bukatzean, emakumeak beren etxetara joango dira, puntuan jokatu edo kalakan aritzera; eta gizonak

errian bertan gelditzen dira ardantokiko inguruan arratsaldekoa egiñez ta beren arteko joan-etorriak maxiatzen; gazteak berriz pelotatokian... eta onera iñor ez dator... ziur esan liteke...

XANTI: Gañera, atadiko larrain au oso ederki daukazute, etxe ta zuaitz-arte au urrundik ez da ikusten... bera ikusteko bertaraño etorri bear da...

JOXPANTONI: eta aurreko tontor ortatik inguru guztiak ongi agertzen dira eta guretako bat an gaudela...

MALEN: Bai, bai, ori ongi da... ori egin liteke... an dagonak norbait datorrela ikusten ba du...

JOXPANTONI: Bereala etorri esatera...

MALEN: Eta berealaxe emen eguzkia artzen dagona ezkutatu...

AMA: Ez da gaizki, ez...

TXOMIN: Ni egongo naiz... norbait baldin ba dator laister ikusiko det nik, bai...

AITONA: Gaur bezela igande arratsaldean orren bearrik ere ez da... onera iñor ez da agertuko... ziur naiz...

XANTI: Zuek ikusiko dezute nola egin, bañan gaxo dagonantzat ona izango litzake, oinbeste egun etxe-barrunbean egotea kaltegarria da...

AMA: Zerbait egingo degu...

AITONA: Bai, bai, errez egin litekena da...

XANTI: Agur, bada, ni ba noa... nagusiari nere gorantziak eman.

AMA: Bera ez gogoratua arritzekoa da... berandu da arrentzat... bazkalondoko loxuxta au iganderokoa du... bañan laister esnatu ta jekiko da...

AITONA: Zu emen izan zerala jakiten duanean saminduko da...

XANTI: Utzi zaiozute, utzi, aste guztian lanean ler egiten dabillen gizonak bere atsedena bear du...

AITONA: Bai, ala da, nik ere, gaztea izanik lan asko egiten nuanean bear-bearra izaten nuan... bañan orain...

XANTI: Zu?... zu oraindik gizon gordiña zaude...

AITONA: Belauneko aize au ez ba nu... oraindik ere...

XANTI: Ori ez da ezer, gizona... Agur bada e...
iñor gogoratu gabe goikaldetik joango naiz...

GUZTIK: Agur... agur...!

AMA: Ongi joan zaitea eta nai dezun arte...

AITONA: Etxe ontan gogo onez artzen zaitu-
gu...

MALEN: Maiz etorri...

XANTI: *(Dijoala)* Agur... agur... *(txistu ta dea-
dar)*... Txuri, Txuri...! *(Guztiak bere ondoren dijo-
az bere aldera begiratuaz eta ba dijoanari eskua
jasota agur egiñez; Txomin, berari alditxo
batean laguntzera joan da; gero beren artean itz
egiñez etxe aldera biurtzen dira).*

AMA: Auxen da gizon ona!

AITONA: Bai, pozik egon giñezke, olako senda-
kin bat errian izatea zerbait ba da...

MALEN: Eta gaztea izanarren bere lanean
asko dakiena, esaten dutenez...

AITONA: Bai, oso trebea da... nere belauna
beintzat ez dijoa okerrago...

MALEN: Eta Xabier nola sendatu duan...?

AMA: Bai, asko egin dio... eta bera jarri dan
arraxkoan?... beste bat onenean lan ortan ez zan
sartuko...

JOXPANTONI: Biotz aundikoa da...

AITONA: Eta Xabier ta oien aldekoa izan bear du ezertan agertzen ez ba da ere... euskaldunen aldekoa beintzat...

JOXPANTONI: Ori ez da gauza txarra izango...

AMA: Bai, bai, ta oen kaltez zenbat gauz esan dizkigute...! zakurrak baño okerrakoak dirala ta...

AITONA: Amaika gezur entzun izan degu...

AMA: Eta sinistu ere bai...

MALEN: Goazen, goazen barrura... Xabier or egongo da bakarrik... *(Txomin laisterka dator ta ixil-antzean esaten diote):*

TXOMIN: Emengo aldera Pello dator... Pello-kirten...!

AMA: Pello?... sartu gaitean, sartu bereala...

TXOMIN: Bai, goiko belazetik ikusi det eta laxterka etorri naiz...

MALEN: Xabier-i esan bear zaio... badaezpada izkutatu dedilla...

AITONA: Txoro arraio ori...! *(Guztiak laisterka etxean sartzen dira).*

(Barren-aldeetik Pello agertzen da; etxe aurrean iñor ez dago; ate-aldera asi, bañan

sukaldeko leiorea jotzen du ta barrenen daudenai izketan asten da).

PELLO: Kaxo etxekoak, arratsalde on...!

MALEN: (*Barrendik*) Kaxo, Pello, zer zabilta ordu oetan...?

PELLO: Mendi-aldeetik natorrela sendakiña emendik irten dala iruditu zait eta bertaratu naiz... norbait gaxo al dezute?

MALEN: Ez, iñor ez... ba dakizu... Xanti-jauna oso adiskidea degu ta... noizik bein gure Aitona ere bere belauneko erroma-aizeagatik arren bearrean izaten da ta... ola, mendira eizera datorrenean, onera urbilduezkero, sartu-atera bat askotan egiten digu...

PELLO: A! bai... gizon atsegiña da... iñor gaxo ez izatea ohea da... ohea da... alare zerorri gaxo ote ziñan...

MALEN: Ez, ez, Jainkoari eskerrak osasun ona det...

PELLO: Alare, alare... zutzaz beti gogoratzen naizela ba dakizu...

MALEN: Ja, ja... betiko aria...

PELLO: Atoz, atoz onera, zerbait esan bear dizut...

MALEN: Ortik esan zaidazu, gizona...

PELLO: Ez, ez, iñork entzuterik ez det nai...
zuk bakarrik entzutea nai nuke... atoz, atoz...

MALEN: (*Etxetik irten da*) Ara! Emen naiz, zer esan bear didazu?... betikoa?

PELLO: (*Goxoki ta lotsakor*)... Bada... zu gabe ezin bizi naizela... maite bear nazu pixka bat...

MALEN: Ara, betiko leloa... lengo egun batean ere ori ezin litekela esan nizun... nik ez zaitut maite eta ez dan gauzik ez dizut esan nai...

PELLO: Malentxo...!

MALEN: Pakean utzi zaidazu, Pello...

PELLO: Gure etxean ongi bizitzeko naiko gauza ba dago ta...

MALEN: Beti zure ondasunak aurretik... zure gauzen bearrik ez det... beste neskatxak ere errian ba dituzu... billa zazu... arkituko dezu, bai...

PELLO: Ez zu bezelakorik, ordea... eta ni olako itxura txarreko mutilla nagonik ez det uste...

MALEN: Zu?... mutilla?... mutil-zarra esan naiko zendun... ja, ja... noan... noan... barren artan eginkizun asko daukat... (*etxera sartzen da eta Pello mindua eta illunki erdi negar egiñean,*

bañan parragarri, atadian gelditzen da... unetxo bat ala igarotakoan Ama datorkio pixka bat goxatzera).

AMA: Zer dezu, zer dezu...?

PELLO: Andre Mañaxi, au naigabea...!

AMA: Zer gertatzen zaizu...?

PELLO: Zer gertatuko zait... Malen-ek ez naue-la nai ezertako... ni txori-izugarri baten antzekoa naizela iruditzen al zaizu?

AMA: Ez, motell, ez... gazte oentzat urteetan aurrerazamartua bai, bañan itxura txarrekoa ez...

PELLO: Ori da bada... eta nik dituten ondasu-naz, nerekin ezkontzen dana ez al litzake ongi biziko...?

AMA: Bai, bai... ala dirudi... bañan gauz bat esango dizut. Zure ondasunak izanezkero egiña dala uste dezu, bañan ez da ala... biotzaren joan-etorrietan ondasunak eta olako gauzak ezer gutxi esan nai dute; zenbaitek, ezkontza bei baten sal-erosketa bat ba litz bezela artzen dute, bañan ez da ala...

PELLO: Andre Mañaxi, zuk zerbait esan zaiozu ia murgiltzen dan...

AMA: Nik? Ez gizona ez, gauz oietan norberak barrendik datorkiona egin bear du... eta Malen-ek berak nai ez ba du, ezer egiterik ez det arkitzen...

PELLO: Ta nik zer egin bear det?... Ni ola ezin gelditu niteke...

AMA: Etxe ontarako zaletasuna oinbesteraño baldin ba dezu... gure Joxpantoni ere or daukazu, berak nai ba luke... ezer ez dakit bañan... base-rrirako Malen baño trebeagoa da.

PELLO: Ez, ez... ni bezelako batentzat gazte-gia da...

AMA: Emezortzi urte ba ditu...

PELLO: Ez, ez... nik Malen bear det... Malen bear det... andre Mañaxi nere alde zerbait egin zazu...!

AMA: Ez, Pello, ez... ezezkoa bere aotik garbi entzun dezu eta orretzaz ezer egiterik ez da... beste etxetan ere neskatzak ba dituzu joan zaita, nork artua izango dezu bai...

PELLO: Zuek bezelakoak ez dira ordea...

AMA: Gu bezelakoak...?

PELLO: Bai, etxealdekoak, alegia, ondasunak ere ba dituzuenak...

AMA: A...! orduan zuk neskatxa nai dezu ala gure ondasunen usaiean zabilta... zureak aski ez al dituzu...?

PELLO: Bi gauzak... bañan Malen asko maite det...

AMA: Bai, bai, ikusia dago... Ba negon ba ni...!

PELLO: Um!... Etxe ontan nere alde gogo onik ez dala ikusten det.

AMA: Ez gogo onik eta ez txarrik... zuk zure etxean eta guk gurean naiko lan izango degu bai... ta kito...

PELLO: Um... um... ba noa, ba noa... guztiak nere aurka... ba noa... bañan ez naiz ni ola geldituko... agur...

AMA: Agur, Pello, joan... ondotxo, agur... eta lelo orrekin ez etorri geiago... (*Pello asarretuta ba dijoa*)... Txoro alena, ez besten alena!... Joan adi bai, eta utzi gaitzak pakean... ikusten al da?... Ergel ori... aizkenean zer atera didan...!

MALEN: (*Etxeko atean agertzen da*)... Zer?... Joan al da?...

AMA: Bai, asarretuta or zijoanan marmaiza bizian...

MALEN: Joateko ohea da...

AMA: Aizkenean zer atera zidan bai al dakin...?

MALEN: Zer?

AMA: Guk ere ondasunak ba ditugula, etxealdekoak gerla ta bere gauzaz eta emendik jasoko lirakenaz ondo izan litekela.

MALEN: A, bai e...? Lentxeago gogoratu izan ba zan ere... Bañan, mutilzartu ta gero olako gauzak... Orduan orrek andregaiak bakarrik ez du bear...

AMA: Andregaiak, etxe-aldekoa, bear omen din...

MALEN: Bai egoki e...!

AMA: Nik, pixka bat goxatzeatik, esan zioan, ik nai ez ba den, gure Joxpantoni ere or daukagula...

MALEN: Joxpantoni? jakiten duanean ona jarriko da...

AMA: Badaezbada... *(Joxpantoni-k etxe barrunbetik zerbait aditu du eta sukaldeko leiokan agertzen da).*

JOXPANTONI: Zer ari zerate, nitzaz zer diozute? Entzun det, bai... olako txoro kirten batentzat azi al nazu, Ama?... nai duen tokira dijoala...

AMA: Ez asarretu, Joxpantoni... nik badaezbada esan zioanan...

MALEN: Geiago egin dezu zuk olako gauz bat aitatzeari ere...

AMA: Zer nai den bada... zerbait esan bear nitxoanan ta... *(Joxpantoni-k etxetik atera ta Ama-ri ekiten dio).*

JOXPANTONI: Eta berak zer esan dizu...?

AMA: Berarentzat gaztegia aizela... eta Malen dala berak maite duan neskatxa... eta Malen bear duala...

MALEN: Ez du bada Malen-ik izango.

JOXPANTONI: Eta ez dedilla geiago etxe ontara urbildu, bestela egur bat artu eta asto-zar bat bialtzen dan bezela nere aurretik neronek bialduko det... zer uste du orrek... ergel txoralda ori... *(Guziak par-egiten dute).*

AMA: Atadiko ortatik begira zan, ia nora dijonan... kirten orren bildurrez egon bearko diagu beti...!

(Joxpantoni-k joan eta erri-bide aldera begiratzeari du).

MALEN: Bai, ala da... guk etxean zein daukagun jakingo ba lu...!

AMA: Ez luke besterik nai... orduantxe bai galduak giñakela...

MALEN: Bai, Xabier-en etsaiak laister jakingo luteke... eta orduan...

JOXPANTONI: *(Ojuka)*... An dijoa... goitik-bera arin... erri-aldera...

AMA: Ondo ikusten al den ordea...

JOXPANTONI: Bai, bai, garbi ikusten det bidetik dijoa...

AMA: Ez al den bere etxe aldera joango...

JOXPANTONI: Ez, ez, bere etxerako bide-gurutzea utzi ta aurrerago da... Iturraldeko arizti txikian oraintxe sartzen...

MALEN: Bai, errira joango da... bezperetara, zurki... eta andik ardantokira...

AMA: Urrundu dan ohea den... aurki Xabier-ek ere irten bearko din eta... zer ari ote da?... Bakarrik aspertuta egongo den.

MALEN: Ez, sendakiñak ekarri diozkan paper batzuk irakurtzen gelditu da...

(Eleizako ezkillen otsa urrutira entzuten da).

AMA: Ara! bezperatako ezkillak asi dira...Txomin, Joxpantoni! tira, gertu zaitezte, antolatu bereala... berandutuko zaizute...

JOXPANTONI: Bai, bai, ba noa jaztera, berealaxe naiz... ainbesteko itomenik ez da... joango gera bai... (*Etxera doa*).

AMA: Oa, oa, berandutu gabe... (*Malen-i*). I gelditu adi, Xabier-i laguntzeko... bion artean moldatuko diagu...

MALEN: Bai, asmo ori ba nuan... bañan errikoak ezertaz oartu ez ditezen gauz guztiak betiko oitura degun bezela egin bear ditugu.. . Aita ere beti bezela joan dedilla...

AMA: Ni igandetan ez naun iñora joaten ta...

MALEN: Eta nere adiskideak nitzaz galdetzen ba dute buruko-min pixka batez Amarekin etxean gelditu naizela esatea naikoa dute...

AMA: Bai, bai, bañan gazte oiei esan bear zaiote aztu ez ditezen eta iñork ezer sumatu ez dezan... Eta gure Aitonak zer egin ote du... nun ote dabil...?

MALEN: Sukalde baztarrean lo gelditu dala uste det...

AMA: A! bai, orrek ere bazkalondoko loxuxta...

MALEN: Gizarajoa... bere urteetan... naikoa egiten du...

AMA: Bai, txirriki-txarraka, batera ta bestera ez den gelditzen... Etxe ontan orren bearra ba den oraindik...

MALEN: Lan geiegi egiten du...

AMA: Ola ibiltzeak osasunerako kalterik ez zionan egiten... Orrengatik ain gordin zegon oraindik... *(Berriz Eleiz-ezkillak entzuten dira).*

MALEN: Ara, bezperetako bigarren deia...

AMA: Bai, eta oek mugitu gabe... Joxpantoni, Txomin...! Eleizara zoazte... Astindu bear ditut... Beti ola gera... Eleizara ezin bialdu... Auxe ba da lana... Txomin, mugi adi! Bigarren deia ere jo dik... zoazte laister....!

TXOMIN: Ara! ni jantzia naiz, joateko emen nago...

AMA: Badek garaia... ta besteak zer egiten dik...?

TXOMIN: Ez dakit... orrazten ari zan...

AMA: Oraingo neska oek beren buruak apaintzeko bear duten beta iñork ez zekik... joan adi ta laister ibiltzeko esaiok...

TXOMIN: Ba noa... *(etxera sartzen da).*

AMA: *(Malen-i)* Oiek joaten diranean Xabier-ek irten bearko din, berandutu gabe... eguzkiak

indar pixka bat duan artean. Gero oztu egingo din...

MALEN: Bai, bañan goizegi ere ez da ona; bezperetara dijoanen bat inguru oietan agertu liteke, ta...

AMA: Ez, bezperak asiezkerok oek bukatu eta jendea atera arte iñor ezin etorri liteken onera...

MALEN: Eta gaur bezperak luzeak izango dira... eta Ama Birjiñarekin Eliz-inguruko itzuli ta ibil-aldia ere ba da... eta gañera etxeondoko kasko ortatik begiratuko degu... Lasai egon litekela uste det... *(Etxeko atean Aitona agertzen da)*.

AMA: Ara! gure Aitona ere esnatu zaigu... Ongi lo egin al dezu?

AITONA: Bai, bai *(ao-zabalka)*.

MALEN: Oraindik ez da esnatu...!

AITONA: Usterik gutxienean lo gelditu naun...

AMA: Eta loxuxta ederra egin dezu... ez al zera oztu...?

AITONA: Ez, ez, gañean estalki berogarri bat ere ba nuen... nork jarri diran ez dakit...

MALEN: (*Parrez*) Nik jarri dizut... bazkalondoan oztutzea gauz txarra dala esaten dute... ta lo artuezkero errez oztutzen da...

AITONA: Bai, ala den... Eskerrik asko, Malentxo... ire bearra ba diñat biziko ba naun... (*Par egiten dute*)... Zer ordu degu? (*Malen etxera sartzen da*).

AMA: Oraindik goiz da, irurak oraintxe joak dira...

AITONA: Berandugo zala uste nuen... Geiago lo egin detela iruditzen zitzaiten...

AMA: Ez, ez da berandu... oraindik ere beste lo pixka bat geixeago egin besterik ez zendun...

AITONA: Naikoa det... gabean ere ederki egiten det eta... ez det geiago bearrik...

AMA: ..Aur oek zer egiten duten ez dakit... bezperetara ezin biali ditut...

AITONA: Ba, betikoa... errira joateko apaindu egin naiko dute ta... Zer egingo diezu... gazteen gauzak...

AMA: Joaten ba naiz, ergelkeri oek kenduko diozkatet laister.

AITONA: Eta Anton-Mari-k zer egin du, jeki al da...?

AMA: Ez, oraindik ez da esnatu...

AITONA: O! loxuxta luzea du gaur, e...

AMA: Zerbaiten bearra ba du gizarajoak; aste guztian lertzeraño lanean ari da eta igandeko atsedendaldi au ongi irabazia du; lan zakar guztiak egiteko bera bakarrik dago ta...

AITONA: Bai, ala da... Joxpantoni eta mutikoak zerbait laguntzen diote...

AMA: Al dutena egiten dute, bañan alaz guztiz asko nekatzen da...

(Malen etxetik irtetzen danari)... Bañan neska-mutil oek ba al datoz ala ez... oso berandu dute...

MALEN: Ba datoz, ba datoz... ba al dakizu zergatik orrenbesteraño luzatzen duten...

AMA: Zergatik?

MALEN: Bada... Xabier etxetik nola irtetzen dan ikusi nai omen dute...

AMA: Zer, ori ere ba degu? Ikusten al dezute oien gibela...?

AITONA: *(Parrez)*... Zer nai dezu bada... gazteen gogoia...

MALEN: Ba, bezperetara beranduxeago iritxita ere ez dio ajolik... Ez da mezetan bezela...

AMA: Ori da, orain ere bere alde jarri zaitez-te...!

AITONA: Zer egingo dezun bada... ez da gauza aundia...

AMA: Ez, ez, dijoazela, dijoazela lenbaitlen bestela ez dakit zer egingo dieten...

MALEN: Utzi zaiozu... beranduxeago joateagatik...

AMA: Ori da, eta pixka batengatik batere joan ez, e...! Ez, ez, ez det nai... Ola oitura on guztiak galtzen dira... Orren berandu Eleizan sartzen ikusten ba ditu gure apaiz jauna ona jarriko da...! Zoaz ta bereala joateko esan zaiozu.

AITONA: Nik esango diotet... *(Ba dijoa)*.

AMA: Zurekin oso ziur ez naiz... zugatik nai duen guztia egiten dute aur oek... Aitona-ri zuri-keri batzuk egiten diozkate ta kito...

MALEN: Ama! Xabier-ek atera bear ba du, garaia izango degu, e?

AMA: Bai, asi gaitean... tokia antolatu deda...

MALEN: Orain eguzki goxoa dago, bañan aurki oztutzen asiko du... ta geldirik egon bear duna-rentzat...

AMA: Bai, asi gaitean... tokia antolatu dezagun... emen babesean... txokorik onena au izango dala uste diñat...

MALEN: Ori da, emen etxeordekoaren ormaaurrean, aize izkutuan eta eguzkiak betebetean jotzen duan toki ontan ederki egongo da...

AMA: Tira bada; sukaldeko alki oietako batzuek ekarri ditzagun... (*Malen alki batzuen billa ba dijoa*)... eta gero oieko buruko bi, alki gañetan jarrita ederki, bat bera exeritzeko eta bestea aurrean zangoa jartzeko... (*berekiko bezela itz-egiten ari da*)... eta gero beste bi alki gutzat berarekin izketan aritzeko... eta sukaldeko mai txikia emen...

MALEN: (*Etxeko atean. Bi alki dakartzki; berari lagunduaz Txomin atzetik dator...*) Ona emen bi alki...

AMA: Ongi da... (*Txomin-i*) i ere or al aiz? ume ergel ori, oa ortik nere begien aurrean agertu gabe... eta bestea...?

TXOMIN: Xabier-i laguntzen ari da...

MALEN: Arrek ere irtetzeko prestatu bear du ta...

AMA: Ori den, emaiou arrazoia oraindik...
(*Txomin-i*) beste bi alki ekarri ditzak... (*Txomin*
ba dioa laxterka)... (*Malen-i*) oe gañetik bi buru-
ko ekarri bear ditun...

MALEN: Bi buruko?

AMA: Bai, bat bera exeritzeko eta bestea
aurrean zangoa ipintzeko... ez al den ulertzen...?

MALEN: A! bai, ongi da, oso egoki... berealaxe
ekarriko ditut...

(*Eske ba doa —Bitartean Amak alkiak bear*
bezela jartzen ditu— Txomin beste bi alkiekin
dator).

TXOMIN: Ona emen beste bi alkiak...

AMA: Ekaizkiak onera... oek Xabier-ekin egon
bear degunentzat... olaxe... (*jartzen ditu*)... orain
bai al dakik zer ekarri bear deken...?

TXOMIN: Zer?

AMA: Sukalde-bazterreko mai txiki ura... zein
esan nai deten bai al dakik...?

TXOMIN: A! bai... zuek, josten eta, aritzen
zeraten ura?

AMA: Uraxe...

TXOMIN: Bereala ekarriko det...

AMA: Bañan bakarrik jasoko al dek...?

TXOMIN: Jasoko ez det ba...? Oinbeste indar ez detala uste al dezu...?

AMA: Bestela Joxpantoni-k lagunduko dik...

TXOMIN: Ori ekartzeko iñoren bearrik ez det...
(*Ba dijoa. Malen-ek burukoak dakarzki*).

MALEN: Ona emen burukoak...

AMA: Ederki... ola atsegiñago egongo den...
(*Barren-aldetik datorren Aitona-ri*)... Nundik zatoz...?

AITONA: Orko-ortatik begiratzera izandu naiz... ia norbait agertzen dan edo...

AMA: Ta ez zendun iñor ikusiko noski...?

AITONA: Ez, ez, iñor ez da ageri...

AMA: Bezperetan ez diranak beren etxetan sartuta izango dira... Au ordu ona degu...

AITONA: Bai, orrengatik bear dana lenbailen egitea da onena, berandutu gabe...

AMA: Ongi esaten dezu... bereala etorriko da...

AITONA: Oso egoki jarri dezute au... (*Txomin bere maia bizkarrean artuta an dator, berari lagundu naiean Aitona urbiltzen zaio*)... Itxo egin zak, itxo egin zak, lagunduko diat...

TXOMIN: Ez, ez, iñoren bearrik ez det, egon zaitea... *(maia bizkarretik jexten laguntzen dio eta bear dan tokian jartzen dute).*

AMA: Ori dek... ondo zegok... olaxe...
(Malen-ek atetik galdetzen du).

MALEN: Gauz guztik antolatu al dituzute...?

AMA: Bai, bai, nai duenean etorri liteken...
(Malen sartzen da)... Txomin, ik, bada-ezpada, norbait ba ote datorren noizik bein begiratu bear dek andik...

TXOMIN: Iñor ez da etorriko... oraintxe begiratu det...

AMA: Ara...! Xabier emen degu... ba dator gizarajoa...

TXOMIN: *(Pozik)* Emen da... emen da... *(Aitona, Ama ta Txomin ate-aldera biltzen dira).*

(Atean Xabier agertzen da; jazkera, erdi gudariena erdi baserrikoa dakarki; galtzarbe-makillaz lagunduta dabil; bere aldamenetik Malen dator, Joxpantoni atzetik. Guztiak arrera onena egiten diote, esku-jaso ta agur gogoz egiñez; pozik arkitzen dira. Bera ere pozez ta alai, guztiei eskerrak emanez, biotz-ukitua dago. Txomin erotzeko zorian pozez deadarka...).

TXOMIN: Gora Xabier... gora Xabier...!

AITONA: Zorionak, gizona, zorionak...!

XABIER: Eskerrik asko... eskerrik asko...

AMA: Ederki, ederki, Jainkoari eskerrak, gure mutilla xuxpertz zaigu...

XABIER: Jainkoari eta zuei eskerrak... Txomin... Txomin...!

TXOMIN: Pozik al zera, Xabier...?

XABIER: Bai, motell... aldi batean ontarño , irixtea ez nian uste...

MALEN: Atoz, atoz onera, exeritzera...

XABIER: Ama, Ama...! ontarño etorri naize-nean ez naiz asarre...

AMA: Ez, gizona, ez, gaur zu ola ikusita guztiok pozik gera.

XABIER: Esker ugariak zuei... eta gure Aitonak zer dio...?

AITONA: Zu orrela zaudenean, Aitona ere alai arkitzen dala...

MALEN: Jarri zaitea, nekatu gabe...

XABIER: Ez naiz nekatzen, zuk uste dezun baño sendoago nago...

MALEN: Bai, bañan ohea da, lenbiziko egunetik soña geiegi beartu gabe...

XABIER: Tira bada... Joxpantoni...! nere arreba maitea...

JOXPANTONI: Xabier...! eskerrik asko...

XABIER: Nik arrebarik ez det... anai utsak izan gera... eta beti damu nuan... Bañan orain arreba ere ba det, e?, Joxpantoni.

JOXPANTONI: Bai, bi arreba ba dituzu, Malen ta ni...

XABIER: Um... Maleri arreba baño geixeago ote deten... iruditzen zait... e, Malen...

MALEN: Xabier....!

XABIER: *(Aldameneko ormaren ondoan gal-tzarbe-makillak utzi eta, pokiki-poliki, exeritzen da. Guziak berari begira daude)*... Au da alaitasuna... oinbeste egunetan etxe-barrunbean egon eta gero, olako artsalde giro ederrean eguzkitan egotea zerbait ba da... pozik arkitzen naiz...

AITONA: Bejondeizula! gu ere poztutzen gera...

AMA: *(Txomin ta Joxpantoni-ri)*... Azkenik Xabier etxetik ateratzen ikusi dezute, zuen gogo guzia ori zan, bai, eta orain laxterka zoazte Eleizara, besperak oso aurrera zijoaztik bañan gaur Ama-Birjiñaren jala dalako Eleiz inguruko ibil-

aldia ba dek eta besterik ez bada ere artara iritxi zaitezte, an ez ba ziñateke agertuko norbait gogoratuko ukek...

AITONA: Bai, bai, zoazte azkar...

JOXPANTONI: Arañoko bidea bereala egingo degu bai...

TXOMIN: Ordu-laurden batean an gera...

MALEN: Eta zer mintzatzan dan ongi begiratzeko esan bearrik ez dago, e...

JOXPANTONI: Ez, ez, noski... begiratuko ez ote degu ba...?

XABIER: Bai, bai... Ama larri dago, ta zoazte...

TXOMIN: Agur, bada, e... Amaitutakoan emen gera berealaxe...

JOXPANTONI: Bai, laxter gañera...

XABIER: Ez, ez, laisterka ez dezute etorri bear... igandero oitura dezuten eran gauzak egin ditzazute; Eleizkizunaren ondoren lagunekin pixkabatean gelditzeko oitura baldin ba dezute, gelditu gaur ere...

MALEN: Noski, bestela norbait oartu litekela ez al diozute antz ematen?

JOXPANTONI: Bai, bai, ala egin bearko degu...

AMA: Orain zoazte azkar...

BIAK: Agur bada, agur... gero arte Xabier, ongi egon... agur...

XABIER: Agur, ongi ibilli zaitetze... *(Joxpantoni ta Txomin ba dijoaz; Ama barrengo tontorretik dijoazenei begira alditxo batean gelditzen da; gero besteetara biurtzen da).*

AITONA: Bereala joango dira... naiago nuke oen ankazañak ba nitu!

XABIER: Ez dute zangoetan nere nagitasunik...

MALEN: A! bai bañan oek ez dira zu bezela zaurituak izan...

AITONA: Zuk ere zeran gaztea izanik oek aña indar ta arintasun ba dezu, bai...

XABIER: Zu ere gaztea ziñanean ez ziñan makala izango...

AITONA: Ez, ez, ibilkari ona nintzan... neurri ederrak egin nituan... Bañan orain oña-oñari ezin emanaz ibilli bear...

MALEN: Ba... oraindik ongi ibiltzen zera... naiko kemen ba dezu, bai...

AITONA: Bai, bañan esku-makillakin ibilli bear...

XABIER: Ara!, ta zer...? Ni okerrago naiz... ni galtzarbe-makillakin eta ala ere naiko neke ta eragozpon ba det...

AITONA: Bañan emendik zortzi egunera makil oek bota eta txoria bezela... taka-taka... Eta ni... gero ta okerrago... *(par egiten dute)*.

AMA: *(Biurtuaz)*... Goitik-bera an dijoaz laxterka... Oinkada errez ematen dute oek... Lurrera begira egon bearrik ez dute... Berealaxe Eleizan dira...

MALEN: Eta ez al da beste iñor ageri...?

AMA: Ez, ez, ordu ontan zein agertzea naiden...?

AITONA: Ez, noski. Gauz ontarako ordurik onena da...

MALEN: Beste egunetan ere, arretaz begiratuetzkerok, bildurrik gabe etxetik irten litekela uste det nik...

AITONA: Bai, bai, toki berezia da au ortarako...

AMA: Eta zu, Xabier, nola arkitzen zera...?

XABIER: Ni oso ederki, Ama...

AMA: Bañan eguzkitan buru-utsik nola zaude...? Eguzkiak burua artuko dizu... Txapela nun dezu...?

XABIER: Ez, ez det txapelik bear, ola oitua naiz... ongi nago...

AMA: Orrela oitua izango zera bañan oinbeste egun etxean gaxo egon eta gero, zu, nai-ta-nai-ez, auldu xamarra zera eta ez da berdiña...

MALEN: Bai, Xabier, Amak ongi esaten du... Txapela ekarriko dizut... (*txapelaren billa dioa*).

AITONA: Obea izango dezu, bai... olako gauzeztaz emakumeak guk baño geiago jakiten dute...

XABIER: Ala izango da... nere burua naiko auldua garbi ezagutzen det... bañan orain oso ederki arkitzen naiz... eta emengo egoera onek barrena zearo alaitzen dit...

AITONA: Orrek esan nai du ondo sendatua zerala eta orain indarrak egitea besterik ez dezu bear...

XABIER: Bai, zuei eskerrak... Nigatik egin dezuten guztia nola bear-bezela ordaindu neza-ke...?

MALEN: (*Txapela dakarki*)... Zaude ixilik Xabier...! Tira, jantzi zazu txapela...

AMA: Ezagutu gabe, gure biotzak agintzen zuan eran al genduena egin dizugu, eta emendik

aurrera ez dago zer esanik, ezagutu ta gero etxeko bat bezela maite zaitugu ta...

XABIER: Bai, ongi ikusten det eta zuei nola eskerrak eman ez dakit...

AITONA: Eskerrak eman bearrik ez dezu... Zer bada, kristau on eta euskaldun zintzotzat gure buruak jotzen ditugunok gure arteko baten alde ez al degu beste oinbeste egin bear...?

XABIER: Bai, ori ala da, bañan...

MALEN: Zu sendatzeaz gu pozik gera beintzat...

XABIER: Eskerrik asko Malentxo...

AMA: Guziok Jainkoari eta Zeruko-Amari esker ugariak eman bear diozkagu... Berak oraindaño lagundu digute eta emendik aurrera ere lagundu degigutela... Oraindik ere gauz au ez degu amaitu, eta bere laguntzaren bearrean izango gera, noski...

XABIER: Bai, bañan okerrena egin degula iruditzen zait...

AITONA: Ala da, asierakoa izan zan zallena. Artatik irten giñanean...

XABIER: Orduan ni ez nitzan ondo oartzten, nere buruaren jabe ez bai nitzan...

AMA: Iñork uste genduen baño gaizkiago ziñan, sendakiñak ala zion gaur... Bañan sendoa eta indartsua zerala erakutsi dezu...

MALEN: Bearra izan du...

AITONA: Gauza da zu sendatu zerala... edo oso sendatzeko egunetan zerala beintzat...

XABIER: Ala dirudi... gaitzaren mendetik atera naizela uste det... Orain beste arraxko bat gelditzen zait... Ez zuen etorkizuna ta ez nere burua era txarrean ez nituzke jarri nai...

AMA: Jainkoak nai ez dezala...!

MALEN: Iesus! onezkero gauz txarrik ez al zaigu gertatuko!

AITONA: Ez, ez det uste... guztiok arreta pixka bat artzen ba degu...

XABIER: Orrengatik nai nuke nik zango au lenbailen sendatu ta nere indarren jabe izan. Orduan ezereren bildurrik ez det...

AITONA: Ori berealaxe ba dator, gizona... egun gutxi barru berria bezela arkituko zera...

XABIER: Orixe ola ba litz...

AMA: Ala izango da ba...

MALEN: Jateko gogo ederra dezu... eta gauz guztietatik emateko sendakiñak esan digu... ta...

AMA: Bere neurrian noski, geiegizkorik egin gabe...

MALEN: Eta emendik aurrera egunetik egunera irabazi ederrean joango zera... Bereala egingo zera, ikusiko dezu...

XABIER: Ori nai nuke bada...

MALEN: Gu orren azkar usteko gogorik ez dezu ba izango, e...?

XABIER: Ez, Malentxo, ez... bañan nere adiskideak gure Euzkadi-ren alde egun oietan eta ba liteke ordu ontan berean burruka bizian dabiltzala burutik ezin kendu det, eta... ni ere aietara bildu eta beren neke ta lan gogorretara lotutze-ko zaletua naiz...

MALEN: Iesus...!

XABIER: Aek alako naigabe izugarrietan dabil-tzan artean ni emen ain goxoki zuekin nagoala nere-kiko gogoratzeak pixka bat lotsatu arazten nau...

AITONA: Eta zer egingo diozu? zauritua ta gaxo zauden artean beintzat, egon bearra naita-nai-ezkoa dezu...

XABIER: Bai, egia da... gañera ain ederki arki-tzen naiz...

AITONA: Lasai egon zaitea, bada...

(Goiko leioa iriki eta Aita makutsik agertzen da).

MALEN: Ara...! gure Aita ere esnatu da...

AITONA: Bejondeikela, gizona; loxuxta ez ezik lo galanta ere izan dek ori...

AITA: Kaxo Xabier...! beraz etxetik irten ta eguzki-goxoa artzen e...? Zorionean, gizona, zorionean...

XABIER: Eskerrik asko, Aita... Ongi lo egin al dezu...? Emengo gure ardallaz lenago ez esnatua arritzekoa da.

AITA: Ez, ez, atsedeen pixka baten bearra ba nuen eta lo ederra egin det... Ongi etorri zait... Eguraldi ederra e...?

AMA: Bai, eguzkietan oso atsegina dago...

AITONA: Azaroan gaudenik iñork ez luke esango...

AITA: Ala da... egoaizearen lanak izaten dira oek... Orain jaztera noa, berealaxe or naiz zuekin...

MALEN: Zerbait bear al dezu...?

AMA: Nai ba dezu zuri laguntzera joango nazazu...

AITA: Ez, ez, iñoren bearrik ez det; soñean bear dituten guztiak emen dauzkat... Bereala arte... (*leiotik sartzen da*).

AMA: Zerbait bear ba dezu ots egin...

XABIER: Gizarajoak aste guztian lanean gelditu gabe arituta atsedenaren bearra ba du...

AMA: Bai, lan asko egiten du... Osasun ederra dualarik eskerrak...

AITONA: Osasuna, gutxik bezelakoa du... Ez nere semea dalako bañan lanerako onek aña kemen duan gizonik gutxi izaten dira...

AMA: Eta gañera, gaurko egunean, gure etxe-ko gertaeraz, nai-ta-naiez lan asko egin bearrean arkitzen da...

AITONA: Esateko, bakarrik arkitzen bai ta...

XABIER: Gazte oek ere lagunduko diote ba...

AITONA: Al duen guztia egiten dute bañan ez da berdiña... Baserriko lanak zakarrak izaten dira... eta oek oraindik gaztetxoak dira...

AMA: Gure Manu zana bai, ura izugarria genduen baserrirako... Bañan joan zitzaigun eta... zer egingo da... Jainkoaren gogoia egin bedi...

AITONA: Bai, gauz orrek itzulirik ez du...

XABIER: Sortu diguten guda gaizto au ola da... Gure lanetan eta gure etxetako eginkizunetan pake-pakean ari giñanok burrukara sartuarazi, ondasun guztik alperrik-galdu; alkarrenganako gorrotoa eta ezin-ikusia; alde guztietatik eriotza ta nekea eta bazter guztietara negarra ta naigabea zabaldu...

AITONA: Ala da bai...

XABIER: Eta oraindik gudaren aldeko gizonak ba dirala... eta beren buruak krixtautzat jotzen dituztela...!

MALEN: Gezurra dirudi...!

XABIER: Bai, gezurra dirudi bañan egia da... Eta ori da nazkagarri eta lotsagarriena...

AMA: Eta guztia zergatik eta zertarako...?

XABIER: Batzuek ba dituzu agintzen ez ba daude ezin etsi dutenak; beste batzuek beren aberastasunak maite dituzte ta urko laguna goseak iltzen ba da ere ajolik etzaiote; besteak zitalkeri eta ezin-eramana besterik beren biotzetan ez dute...

AITONA: Eta Jainkoaren izen ederra aotan erabiliaz...

XABIER: Bai, Bere izenean al dituzten guztiak erail, baztar guztiak txeatu, purrukatu ta lapurtu...

AMA: Iesus! oek guztiak ola ote dira ba...!

XABIER: Bai, bai... oek guztiak eta beste asko egi-egiak dira, gauza negargarriak ba dira ere... Guda ta burruka orren zipriztin izugarriak mendimendian arkitzen dan baserri ontaraño nola iritxi diran ez al dezute ongi ikusten...?

AITONA: Bai, zerbait esango genduke....

XABIER: Zenbat eta geiago gogoratu, nazka geiago ematen dute guda sortu eta jeiki-arazi duten gizon oiek... *(Unetxo batean ixilik gelditu dira... Ontan etxeko atean Aita, jaietako jantziaz, agertzen da).*

MALEN: Ara! Gure Aita ere emen degu...

XABIER: Bai, eta egoki jantzia dator gañera...

AMA: Gizartera agertzeko jai-egunetan pixka bat txukundu bear...

XABIER: Nai-ta-nai-ez...

AITA: *(Xabier-i agur egitera urbiltzen da)*... Kaxo Xabier! Oso sendatzeko bidean ikusten zaitut... Etxetik irten eta zu ola ikusteaz asko poztutzen naiz, gizona...

XABIER: Eskarrik asko, Aita! Pozik eta alai nago... Olako toki politean eta zuen artean nere burua arkitzea ere...

AMA: (*Malen-i*)... Malen, oa ikustera ea nor-bait agertzen den.

MALEN: Ez dator iñor, Ama... Ordu ontan zein etortzea uste dezu...?

AMA: Bada-ez-pada joan adi, okerkerien bat gertatzea ez diñagu bear... Tira, joan adi... esandakoa egin zan...

MALEN: Joango naiz, joango naiz... (*Ba doa*).

XABIER: Gogo txarretik dijoa...

AMA: Bai, emengo gauzak aditzen egon nai... ba dakizu...? bañan etxeinguruko bide oek zaindu bear ditugu... Lan txiki au aurretik artzea gero negarrez egotea baño ohea ez al da...?

XABIER: Bai, ongi esaten dezu... ala da...

AITA: Bai, bai, gerorako damurik ez degu bear... lengoak ere naikoak dira...

AITONA: Gañera, emendik bide oek zaintzea gauzik errezena bai da...

AITA: Noski, goitik-bera baztar guztiak garbi ikusten dira ta...

XABIER: Toki ederrean bizi zerate...! Au da toki atsegiña...!

AITA: Ez da toki txarra ez, eguraldi ona danean... Bañan neguko zenbait egunetan ipar aize otza asten danean ez da ain atsegin izaten...

XABIER: Orduan sukalde baztarrean sartu bear... eta su aundi bat egin eta goxo-goxo bertan egon...

AITONA: Eta lanak...?

XABIER: Neguan lanik izaten al da ba baserrian...?

AITA: Lana...? Bai, bai, baserrian lana beti sortzen da, eta ibilli bearra ere bai... ikullurako janak dirala ta bat eta beste, egin nai duenantzat eginkizuna ba da beti...

XABIER: Etxea toki agirian eta egutera ederrean dezute beintzat.

AITONA: Bai, egi batean bai dago...

XABIER: Eta, erria emendik ain ederki ikusten zanik ez nuan uste...

AITA: Bai, ederki ikusten da...

XABIER: Oso garbi ta bertan ba lego bezela...

AITA: Ez da ain urruti egiten; errira joateko bideak sakonera jetxi eta berriz beste mendiegalean igo bear du... Orrengatik dan baño luzeago dirudi... Bañan zuzenean oso bertan egiten da...

XABIER: Bai, bai, orrengatik nik txeetasun guztiak ongi ikusten ditut... Eleiza inguruko gizon ta emakumeak ere garbi agertzen dira.

AMA: Sendakiña emen izan degu, eta zu gogoratu ere ez...!

AITA: Xanti jauna emen izan al da...?

AITONA: Bai, gizona,... ez dek gaizki lo egin...

AITA: Ez naiz batere oartu... Gogoz egongo nitzan berarekin... Eta zer esan du...?

AMA: Xabier oso oderki arkitu du, zauria ta gaitza sendatuak dirala... Orain indartu ta bere soñaren jabe egin bear duala...

XABIER: Bai, bai... Nik ere nere burua ongi arkitzen det eta egun gutxi barru oso sendatu eta emendik alde egiteko gauz izango naizela uste det...

AITA: Zer, orren laister alde egin...? Ez orixe... Oraindik alditxo batean, ongi jarri arte beintzat, ez dezu joan bear... Gero ere burrukarako naiko beta izango da bai...

AMA: Ez, ez, oraindik ortaz ez da gogoratu bear... Ez dezu oinbesteko itomenik artu bear...

XABIER: Um... alde batetik, ni emen egoteak zuentzat lan eta neke ugariak dakartzki eta bes-tetik, arraxko bizia... Ni emen naizela agertuko ba litz ea zer txamalda zuen gañera etorriko litzaken... Ni emen izkutuan ain ederki egona-
rren etsai amorratuen mendean nagoala ezin aztu liteke...

AITONA: Ez, gizona... ez genduke nai...

AMA: Nekea ez da ezer guretzat... ez dezazu-
la ori esan...

AITA: Eta arraxkoa ere ez, arretaz pixka bat guziok begiratzen ba degu...

XABIER: Eta beste aldetik, nere adixkide ta lagunak burruka bizian dabiltzala, ni emen ain goxoki nagon bitartean, gogoratu utsak ez dakit zer ematen didan...

AITA: Ez, ez, ongi sendatu arte emen egongo zera ederki...

AITONA: Gudako neke izugarriak eramateko gizonak osasunez ongi bear du... Bestela, gaztea izanarren gaizki ibilliko da...

AITA: Eta guda ori nola dijoan sendakiñak zerbait esan al dizute...?

XABIER: Bai, zerbait esan du... Alegia... bi aldetakoak alkarri gogor ekiten diotela... Bañan euskaldunak Bizkai-ko sarreran beren etsaia gelditu-arazi dutela... eta Gipuzkoa-ko aizkeneko errien inguruetan geldituta daudela...

AITA: Bai, nik ere ori aditu det... eta ori ola izanezkerok ez ditugu urruti ez... emendik oso bertan dira... neroni ordu betean joango nitza-ke...

AMA: Orrengatik guda-soñu ta zizpa-otsak ain maiz aditzen ditugu...

XABIER: Bañan, agidanean, ori gauza gogorra izanarren ori baño okerragoa izan bear du alde ontako errietan gertatzen ari dana...

AITONA: Zer bada...?

XABIER: Bada, sendakiñak esan duanez, Naparro-aldetik datozen txuri oiek sartu diran tokietan izugarriak egin dituzte...

AITA: Asko da...!

XABIER: Beren aldekoa ez duten guztia etsai-tzat artzen dute, noski, eta lotu ta bere mendean jarri, edozein aitzekiaz, edozein ezerezkerienga-

tik zakurrak bezela erail, beren ondasun guztiak sakabanatu, ostu ta ebatzi...

AMA: Izugarria da...!

AITONA: Gizonak ortaraño burua ta biotza gal-tzea ezin xinixtu liteke...

AITA: Egia izan bear du, bai... neri ere ala esan dizkidate...

XABIER: Bai, bai... Xanti-k ez digu guri gezu-rrik esan... Bera ere gogobetea zegoan...

AMA: Ala esan ditu, bai...

AITA: Berekin ez duten guztia oinpean euki bear dute... bururik jasotzen ere ez diote utzi bear...

XABIER: Eta ez da ori okerrena... zitalkeri izu-garri oek egiten dituenean Jainkoa-ren izena goratzeagatik egiten dituela ojuka esaten dute...

AMA: Jainkoa-ren izenean beraz... e!

AITONA: Lengo gerratekoak ez ziran olakoak... Gu ere izkillutan ibilliak gera, bañan orduan ez zan olako gauzik... ni gaztea nitzan ta zizpa artu nuen, karlixtetan ibilli nitzan... bañan gure artean olako gaiztakeririk ez zan gertatu...

AMA: Gauz oek entzundakoan, gure erriko «Txinparta» deitzen dioten ori, burura datorkit...

AITA: Bai, ongi esaten dezu... norbait olakoa izateezkero orixe bat izango litzake...

AITONA: Petral gaiztoa...!

XABIER: Zein dezute ori...?

AITA: Ori... ? ergel zital bat... erri guztia nas-tutzeko bera naikoa da...

AMA: Bai, auteskunde-egunetan ikusgarria ibiltzen zan ori...

AITONA: Nagusiaren agindea aotan artu eta nabarbenkeri bizian baserritar-maizter guztiak beartzen nola ibiltzen zan ikusi ba zendun...

AMA: Baztar guztiak jan bear zituela...

AITONA: Bai, errian «Txinparta» izengoitiz deitzen diote...

XABIER: Erri guztietan olako pixtien bat bear zala... aundia da bai...!

AITA: Gure seme gizarajoaren billa etorri zana ere, ori izan zan...

AMA: Bai, gure Manu zana orrek eraman zuan...

AITA: Ez zaigu errez aztuko... illunabar batean zitzipatza zeriola etorri zan; Jainkotasunaren etsaiak bere ostikopean zebilkitela... eta arren alde zerbait egiteezkero oraintxen zala ordua...

Errusi-aldeko inpernuko deabruak gañean giñuzela... oiek guztiei arpegi eman eta gure sinismenaren eskubideak jasotzeko gizon onak alkarrenganatu eta jeiki zirala... eta nai-ta-nai-ez Eleizaren aldeko euskaldun guztiak aietara bildu bear genduela... gazteak batez ere... orain bere gogoz joaten ez ba ziran gero indarrez joan bear-ko zutela... gañera au-ta-ura gertatuko zitzaiotela... eta nik ez dakit zenbat gauza .. . aitzeki, gezur ta abar... Gure mutillak ez zuen joan nai, bañan alako gauzak esan zizkan... eta nai-bazun-ta-ez artu ta berekin eraman zuan...

AMA: Ura naigabea...!

AITONA: Bai, ez zan atsegin orduantxe... gero gertatu bear zuana guziok ikusten genduela zirudien...

AITA: Andik amar egun igaro baño len berri izugarria etorri zitzaigun...

AITONA: Eta lenbizi erriko apaiz jauna eta gero Txinparta, ori bera, guri esatera etorri zan...

XABIER: Bera ez al zan burrukara joan...?

AITA: Asiera artan Naparro-raño joan zan bañan itzul egin eta berealaxe emen zan... Geroztik bertan dago...

XABIER: Besteak sutara bialdu eta bera babe-sean gelditu e...?

AITONA: Ori da ba ori...

XABIER: Olako pixtiak ezagunak dira... besteak arpegiz-arpegi ta ausarditsu gudan dabil-tzan bitartean olakoak errietan, arraxkorik ez duten tokietan, nai dituen txarkeri eta zitalkeriak egiten alegindu dira... Ori bezelako ume zikoitzak errurik gabeko amaika gizon on ta zintzo garbitu dute...

AMA: Alaxe gertatu da bada... eta gure seme maitea, etxeari jarraipena eman bear ziona, betirako galdu degu... *(Malkoen batzuk legortzen ditu eta guztiak errukitzen dira...)*.

AITONA: Guda zikiña... Jainkotasuna jaso bear omen zuten...!

XABIER: Au sortu duenaren barren beltza...!

AMA: Manu gizarajoa...!

XABIER: Zer egingo da!... Amaika olako izango da baztarretan...

AITA: Bai, guretzat beintzat izugarria izan da... Bañan, orrek itzulirik ez du... burua makurtu ta aurrera...

AMA: Ori ala da bañan... ezin aztu...

XABIER: Noski! olako gertaera nola aztuko zaituzte ba...

AITONA: Ez berealakoan...

AITA: (*Txutitzen da*)... Ba... orduk aurrera dijoaz eta nik, nere oitura deten bezela, Eleizkizuna bukatzerako erriko adixkidetara agertu naituke...

XABIER: Bai, bai, zoaz, oiturak ez dira galdu bear...

AITONA: Eta iñork ezer sumatu ez dezan, gauz guztik zu emen ez baziña bezela egin bear ditugu...

XABIER: Ala da... eta gañera aste guztian lanean aritu dan gizonak lagunarte pixka bat ez al du bear...?

AITONA: Bai, bada...

AMA: Eta guda nola dijoan edo... gauza berrien bat jakiten dezun...

AITA: Berriak...! Emen berri zuzenenak sendakiñak esan dituanak izango dira...

XABIER: Bai, ala dirudi... bañan, gertaera berrien bat ere izan liteke...

AITA: Ba... noan, noan... berandutu baño lenago...

AMA: Ba zoazke... eta goiz xamar etorri gero...

AITA: Ba, bai... betiko orduan etorriko naiz... agur bada... gero arte...

XABIER: Agur... ongi ibilli...

MALEN: (*Barren-aldetik dator*) Ba al zoaz Aita...?

AITA: Bai, ba noa...

AMA: Beko bide oietan iñor ez al da ageri...?

MALEN: Ez, iñor ez dator... gizon bat agertu da, bañan bidegurutzera iritxi danean beste aldera jo du...

AITA: Agur bada... eta emendik ordu-erdi batera oztutzen asiko du eta etxera sartu ziñezteke e...

AMA: Bai, bai, zoaz lasai...

AITA: Agur, gero arte... (*ba dijoa*).

GUZTIAK: Agur... agur...

XABIER: Au da egiazko euzkotar gizon pres-tua...!

AITONA: Ba, bai... ala da bai.. ez nerea dalako bañan...

XABIER: Semea olakoa danean aita nolakoa izan dan esan bearrik ez da...

AITONA: Zuzen izatean kalterik ez da.

AMA: Zeruko-Ama-ri nere erregutzak ere egin bear diozkat... (*Xabier-i*) igande-artsaldeko nere oitura... bestiak Eleizara bialdu eta nik etxean nere otoitzak egiten ditut...

XABIER: Ederki da, Ama,... euskaldun emakumeak beti etxe-zai.

AMA: Bai... gero arte...

XABIER: Agur, sarri arte... nere alde ere erregutu...

AITONA: Ez al zera nekatzen Xabier...?

XABIER: Ez, ez, gizona, nekatu ez ezik atsegin ederrean nago zuekin, eguzki gozo ontan...

AITONA: Eguzkia, aurki sartu ere egingo da, arratsaldea oso motxa dago, negua ba datorkiguta...

XABIER: Bai, bañan aurten udara-azkena luzatzen da ederki...

AITONA: Eskerrak orri...

XABIER: (*Urbiltzen dan Malen-i*)... Atoz, atoz, Malentxo, atoz emen exeritzera (*bere aldame-nean exeri-arazten du*).

MALEN: Bai, bai, pozik...

AITONA: ...Gu emen ongi gaude bañan ikullu-aldean ere eginkizuna ba det nik... Xabier-i lagun-zaiozu... bereala emen naiz...

MALEN: Ikulluan...?

AITONA: Bai, bai, guk jatea ez da naikoa. Bei, zekor ta abere oiek ere jan bear dute, ta beren orduan ematen ez ba zaiote laister asiko dira marruka...

XABIER: Abereei jaten ematera al zoaz...?

AITONA: Bai, zer bada...? oietzaz ere norbait tek gogoratu bear du... (*etxera sartzen da*).

Xabier ta Malen, biak bakarrik gelditzen dira; alkarri zer esan ez dakite asieran, Malen lotsatu xamarra dago; gero pixkanaka mingañaak azkartzten dira bere naitasuna alkarri agertuaz; aizke-nerako biotzeko garra ezpañetan dute.

XABIER: Malentxo...!

MALEN: Xabier...!

XABIER: Ez dakizu egun oek guztietan zurekin bakarrik egoteko zenbateraño gogo nuen...

MALEN: Nik ere... gogo aundia nuen... bañan... bildurra ere bai...

XABIER: Bildurra...?

MALEN: Bildurra edo... lotsa edo... ez dakit bada nik...

XABIER: Bai... biotzak gauz asko esan nai dituanean ezpañak ez dute asmatzen...

MALEN: Ori da ori... egia da bai...

XABIER: Zu ezagutu zindudan egunetik lenago nere barnean arkitzen ez nuan gauz bat ba det... barrengo indar batek nai-ta-nai-ez zugana narama...

MALEN: A...! neri ere ori bera gertatzen zait...

XABIER: Asiera artan, ni arkitzen nitzan bezela arkitu eta zuengandik ainbeste laguntza eta on artzen nuenean, zuen alde eskertasun aundi bat ba nuan... eta orduan zureganako barrengo dei au eskertasun arren agerkai bat izango zala uste nuan... Bañan gero zaletasun au askoz indartsuagoa dala ikusi det... Eta orain, nere Malentxo!, biotz-biotzez, ben-benetan, maite zaitudala barrenak garbi esaten dit...

MALEN: Au poza...! Nik ere alako zerbait ba det biotzean... Bañan gauz ori zuk bezela esaten ez dakit... Barrengo zerbaitek zugana bultzatzen dit. .. ta zugabeko onik ez det...

XABIER: Egia, Malentxo...?

MALEN: Egi-egia da... Au zer dan nik ez dakit... poza ta kezka, alaitasun aundia eta negar-egiteko gogoia, guztiak batean... Zure aldamenean nagonean atsegintasun bizia... eta «gero, Xabier sendatu ta joaten danean...» ori gogoratu utsak naigabea eztarriraño dakarkit...

XABIER: Zuri entzuteak barren guztia poztutzen dit...

MALEN: Eta nai-ta-nai-ez gauz au gertatu bear... eta orduan zer ikusi bear det nik...? launa...!

XABIER: Bai, alkarrengandik aldendu bearra etorriko da, noski... Ni sendatzen naizenean joan bearrean arkituko naiz... Ala da... bañan alkarrengandik urrun xamar izanarren gure maitetasun biziak alkarri lotuak eukiko gaitu eta, al dan bezin laxter, egietan alkarganatuko gera... eta andik aurrera biok bat izango gera beti...

MALEN: Zenbat eta geiago gogoratu, neretzat ain ederra dan gauz au, ezin litekean gauza dala geiago iruditzen zait...

XABIER: Zer bada...?

MALEN: Amaika aldiz nereko esaten det: «Bañan ik bera ainbeste maitatuarren, berak i

maitatzea nola nai den...? Bera erritar argi, asko dakiena, egokia, nai dituan neska guztien artean aukera izango duana, nola baserritar tuntun batengan bere begiak jarriko dizkin...?».

XABIER: Ja, ja, ja... Euzkotar izatea zer dan ondo dakien batentzat Euskal-Erriko baserritarra zer dala uste dezu...? Gure euzkojatorria, garbiena, indartsuena eta egokiena baserritarrak daramazute... Gure izkuntz ederra nork baserritarrak bezela mintzatzen du...? Ta gure oitura garbiak baserrian añean nun bizirik arkitzen dira...? Gauz oek guztiengatik eta bere zuzentasun, langilletasun eta beste gauz on asko dituelako euskaldun argi ta zintzoen artean baserritarra lenengo mallakoa da... euskaldun guztiok baserritarretatik gatozenok gera... eta ori da guretzat goral-pengarririk aundiena...

MALEN: Txoraturik naukazu...!

XABIER: Gañera... nik ikusi nuan arazo larri ta estutasun izugarrian arkitu,... zuek artu ninduzuten bezela jaso izan... eta lenbiziko egunak alako illuntasunean igaro ondoren nere onetara netorra, nere begiak zerbait ikusten asi zira-nean, oiaren aurrean zu bezelako neskatx lirain,

lerden, polit, egoki ta atsegiña, egitako aingeru bat, arkitu... ta...

MALEN: Xabier... Xabier...! bañan gauz oek benetan esaten al dizkidazu...?

XABIER: Benetan, noski... olako eginkizun sakon eta garrantzi aundiko batean, ez dan gauzik zuri esatea barkatzekoa ez litzake izango...

MALEN: Nik zu maite zaituten bezela maite izatea ez da arritzekoa, bañan zuk ni benetan maitatzea izugarria derizkiot...

XABIER: Arrigarria edo ez, ori egi-egia da... Nere biotzean barren-barreneraño sartua zaude eta neretzat bear zaitut, Malentxo...

MALEN: Nere biotz guztiaz, Xabier, zurea izan nai det...

XABIER: Bejondeizula...! Zure itzak barren guztia zearo poztutzen dit... Gaurtandik ludian zu beste gauzik ez da neretzat...

MALEN: Gaurtandik zu zera nere jabea... ta gure naitasun au eragotziko duan indarrrik ez da izango...

XABIER: Ori, on... Nere biotza...!

MALEN: ...Xabier...! Niume argal, aul, bat besterik ez naiz... zugandik bearko det indar kema-na...

XABIER: Bai, nik eukiko zaitut, nik jasoko zaitut, nigan agertzen dezun itxaropen orri dago-kion erantzuna emango diot...

MALEN: Eskerrik asko Xabier...

XABIER: Zer...? Negar egiten al dezu...? Nere Malentxo...!

MALEN: Bai, pozaren malkoak dira... Biotzean atsedean aundi bat arkitzen det... An atertu da...

(Eleizako ezkil aundiak urrutira entzuten dira; orrek esan nai du eleizkizunaren ondoren Andra Mari-ren aintzan gaurko egunez egiten dan eleizibil-aldia asi dala; Malen ta Xabier-ek dauden tokitik ikusten dute eta berari begira jartzen dira).

XABIER: Zer da...? Berriz ezkillak...?

MALEN: Bai... ara! Eleizako ibil-aldia orain da...; emendik baño or aurreraxeagotik obeto ikusiko degu... goazen, nai ba dezu zure alxia eramango det...

XABIER: Bai, goazen... jeikiko naiz... *(Txutik jarri, galtzarbe-makillak artu eta aurrerago dijoa;*

alkia bere burukoakin, esandako tokira, Malen-ek darama, eta biak, eleiz-ibil-aldiari begira an jartzen dira...).

MALEN: Ara...! ikusten al dezu...? Lenbizi aurrak, Eleizatik oraintxe irtetzen dira...

XABIER: A! Bai, emendik ederki ikusten det... aurretik bat bere ikurriñarekin dijoa...

MALEN: Orain gizonezkoak asten dira...

XABIER: Eta ibil-aldi luzea izaten al da?

MALEN: Ez, Eleizatik irten eta pelota tokiko aurretik itzulia egiten dute... Ara! gizonezkoak ere aurrera dijoaz... Andra-Maria-ren irudia Eleizatik oraintxe irtetzen da...

XABIER: Bai, bai, ederki ikusten det... bai poliki...!

MALEN: Txuriz jantzitako nextak ditu aurretik...

(Ura ikusten duenean Xabier al duen bezela eta galtzarbe-makillen laguntzaz, txutik jartzen da, Malen belaunikatzen zaio aldamenean eta Andre-Maria-ri ta Xabier-i erdizka begiratzen dio; Malen-en eskua bereen artean artuta Xabier-ek biotz dar-dara aundiz esaten dio...).

XABIER: Malentxo... Malen nereea...! Andra-Maria-ren aurrean, bera lekuko artuta, esaten dizut, biotz-biotzez maite zaitudalako nereea egingo zaitut, bere aurrean nere itza ematen dizut...

MALEN: Bai nik ere, Xabier,... gure Goiko-Ama-ren aurrean, zurea izango naizela, zin egi-ten dizut... Gaurtandik zurea naiz betirako...

XABIER: (*Andra-Maria-ri*)... Goiko-Ama... gutzaz errukitu zaite...! gure alkarrenganako egizko maitetasun garbi onek jartzen gaituan bidean lagundu zaiguzu... Gure bide au arantzaz eta eragozpenez betea arkituko degu noski, bañan zure laguntza izanezkero guztia garaituko dezu eta, ziurki, gure barrengo dei au betetzera ongi iritxiko gera... Ama maitea! Gure izaera eta gure etorkizuna zure eskuetan jartzen ditugu... Arren, zure laguntzarik ez zaiguzula ukatu...!

MALEN: Ama... Ama...!

Xabier ta Malen-en aizkeneko itzakin batera emeki-emeki agerraldi au amaitzen da.

Biak alkarri eskua eman da, bat txutik eta bestea erdi-belauniko, Andra-Maria-ren ibil-aldi deunari begira alditxo batean gelditu dira.

Etxeko atean Aitona agertu da... Xabier-en itzak entzun eta gertatzen dan guztiaz oarturik, besteak ikusten ez duten eran, ate-ondoan gelditu da... arritua eta pozik...

Gizonen artean ainbeste gorroto, ezin-ikusi, zitalkeri ta burruka dabillen garaiean, arantza arteko lore eder bat bezela, maitetasun-lore garbi, apain, bikaña euzko-mendi-mendian sortu, erne ta agertu da...

III

EKAITZ IZUGARRIA

Maitetasun-landare berria loratu da eta bere usai gozoaz inguru guztiak bete ditu; atsegintasunez biotzak esnatu ta berotu, etxeko seme zarrena illezkero zimurturik zeuden bekokiak alaitu, eta arras illun ziran barrenak irri bigun batez poztutzen asi dira.

Semea galdu ta nekazari jator aiek naigabez estalita geldituak ziran bañan eriotz arrek bere biotzetan utzitako utzunea betetzera, usterik gutxienean eta iñork usteko ez zuan eran, Jainkoak beste biotz-ikutze sakon bat bialtzen diote.

Aitonak berri ona zabaldu du eta etxeko guztiak, oraindik gauza ongi jakin gabe pozez zoratzen daude.

Gau aietako batez apal-ondorean, Aitona ta gazteak oiera joan diranean, Malen aurrean dala, Xabier-ek aita-amak artu ditu eta garbiki gauza agertu diote esanaz:... Zuei eskerrak, etxe ontan zaurituta sartu nitzan bezela sartu eta zuen laguntza onaren bidez sendatzen oe ortan egon

naizen artean, Malen-ganako maitetasun bizi bat nere biotzean sortu da... Asiera artan zuentzaz deten eskertasun aundiak zekarkien gauz bat ote zan uste izan nuen, bañan arras sakonagoa dala laxter ikusi det, barren-barreneraño, biziaren sustraietaraño, sartua daukat, nere buruak baño indar geiago du eta oso bere mendean arkitzen naiz...».

«Zuek ain onak izan ondoren alabaren naitasuna nereganzeko eskubiderik ez detala iñoiz gogoratu zait, bañan nere biotzeko mugiera au ixil arazteko kemenik ez det».

«Gañera, neretzat pozgarriena dan beste gauz bat ere ba degu,... Malen-i ere ori bera gertatzen zaiola; berari ere nereganzako maitetasun garbi, zintzoa, sortu zaio, eta alditxo batean alkar ezagutu gabe egon da gero gure maitasunak alkarri agertuaz bi biotzak bateratu dira eta alkarrenak izateko itzak Goiko-Ama-ren aurrean alkarri zinez emanak ditugu».

«Eta ixilka ta gordeka ibiltzea baño, zuek jakiñaren gañean egotea ohea dala uste det. Zuek gauz au txartzat artzen ba dezute, biotzari korapillo izugarria egin eta emendik berealaxe

alde egiteko gertu izango naiz. Nigatik zuek negar-malko bat ixurtzerik ez nuke nai; bizia zor dizutet, nere biotzeko eskerrik oberenak zuentzat ditut eta zuei kalte bat egin baño lenago il naiago nuke...».

Ola, goititz ederrez, mintzatu zan Xabier, eta Malen-ek itzak ezin asmatuz eta begietan malkoak azalduz erantzun zion: «Bai, ala da... maite det... alkar maite degu... eta alkarrenak bear degu izan...».

Ura entzundakoan aita-amak, lenagotik zerbait jakiñarren, arriturik, bañan pozik, ziran ta ixilalditxo baten ondoren aitak ala dio: «...Ongi da, biok benetan, garbi ta ziñez alkar maite ba dezute, guk ezer esan bearrik ez degu: Zuek ola ikusteak poz aundia ematen digu... Zoriontsuak izan zaitezte... Orain, Xabier, gure alaba zure kidekoa ez dala gogoan izango zenduen noski... Ez da zu bezelako kaletar, eskolatu eta ongi ezia, baserritarra da eta baserriko eran oitua...».

«Bai, ori ala izango da —dio Xabier-ek— bañan kaletar aundizki-alabei ere Malen-ek ezer zor ez diote, eta, berari esana dioten bezela, euskaldun zintzo ta zerbait dakien batentzat

baserritar izatea izan liteken gauzik ederrena da, euskaltasuna, gure euzko-odola eta gure euzko-izaera guztia, garbi ta egokiena gordetzen dan tokia baserria dalako...».

Gau artan gizon ta emakume aiek lotarako presarik ez zuen. Gurasoak alkarri beren poza agertzen zioten; zaurituta etxe artara ekarri zuten egun beretik, Xabier beren gogokoa zan, ain egokia ta atsegiña ikusirik, gutxi edo asko, guziak maitatuaz...; eta orain... «Gure semea izatera etorri bear ote du...? Gudaren zalantzagatik ez ba litz...! Bañan, begira, gudagatik izan ez ba zan gizaseme ori ez genduen guk iñoiz ezagutuko... Bai, arrazoi dezu... gauz guztiak beren alde onak eta alde txarrak izaten dituzte...».

Ala zioten ixilka alkarri senar-emazteak; gazte zauritu arren egoerak baserrirako zekarzkie arraxko ta kezka, andik aurrera bizigoak, minkatzagoak, agertzen zitzaizkaten... «arraxko orrengatik bertan luzaro egoterik ez du izango eta joan bearra etortzen zaionean...?».

Zoriona ta kezka alkarrekin maiz izaten dira noski...

Etxeko guztiak berealaxe jakin dute eta pozik dira; batez ere Aitona... Malen bere besoetako kutuna bai du eta Xabier mutil jakintsu, zintzo atsegiña, biziki maite du.

Etxeko semearen eriotzak sendi artan utzi zuan belztasun illuna, alditxo batez arindu da zerbait; gertaera berri onek biotzak jaso ditu eta ango biziaren garratzasuna goxatu du pixka bat.

Udarazkeneko egunak aurrera dijoaz ta negua ba dator; ala ere eguraldiak ederrak dira, egoaizeak irauten du oraindik eta bere epeltasunaren igurtziaz bazter guztiak bigundu ditu.

Euskal-mendi aietako bizikera atsegingarria da; basozelaiak urre-gorri margoz apainduak daude eta urrutiko arkaitz ta mendi-tontorrak eguzkiaren argitasun aundiaz garbi agertzen dira.

Xabier-ek bere osasunean egunetik egunera asko aurreratzen du, gaztetasunak laguntzen dio noski; zangoa ia sendatu zaio, galtzarbe-makillak utzi ditu, esku-makiltxo bat naikoa du, errenka bederen asi da eta poliki-poliki ba dabil.

Eta ola ibiltzen asi danezkero zeñek euki gel-dirik? Nork etxe-barrunbean egon-arazi? Lenbizi

etxe-inguruan asi zan, gero etxaburuko belardi eta gañeko arizti-txikiraño joan bear zuan, aizkenik urrutitxo ere joan nai du, mendigañeko arkaizti batetik Euskal-Erri-ko alderdi guziak ikusi bear omen ditu.

Aitona du bere lagun, biak ongi etortzen dira; bata zarra izanik eta bestea erren arkitzen dalako laxterka ibiltzerik ez dute, astiro-astiro ibilli bearrean dira eta noizik-bein belaz idorrean exeri eta pipakada bat erreaz izketa beroak egiten dituzte.

Noiz-nai, arkaitz gañetik zabalari begira, txoratuak egoten dira. Xabier-ek mendi-mutur guztien izenak ba dakizki, mendizale izana bai da; Aitzondo baserria nun arkitzen dan ikusten du orain, bera nun dagon ba daki, eta bere gudari lagunak burrukan nun dabilzan ere, gutxi-gorabera, sumatzen du; eta aurki oso sendatutakoan Bizkai-aldera, bere lagunetara berriz biurtzeko, zer aldetara jo bear duan ere asmatuko du.

Gauz oek entzundakoan Aitonak ala dio: «... Gizona, oraindik joateko bearrik ez dezu... lenbizi ongi jarri zaitea... oraindik indarra bear bezela

ez zaizu etorri... baserriko egoerak on aundia egiten dizu eta egon zaitea lasai».

Bai, bera ere, bere gogoz, emen egongo litzake ederki; batetik, bertako paketasun ta atsedentokian ain ongi arkitzen dalako eta bestetik... Malentxo... maitetasunaren deia...

Bañan bere guda-eginkizunak gogoan ditu beti; maiz berekiko gauz orretzaz gogoratzen da eta bere asmo ta erabakia ziñez artua dauka, sendatu-samartua arkitzen dan bezin laxter berriz bere lagunetara joan bear duala.

Mendi aldeko bere ibil-aldietan Aitonarekin gauz askoz mintzatzen dira; batez ere bere maitetasun gaiaz. Xabier ain txoratuia ikusirik Aitona pozik da, bañan bere barnean betiko kezka agertzen da... erriko gazte zital aiek, Xabier etxe ontan dagola jakingo ba luteke... zer gertatuko litzake...?

Xabier-i olako gauzik ez zaio bururatzen, oraindano salatu ez dutenean aurrera ere iñor oartuko ez dala iruditzen zaio, eta Aitonaren zalantza ta bildurrak bere ziurtasunez ixil arazten ditu.

«Gauz au arreta aundiz artu bear dezu, Xabier —esaten dio zarrak— ez txorakerietan ibilli; gure errian gaztedi gaiztoa dago; gudaren asiera artan gizon zintzo batzuek, errugabeko krixtau onak, zakurrak bezela garbitu zituzten; guztiok maite genduen apaiz gazte bat, euskaldun ona, beartsuen laguntzalle zana, emendik eraman zuten eta nun dan iñork ez daki».

«Ez da ori guk ikasi genduena —jarraitzen du Aitonak— Ni ere ongi gazterik irten nitzan lengo gerratean Mugerza-ren mutil-sallera, eta an ibili giñan su ta gar, bañan errietako gizon paketsuei kalterik ez zitzaioten egiten gure asmoen aurka-koak izanda ere».

«Bañan oraingo oek gu bezelakoak ez dira; zitalkeria, barren ustela eta ezin-ikusia besterik ez dute. Mendira, etsaien aurka, beren buruak arraxkoan jartzera, ez dira joaten, beti kaleetan dabilta; olakoetan, okerrenak, biotz gabeko erailtzalleak, gizon bildurtiak, izaten dira».

«Batez ere ba degu bat, Txinparta edo... deitzen diotena, lenago ere arren aditzera ba dezu... nere illoba maitea, gure Manu zana ere, berak eraman zuan,... karlixtetarako itza emana

zuala eta aitzeki ta abar,... geiago etxera ez etortzeko...».

Aizkeneko gogorapenaz Aiton gizarajoaren begiak lañutzen dira, bañan Xabier-ek, kupitu ta, itz ezti, leun, batzuek esanez, bere onetara dakarki; lenago illoba bat galdu ba du, orain, Malen-en naitasun eta biotz ederraren bidez, arrek aña maiteko duan beste illoba bat izango duala gogoratu arazten dio ta pozez arpegia alaitzen zaio biziki.

«Bai —esaten dio— maite zazu, Xabier... ez nere illoba dalako bañan beti biotz aundiko nexka on bat izan da, eta gero, ziur naiz, emazte on bat izango dezu... ez zaizu damutuko; bañan, bene-benetan maite al dezu...?».

Xabier-ek lasatu arazten du eta biak, bi lagun zar ba lira bezela, mendian bera abestuz datoz.

Lengo gudatean, bera gaztea zanean, abestutzen ziran bertso zarrak Aitonak ba dakizki, aiek dira gazteak geiena maite dituztenak eta berak ikasteagatik zarrari abestu arazten diozka.

Ola, eguzki epelaren igurtzi goxoa artuaz, arratsalde atsegiñak joaten zaizkiote.

Bitartean etxeakoak, bakoitza bere aldetik gogoz alegintzen dira. Aita, Joxpantoni ta Txomin-gaztea, batzuetan mendira garo ta orbeletara dijoaz, beste aldietan, soro ta barruti, goldeaz, laiaz edo atxurrean lana gogor egiten dute; beti nekeizerdi-lanetan; ala osasunez ain ederki izaten dira. Ama ta Malen-ek, beti bezela, etxe-barrunbean eta etxe-inguruan naiko lan ta egin-kizun izaten dute.

Arratsalde giro eder ontan odei beltz lodi batzuek zeruan agertu dira eta, illunabarrerako, eguraldia nastuko ote dan, turmoira joko ote duan, ba dirudi.

Aitzondo-gañera ere ekaitz izugarrien bat etorri liteke; arraxko bizian dirala etxe artako gazteak ez dute nabaitzen, ezer txar gertatu litekenik iruditzen ez zaiote ta zoriontsu bizi dira; zarrak, begia argiagoa izanik, kezka ta bildurra berekin dituzte; ollategigañean jira-ta-bira usaiean ibiltzen dan bezela, zapelatzen bat etxe inguruan itzulika ote dabillen norbaitek sumatzen du eta ez dago lasai.

Xabier-en egoera ixilik eukitzea asieran ez zan zalla; zauri ta gaitzak bere mendean, oiari

lotuta, geldirik zeukan bitartean etxetik kanpora ezer ez zan agertzen, iñork ez zuan ezer sumatuko. Bañan orain, bere osasunera ongi datorren mutil gazte sendoa geldirik ezin euki liteke, txoriak bezela mendiko zabaltasun ta azkatasun ederra maite du; zangoa oraindik makal-xamar eukiarren ibilli bear, etxe-barrunbean ito egiten dala ta asnasa oparo artu nai.

Berak uste ez ba du ere, auzokoak, sudur-luze, zerbait usandu ote duten bildur bear... batez ere, etxe artakoei arras gaizki nai dioten pixti bat, basakatua baño zeken ta zitalagoa, auzoan ba da, eta...

Malen-en ondoren ibilli dan zentzu-gutxiko mutizarrak beragandik artutako ostikoa ez dio barkatzen; bere aundikeriak min izugarria artu du; bera, bere buruaz ain iritxia, etxealdeko seme bakar aberatsa, baserri eder, lur ugariak, abere onenak, ondasunak gañezka dituan, bere ustez jauntxo nagusi bat izan bear luken gizona, neska zirtzil batek erri guztiaren aurrean parregarri agertu arazi...? ez al da, gauz gogorra...?

Bañan, berak esaten zuanez, ez da ortan geldituko ez; bere zentzu motxean azpikerien bat

egin naiko diote, aldi luzea igaro baño lenago kalte aundien bat egiteko era eskuetara ez ote zaio etorriko...? zer gertatu liteken nork daki...? A! olako egokieraen bat izango ba litz, mutil-zar minduak ez lioke iges egiten utziko... eztena ondoraño gogoz sartuko luke... bai.

Bada-ez-bada udazken illabete aietan Aitzondo-ko joanetorriei begirik ez dio kentzen... ardien inguruan otsoa dabil... adimen gutxiko gizon zozo oiek askotan gauza txarretarako ausarditsuak izaten dira.

Artsalde atsegintsu ontan, etxe aurrean eserita, mai txikia bien artean dutela, Ama ta Malen eguzki-goxotasun ederrean, josten ari dira...

AMA: ... Urte aldi ontan olako eguraldi ederra izatea gezurra zirudin...

MALEN: Bai, azaroan aurrera goaz, aurki negua degu eta oraindik otzik ez da sumatzen...

AMA: Aurtengo udazkena ona zijoan beintzat... ego-aize zakar, arro, batzuek egin dizkin, bañan oraindik udaran gerala esan liteken... beste amabost bat egun olakoak egingo ba litu neguari puska eder bat kenduko genitxuken...

MALEN: ... Olako eguraldi onak izatea Xabier-entzat ongi dator... txarrak egin ba zituan etxean sartu ta aspertuta egon bearko zuan... bere osasunera bear bezela etortzeko ola, mendian pixka bat ibiliz, ohea da... bere barrengo alaitasunera-ko ere ez da berdiña...

AMA: Bai, bañan... geitxo ateratzen den... Ni bildur-bildurrez natxionan... ballara ontako jendea sudur-luzea den eta berealaxe usanduko diten...

MALEN: Eta usanduta ere, baita ikusita ere, salatzeraz joango dirala uste al dezu...? Gure auzo ontan olako zital biotz-gogorrik ba ote da ba...?

AMA: Ez, e...! emen, beste toki askotan bezela, ezin-ikusitako aundia den, azpitik...

MALEN: Bañan gezurra dirudi Xabier ain azkar bere onetara etorria...

AMA: Bai, ongi jartzen ari den, bañan oraindik ere... zango ori bear bezela sendatzeko alditxo bat bearko din... gaztea den ta...

MALEN: Jainkoak ekarri zuan etxe ontara... Nola diran gauzak...! orain bere naitasunik gabe ezin biziko nitzake...

AMA: Ba... sendatzen ari dan bezela, berak emendik alde egiteko ordua bertarutzen ari dala gauza jakiña den... Ori dagon bezela emen luzaro ezin egongo den... gogoan euki zan...

MALEN: ... Iesus!... bai ala da bai... Egun oek guztietan beste gauzik buruan ez det... Egun ura neretzat zer izango da...? Orain emendik joan bearrean arkitzen ba da ere, berak esaten dit, laxter nere billa berriz etorriko dala eta orduan bilduko gerala betirako...

AMA: Bai, bañan... berriz ori etortzea noiz izango ote den... Jainkoak zekin...

MALEN: Ez, ez... etorriko da... berak itz eman dit...

AMA: Bai, bai, itz eman din eta etorriko den, ori ziur ba zekiñat, gizon zuzentzaz zeukanat... Bañan gudan dabillega ez den aztu bear... ori bere aldekotara joaten danean... nola etorri liteken ez zekiñat...

MALEN: ... Guda txar au ere betirako ote degu...? Au ere bein edo bein amaitu bearko da...

AMA: Bukatua ba lego obe giñiken...!

MALEN: Jainkoak lagunduko al digu... (*negar dario*)... nik beintzat nere itxaropen osoa Beregan jarria daukat... Berak ekarri zuan onera, berak gure alkar-naitasun au sortu arazi du... eta agertzen diran eragozpen guztiak berak garaitu araziko dizkigu...

AMA: ... Ongi esaten den... Goikoarentzat eziñik ez zegon... Arrek nai ba din gauza guztik erreztuko ditun... Lenbizi beintzat Xabier, sendatu arte, iñork salatu gabe emen ongi egon dedilla, Jainkoa-ri eskatu bear zuanan...

MALEN: Bai, orixe eskatzen diot nik beti...

AMA: ... Kaleko ume zital aiek Xabier-en emengo egoera ikasiko ba liteken... zer gertatu litekean... ez diñat gogoratu nai...

MALEN: Iesus!... ez zazula aitatu ere... ez al dute jakingo...!

AMA: Bildur bear... Bada-ezbada Xabier inguru oietan gutxiago agertzea ona izango uke...

(Ontan, barrengo bidean goitik-bera, erri aldera bezela, tanpa-tanpa, Pello-Kirten igarotzen da. Lanean ari diran ama-alabei agur otz bat besterik ez diote egiten. Biak arriturik eta izututa gelditu dira... arreatatik edozer kalte ta

txarkeri etorri lezaiotekela bat-batean ongi uler-tu dute).

AMA: ... Iesus!... ikusten al den... ikusten al den...? zer adituko duan, zer ikusiko duan, ori beti emen inguruan zebillen... orren bildurra zeukanat...

MALEN: Bai, ni ere orrek bildurtzen nau... Iesus!... ez al du jakingo...!

AMA: Ori?... ona den... onezkero ez ba zekin...! ori, zer gauza berri ikasiko duan katu zarra bezela baztar guztiak usantzen ibiltzen den beti... gero gañera ire gauza uraezkero gutzaz oso asarretua bai zegon...

MALEN: Eta zer nai zuan orrek, ori bezelako gizon gaizto bati baiezkoa ematea...? eta ergel orren emazte izan...? ezta ezerengatik ere... dijo-ala nai duan tokira bere ondasun guztiakin...

AMA: Guk egin bear deguna den bada-ez-bada aurretik gure erabakiak artu...

MALEN: Bai, Xabier-i esan bear diot...

(Nor bait datorrela sumatzen dute eta biak ernai jartzen dira bildurrez... Bañan Xanti jauna, sendakin gaztea agertzen zaiote, beti bezela

bere zizpaz eta eizeko itxuran dator... ura ikusitakoan lasatzen dira...).

AMA: Ara!... zu al ziñan...? Iesus!

XANTI: Agur, etxeakoak! Oso estu zaudetela iruditzen zait. Zer gertatzen zaizute?

MALEN: Gertatu ezer ez... bañan bildurrez gaude... oraintxen bertan izketan ari giñan... ta...

AMA: Bai, Xabier-en arraxkoak bildurtzen gaitu... etxean izkutuan nola euki degun iñork baño obetogo zuk dakizu...

XANTI: Bai... ta ongi euki ere...

AMA: Orain, sendatzen ari dan bezela itzuli txiki batzuk egitera inguruko barruti oietara ta irtetzen asi da, eta norbaitek ikusi, emen nola dagon jakin, eta salatzeraz joango ote dan, gero ta bildur geiago degu...

MALEN: Eta olako gauza bat gertatuko balitz... ene!

XANTI: Bai, kaleko aiek jakinezkero bera garbituko luteke noski... Eta zuek... ta ni ere, gaizki ibiliko giñakela uste det...

MALEN: ... Arantzazuko Ama...!

AMA: Xabier-ek berak arraxkorik ez bai du ikusten... Orain berean Aitona ta bera mendira joan dirala bi ordu ba dira eta ez dira agiri...

XANTI: Ba, Aitonak inguru oietako berri ba daki ongi, eta bear ez duan tokira ez zuan eramango...

AMA: Ez... ala esan liteke... emen urruti gabe toki ezkutua ba dira bai... Bañan arakoan ta onuzkoan? Ikusi gabe igarotzea ez da ain erreza izango...

MALEN: Orrengatik illunabartu arte egongo dira...

AMA: Gero, emen auzoko gizon txar batez bildurtzen naiz, lenago ere esan nizun,... Pello, erdi-txoro ori, Malen-en ondoren nola ibilli dan ba dakizu,... ta oso mindua egon bear du,... agidanean...

XANTI: Bai, gauz oiek txarren-txarrenak izaten dira... Bañan ezer ez igartzea ere ba liteke... Oraintxe bidean bera arkitu det, erri aldera zijotan...

MALEN: Emendik joan da... ikusi gaitu eta ozta-ozta agur egin digu... Zu onuntza zatozela ikusi ta zerbait nabaituko zuan onenean...

XANTI: Ez,... ni erritik zuzenean ez bai nator, mendira beste aldetik irten naiz eta itzuli aundia egiñik, eizean ba netorke bezela, iru ordu oietan nabil eta or beko bidegurutzean alkarrekin egon da gero Pello-k uste du sakonera, ango sasi sastrokak miaztera, sartu naizela...

MALEN: A!... obe da ala... Zuk, dakienak bezela egiten dituzu gauz oek...

XANTI: Ba dakizu... olako gauzetan oitura pixka bat ba det... Orain, eizera gutxietan irtezen naiz eta aitzeki bezela ere eiza ezin beti artu nezake... zizpakin ibiltzea debekatua da, ortan aginde estuak dira... guda bizian bai gera... Bañan alaz guztiz, nik nai nuken bezin maiz ez izanarren, batzuetan ibiltzen naiz... ortako gaude erri txiki batean...

AMA: Eta, gañera, erriko sendakiña izatea ere ba da zerbait...

XANTI: Bai.... ala bear luke bañan... ez dakit... ez dakit... Ni oso bere aldekoa ez ote naizen sumatzen dute noski,... eta...

MALEN: Gure aita ere oso eiztaria degu... bi zizpa ba ditu... gordeta...

AMA: Bat beintzat aizken-aldera erosia, oso ederra dala uste det, nere senarra bere arrekin pozik zan beintzat bañan orain bi izkilluak eta bere su-gai-zorroak jasoak daude, gure Txomin-ek arkituko ez dituan tokian,... Mutil onek, aitar-aren antzera eizerako zaletasun izugarria dakar... aitarekin ibilli izan da... eta nun dauden igarriko ba lu...

MALEN: Zer uste dezu, onezkero ez dakiela...? ona da bera gauz oek ez asmatzeko...

XANTI: Bai, erriko gizonen artean AntonMari-k eiztari onaren izena du... eta aek nun dituzute...? orain ere lanean ariko dira...

AMA: Aita seme-alabakin Zelai aundiko gaine-tara, orbeletara joanak dira... Laxter etorri bear-ko dute... aurki illuna da ta...

XANTI: Illunabarragatik baño geiago odei beltz oiengatik illuntzen du... turmoia dator... oso bertaratzen ari da... ta... bereala...

AMA: Gaurko egoaize epel arrek ez zuan beste gauzik ekarri bear...

MALEN: Iesus!... eta Xabier ta Aitona noraño joan ote dira...! Ea turmoiak mendi-mendian arrapatzen dituan...

XANTI: Ta... Malentxo... biotzeko lan ori nola dijoa... maitetasunean gogor...?

MALEN: Bai, jauna, bai... nik asko maite det... eta berak ere benetan maite nauala iruditzen zait...

AMA: Oiek pozik dira... gazteen gauzak... alkarrenak izatea beste zaletasunik ez dute...

XANTI: Ala bear du, noski... Xabier-ekin aizkeneko aldiz egon nitzanean zure aldeko maitetasun aundia agertu ziran... arrentzat munduan zu besterik ez da... oso txoratua daukazu...

MALEN: Nik ere asko ta asko maite det, bereganako biotz-mugirak oso mendean artua nauka...

AMA: Gañera, emen gertatzen dan bezela, eragozpen aundien bat tartean sortzen danean maitetasuna gogorragoa, indartsuagoa eta sakonagoa izaten dala esaten dute...

XANTI: Bai, ala da, errez-errez datozenean, gauz oek ainbesteko garrantzirik ez dute izaten... Nekeak eta oñazeak maitetasuna sendotzen dute...; Ba... eragozpenak ere garaituko dira... guda-zalapartaren ondoren pake-aldia

etorriko da... eta orduan oraingo aldapara izugarriak zelai-zelai agertuko zaizkizute...

AMA: A! Jainkoak nai dezala ala izatea... Etxeko guztiak Xabier biziki maite degu eta gaur edo biar gure semetzat artzea, gutzat zorionik aundiena izango litzake...

XANTI: Bai, mutil ona ta bikaña da...

AMA: Gu baserritar gizarajo batzuek gera... gu baño askoz goragoko mallakoa dala ba daki-gu; gizon ongi eskolatua, jakintsua da...

XANTI: Ba, ba... maitetasunarentzat orrek ez du ezer esan nai... gañera, euskaldunen artean ez goiko ta ez beko mallik ez dala Xabier-ek ba daki... eta mallik izateezkerotan, zuek, baserritarrak goi-goikoak zeratela... gure jatorriko gauzak iñork baño garbiago ta sendoago dituzuelako... eta euskaldun zintzo, zerbait dakien batentzat ortan dago egiazko aberastasuna, ori da lenengo malla...

MALEN: Bai, gauz oek berak Xabier-ek esan dizkit neri... egiazko euskaldun izateak zer goitasuna ematen digun guri, baserritarrei ongi erakutsi dit...

(Aitona ta Xabier etxe-aldera ba datoz; Aitzondo-inguruko bazter guztiak aitonak ongi dakizki eta mendira ibil-aldi bat egitera dijoazenean, auzokoak oartu ez ditezen, Xabier toki izkutuetatik eramaten du.

Pozik eta alaitsu dira, artsaldea mendi-mendean ongi igaro dute bañan gero, goibel jarri danean, turmoiak jo baño len laxterka datoz.

Egoaizeak bere ondoren sarrietan ekaitza ta erasoak ekartzen ditu; orain ere eguraldiak mutur beltza jarri du eta euri-jasaen bat etorri liteke.

Etxera irixten diranean, Xanti, sendakin gaztea an arkitzeak poztutzen ditu; ba ziran egun batzuk agertu ez zala. Olako gizon zintzo, atsegiñakin izketa alditxo bat egitea biziro gauz pozgarria da.

Bañan gaur, itxuraz datorren ekaitzak ez arrapatzeko laxter mugitu bear; ala ere etxeraño bide luzea du eta busti gabe ez da iritxiko noski. Ba! gaztea da ta pixka bat bustita ere ez dio ajola aundirik izango.

Gañera, egoaize ondorengo turmoi-aldi oek itxura asko, ots eta zalaparta, eta askotan jasa aundirik bota gabe igarotzen dira. Bat-batean

sartzen dan eraso zakarra, berealaxe atertu ta gelditzen da, neguko euri-aldi luzeak bezela ez da izaten.

Aurki illuna da, turmoi ta tximixta batzuek asi dira; ia Abenduan sartzera goaz eta eguna oso laburra da; illunabarrak ekaitz itxura zearo artu du.

Etxe-aurrean jostun-lanean ari diranak, zarra ta gaztea urbil ba datozela bereala nabaitu dute).

AMA: Ara! norbait ba dator, ez al dezute entzuten...?

MALEN: A! bai, goiko sastrakan norbait ba dabil... zein ote da...

XANTI: Aitona ta Xabier izango dira...

AMA: Ba liteke... bañan... ez dakit bada...

MALEN: Bildur naiz...

AMA: A! bai... emen dira, arrazoi zendun... Etxaburuko sasitartetik, iñork ikusi gabe, ederki datoz...

(Aitona ta Xabier ezker-aldeko sasi-bastarretik agertzen dira; Xabier errenka bere esku-makillakin).

MALEN: ... Iesus!...

XABIER: Agur, guztiei... kaxo Xanti-jauna, zu ikusteak poztutzen nau...

XANTI: Baita ni ere... zu gizon berria zerala ikusten det... egun gutxietan asko egin zera... zorionak... eta gure Aitonak zer dio...?

AITONA: Ongi nabil, sendakin jauna, ongi eta pozik, gure Xabier onekin ezin gaizki izan liteke, kidekoak ba giña bezela ederki moldatzen gera...

XABIER: Malentxo...! Ama-alabak artsaldea ongi igaro al dezute?

MALEN: Bai, oso ederki...

AMA: Pake-pakean gure josketa-lanean ementxen egon gera...

AITONA: Eta besteak, oraindik ez al dira azaldu...? Laxter ez ba dira etortzen ez dakit ez ote diran bustiko...

XANTI: Orren azkar euria asiko duanik ez det uste...

XABIER: Ez, tximist-turmoiak urruti-xamarrekoak dira; oraindik etxeraño etortzeko beta emango diotela iruditzen zait.

AMA: Jainkoak nai dezala... mendian gurdia-kin nai bezin laxter ibiltzerik ez da ta...

XABIER: Ez, ala da... beien ibilleran etorri bear...

MALEN: *(Etxean sartu ta atera bere eginkizunetan dabil)*. Ez al dezute etxean sartu nai ateaurrean egon gabe...?

AITONA: Ez, ez, orain bezela euririk asten ez duan artean emen ongi gaude, giro ona dago...

XANTI: Eta ni etxe-aldera asi bearrean naiz... euria asi baño lenago joango ba nitzake...

AITONA: Ta alditxo batean, ekaitza joan arte emen egotea ez al zenduke ohea izango...?

XANTI: Ez, berandutu egingo zait... bidean baserriak ere ba ditut eta euri-jasak arrapatuko ba nindu aterpea laxter arkituko det...

AMA: Bai, eta gañera gaztea zera... eta gazteak gauz oik errez eramaten ditu...

XANTI: Eta, Xabier... oso ederki zabilta noski...

XABIER: Bai, nere soña ongi arkitzen det... zango au oraindik...

XANTI: Zer dezu... indar gutxi...? Bañan oña-zerik izaten al dezu...?

XABIER: Oñaze aundirik ez, bañan asko ibiltzen naizenean gabeen zangoa txingurritu bezela egiten zait...

XANTI: Ba... bat-batean geiegi ibiltzen asi zera ta... zuk bereala sendatu nai dezu, bañan orrek ere bere aldia bear du...

AMA: Olako mutil gaztea geldirik nola eukiko dezute...

XANTI: Etorriko da, etorriko da... obeto esateko, ba dator, ta ongi dator... nik esandako gauzak egiten jarraitu zazute... batez ere, zango guztiari nik esan bezela igurtziak eman... asi laxa-laxa eta gero ta indartsuago ekin... e...

XABIER: Bai, egiten ditugu...

AMA: Neronek ematen dizkat... bero-aldi ederak artzen ditu.

XANTI: Bada jarraitu dezazute ortan... apurtxo bat ibiltzea ona da, bañan asieratik ez geiegi... bere atsedena ere bear du... berealaxe ederki jarriko zera...

XABIER: Orixe nai nuke bada...

MALEN: Zertarako...? bereala alde-egiteko asmotan jartzeko...?

XANTI: ... Jaunak... ni ba noa... turmoiak gero ta bertarago entzuten dira eta ekaitza bete-betean sartu baño len ea etxera irixten naizen...

AITONA: Bai, ankazañak onak dituzu ta goitik-bera laxter joango zera...

XANTI: Agur bada, ongi izan zaitezte, eta egun gutxi-barru emen naiz berriz... eta etxeko besteei nere gorantziak...

AMA: Agur, zoaz ondotxo...

XABIER: Agur, eta eskerrik asko... (*laguntzen dio*)... zuk nigatik egiten dituzun guztiak nola ordaindu bear dizkizuten ez dakit...

XANTI: (*Dijoala*)... Ba, ba, ez ortaz gogoratu... agur guztioi, agur...

GUZTIAK: Agur, agur, ongi joan...

XABIER: (*Barreneraño lagundu ta biurtuaz*)... An dijoa laxterka...

AMA: Nai dezutena esango dezute bañan ni ez nago lasa... ekaitza gañean degu eta gure etxeko oek oraindik agiri ez dira... eta ia illuna da...

XABIER: Bañan ez dezu estutu bear... etorriko dira bai... laxter emen dira...

AITONA: Gañera, bat bezela ere, iru ba dira eta sendoak berak...

MALEN: Bai, ezer gertatuko zaiotenik ez det uste... Bakarrik, itxura jartzen duan bezela, euri-jasaen bat asiko ba litz bustiko lirakela... ori bai...

(Tximist-turmoiak aldiz-aldiz eta gero ta bertarago dira).

XABIER: Oraindik asiko duanik ez zait iruditzen... etxeraño etortzeko aterraldia izango dute...

AMA: Jainkoak nai dezala...

MALEN: Tximixtaren kontrako argizaria piztuzera noa...

AMA: Bai, eta Arantzazu-ko Ama-ren irudiaurrean jarri zan... arretzek bere eskutik euki gaitzala...

AITONA: *(Xabier-i)* Zu ere onezkero nekatua izango zera ta exeri zaitea ortxe...

XABIER: Bai, gogo onez exeriko naiz...

AMA: Eta ainbeste ibillita, egarrituak izango zerate... zerbait erango dezute...

AITONA: Bai, bai, ez naiz egar-bera bañan txarro bat sagardo ekartzen ba dezu gogoz erango degu, ez da ala, Xabier...?

XABIER: Bai, ala da, ni ere edale motxa naiz bañan oraintxe ongi etorriko zait...

AMA: (*Etxebarrenen dabillen Malen-i*) Gizon oientzat sagardo pixka bat ekarri zan... nik aparria prestatu bear det. Noan sukaldera... menditik datozen aiek gose ona ekarriko dute... (*etxebarrrura ba dijoa*).

AITONA: Ekaitz-soñu aundiak dira bañan euri aundirik ez dala izango iruditzen zait...

XABIER: Obe ala ba litz... bidean datozenak etxeratu arte bederen ateri izan dedilla... Gero nai ba du egin dezala...

AITONA: Bai, ala da... bañan euria egitekotan onezkero asia bear lukela esan liteke... aurki emen izango dirala uste det...

MALEN: (*Txarro-sagardoa eta bi edontzi dakartzki*) Ara sagardo ederra eztarria leguntzeko... artsaldeko ibilaldiaz naiko berotuak izango zerate ta... Bañan emen etxeaurrean bear al dezute...? Turmoi ta tximistak ez al zaituzte bidurtzen...?

AITONA: Ba, ba... ateri dan bitartean atsegin da emen...

XABIER: Gure ibillian ez gera ba asko berotu... e...

AITONA: Ez, bañan ibilliak erateko gogoia beti ematen du... eran dezagun... (*eraten dute*).

XABIER: ... Ederra dago...

AITONA: ... Bai, ongi sartzen da...

XABIER: Malentxo...! zu bildurrez zaudela iruditzen zait...

MALEN: Bai, Xabier... ekaitzak edo zerbaitek bildurra ematen dit... beste aiek ere etorriak ba lira naiago nuke...

XABIER: (*Txutik jartzen da eta Malen bereganatuaz*)... Ez dezu bildurrik izan bear, Malentxo... atoz, atoz... nerekin...

(*Biak alkartuta, beren artean izketan, barrenaldera dijoaz. Aitonak pozik begiratzen diote; pipa atera ta ke-belarrez beteta erretzen asten da. Gero Ama sukaldeko leiotik asten zaio*).

AMA: Zer...? bakarrik utzi al zaitute...? A! gazte oek...

AITONA: Zer nai dezu? zu ta ni ere gazteak izanak gera ta... beste ainbeste eraman bear zaiote... Oek ola ikusita ni pozik arkitzen naiz...

AMA: Bai, zenbait bide txarretan ikustea baño ohea da... Ara! eltzea irakiten gañezka daukat... (*sartzen da leiotik*).

AITONA: Begira zaiozu eltzeari... ia aparirik gabe uzten gaituzun...

AMA: (*Berriz agertuaz*)... Ez, ez, ez zan ezer... (*tximixta aundiago bat, gero turmoia*)... Iesus...! (*Aitaren egiñaz*) tximixta oiek oso bildurtzen naute... etxebarrunbean obeto ez al ziñateke egongo...?

AITONA: Malen ere tximixtak oso bildurtzen dute, bañan orain ez da asko gogoratzen...

AMA: Zer nai dezu...? esan oi dan bezela «Gogoko tokian aldaparik ez»...

AITONA: Ala da bai... ongi gero...

AMA: Gure jende oietzaz luze iritxita nago...

AITONA: Berealaxe agertuko dira...

AMA: ... Ara...! tantoak asi dirala uste det...

AITONA: Ez, oraindik ez det batere sumatzen...

AMA: Oso urruti izango dira oraindik... gurdia-
ren otsa ez da aditzen... Zelai-aundiko alde orta-
tik diranean etxera iritxi baño ordu-laurden
batez aurretik kurpil-otsa garbi entzuten da...

AITONA: Zer! Kurkil-otsari begira al zaude... Ez
al dezu ikusi etxetik irten baño lenago Anton-
Mari bera kurpil-ardatzari koipea ematen aritu
dala...

AMA: A!... ori ez nekien...

AITONA: Orduan kurpil-otsa nola adituko dezu
bada...?

AMA: Ez, ez, ala da...

AITONA: ... Orrengatik, otsik eta ezer entzun
gabe noiz-nai emen dituzu...

AMA: Urrutiko barruti oietara joaten diranean
beti ola gera... berak berandu... eta gu beti kez-
ketan...

AITONA: Zer nai dezu bada...? Bein araño joa-
nezkerok al dan guztia ekarri nai izaten da ta...
berandutu...

AMA: Esaten diot ba nik goizago joateko...
bañan...

AITONA: Mendiko ibillerak eta lanak ezin neur-tu litezke... Gañera orren berandu dala al deriz-kiozu...? oraindik ez du illundu ta...

AMA: Bai, ori ala da bañan ekaitz onek geiena bildurtu arazten nau...

AITONA: Eta aek alperkerian jarrita daudela uste al dezu...? Berak ere ekaitza nola datorren ikusten dute bai... dauden tokian ez dira lasai ez... ondo bustitzeko etsita izango ziran bai gaur...

(Ontan etxeordeko aldamenetik itxumustuan ta zalapartan Txomin, mutiko azkarra, sartzen zaiote; laxterka etorri da eta asnas estua dakar).

AMA: Txomin! motell, nola ator, nundik sortu aiz...?

AITONA: Bejondeikala!... zer egin dek... beti egiten deken bezela aurreratu ta laxterka eto- rri...

TXOMIN: Bai, jauna... laxter-bidetik bereala etorri naiz ni... Aita ta Joxpantoni gurdiakin ba datoz... bereala emen dira...

(Malen ta Xabier zerbait entzun da ba datoz).

MALEN: Emen al dira...?

AMA: Bai, bat etorri da beintzat eta besteak ere bertan dira noski... Jainkoari eskerrak.

XABIER: Eta ongi ibilli al zerate...?

TXOMIN: Bai, ederki ibilli gera... bañan lan asko zan ta berandutu.

MALEN: Zuek mendira joaten zeratenean beti orrela gaituk... etorrera beti berandu...

TXOMIN: Gu baño lasago ziñaten... ez zenuen gure nekerik... euri-jasaen bat bizkarrean artzeko arraxkorik ere ez... Aparia gertu al dago...?

MALEN: Bai, motell, bai... goseak al ator...?

TXOMIN: Oraintxe beia ere bere adar ta guzti jango nuke...

AMA: Ta busti gabe zatoztenean ez dek ezer...

XABIER: Aldi batean, izugarrizko jasaen bat artu bear zendutela uste giñian...

AITONA: Oa... oa... oñetakoak aldatzera...

TXOMIN: Bai, ba noa, besteak etortzerako prestatu bear naiz...

AMA: Iesus! Iesus!... ola, busti gabe, datoztenean ez naiz asarre, aldi batean ez nuen uste... lañoen mutur beltzari begiratuta iñork ez zuen esango...

AITONA: Besteak ere bertan dira oraintxe...

MALEN: Ondo nekatuak izango dira...

XABIER: Malentxo..! goazen bere bidera...

MALEN: Bai, goazen... mandioko aurrera...

(Xabier ta Malen barrenaldetik etxeari itzul eginez gurdi-zaleak datozen aldera ba dijoaz).

AITONA: Mandioko atea iriki al dezute...? eta ikullukoa...?

AMA: Ikullukoa bai, irikia da... mandiokoaren giltza Malen-ek darama...

TXOMIN: *(Etxeko atean agertuaz).* Ara... or dira... ez al dezute aditzen...?

AITONA: Bai, or dituk... Joxpantoni-ri laguntze-ra joan adi...

TXOMIN: Bai, ba noa... *(laxterka dijoa).*

(Etxearen beste aldean dan mandioko atetik gurdia nola sartzen duten aditzen da, ardalla zenbeit izaten bai da).

AMA: Auxe bada bizikera, beti lanpean eta, gauz batengatik edo bestearengatik, beti kezketan bizi bearra...!

AITONA: Zer nai dezu bada, nekazarien lanak olaxe izaten dira ta...

AMA: Bai, bai, ala da bañan...

AITONA: Ola gabiltzan bitartean ez gera gaizki, oiean gaxo dagona ez da obeto izaten...

AMA: Ez, ez... ori ere egia da... Jainkoak osasuna deigula...

(Malen ta Xabier-ekin Aita barrenaldetik bator).

AITONA: Kaxo motell, emen al zerate...? orainxe emakumeak estutzen asiak ituan...

AMA: Bai, ez negon ni oso lasa... alde batetik berandu-xamar ta bestetik turmoi-tximistak gelditu gabe...

AITA: Lan asko gendun ta... beste itzuli bat egiten ez ibiltzeagatik guztiak bildu nai ta... berandu-xamar egin zaigu bai... Gaur busti gabe etorriko giñanik ez nuen uste... batez ere tanto mardul batzuek asi diranean...

XABIER: Ongi ta legor etorri zeratenean ez da ezer...

MALEN: Orain ongi apaldu ta oea gogoz artuko dezute...

AITA: Bai, orixe bai,... ekaitzaren bildurrez laxterka ta itoka etorri gera ta nekatu-zamartua nator... gañera, gure ezurak ere gogortzen asiak dira, noski...

AITONA: Ixilik egon adi... i sasoirik onenean oraintxe ago ta...

XABIER: Ara!... tanto bat arpegira erori zait... orain asiko du euri-jasa...

AITA: Ez det uste... oraindaño egin ez duanean... onezkero egingo duanik ez zait iruditzen...

AMA: ... Aparia ateratzera noa e...

MALEN: Ara!... neri ere beste tantoa erori zait... euri-jasa orain izango da... goazen barrura...

(Joxpantoni ta Txomin etxeko-atean agertzen dira; beiak azkatu ondoren ikullutik sukaldera sartu dira).

AITONA: Ara!... Joxpantoni ere emen degu... gure neska jatorra...

JOXPANTONI: Ongi al zerate...? gu baño neke gutxigorekin, noski... bañan gu ere ez gera gaizki ibilli ez,... euri-jasaren bildurrik izan ez ba genduen...

XABIER: Aitona ta ni ere or ibilli gera mendian... itzuli polit bat egin degu... eta toki ederak ikusi ere bai...

AITONA: Bai, bai, arratsalde ederra bota degu...

AMA: (*Leiotik*) Joxpantoni... lenbaitlen abar-kak aldatu eta maierako gertu zaitezte... guztiok ere nai dezutenean etorri... aparia maiean dago... atozte... geiegi berandutu gabe apaldu dezagun...

AITA: Bai, goazen, goazen, bestela oso berandutuko zaigu...

XABIER: Goazen, bada... goazen Malentxo...

MALEN: Zoazte, zoazte,... nik tresna oek bildu bear ditut...

XABIER: Laguntzea nai al dezu...

MALEN: Ez, ez, zoaz zu ere... Txomin-ek lagunduko dit...

TXOMIN: Bai, bai, bion artean sartuko ditugu...

XABIER: Ara! beste tantoa...

AITONA: Bai, tanto aundi bakan batzuek badi-ra bañan... alako itxura zakarra jarriarren, euri asko egiteko gorrotorik ez dauka...

(Banaka-banaka etxera sartzen dira; Malen ta Txomin aizken, tresnak jasotzen gelditzen dira; lenbizi txarro ta edontziak Malen-ek biltzen ditu, gero maia ta aulkiak).

MALEN: ... Lenbizi txarro ta edontzi oiek eramaitzak... arretaz e?... autsi gabe...

TXOMIN: Ez ditut autsiko ez... zer uste dezu ergel txoroen bat naizela...

MALEN: To, bada. Eramaitzak...

(Txomin etxean sartu besterik gabe ots aundi bat entzuten da... ontziak erori zaizka eta autsi... ango ardalla..!).

AMA: *(Leiotik)* Zer zabilzate... ontziak autsi al dira? Zuentzat ainbat gauza ez diagu sortuko...

MALEN: Esan diot nik arretaz eramateko bañan...

TXOMIN: Ni arretaz nijoan bañan... sarrera ontan illun dago ta irrist egin det... ezur bat autsi ez detenean... Ederra artu det neronek...

MALEN: Tira, tira, ator... mai au, bien artean, eraman dezagun...

TXOMIN: Bai, eldu zaiozu alde artatik... *(eramaten dute).*

MALEN: Kontuz ibilli adi... ontzi-ausien zatiak oin-azpian artu gabe... *(gauza guztiak eramaten dituzte; aulki bat bakarrik utzi dute aztuta...).*

(Zearo illundu du; etxe-aurre artan iñor ez da gelditu; guztia ixiltasun aundienean arkitzen da;

tximixt izugarri ta turmoi zakar baten dunbarakoak bazter guztiak astintzen ditu.

Gero barren-barrendik Pello ixilka dator ta etxeaurrean iñor ez dagoala ikusirik bertaratzen da; sukaldeko leioak leiatillak oraindik ondo itxigabeak izanik barrengo argia ta baita sukaldean gertatzen dana ikusi diteke.

Pello pittaka-pittaka, otsik egin gabe, leioraño dator eta oso bertaratuta barrura begiratzen ari da.

Ontan exeko atea iriki eta Malen agertzen da, lenago aztuta utzi duan alxia jaso bear du...

Etxeko atea iriki danean argitasun aundia zabaldu da; Malen alxia dagon tokira zuzen-zuzen dijoala Pello-kin alkar jotzen du, bat-batean bildurtzen da, berealaxe bere onetara biurturik, ekiten dio...).

MALEN: Ama!... zer da au...? garai ontan zer abil i emen kuskusean..? zeren billa ator...? zer-bait galdu al zaik?

PELLO: Zer da, ola asteko...? ezin etorri al niteke ni onera?

MALEN: I ola ixilka, otsoa arditara sartzen dan bezela, maltzurkerian atorrenean, gauz onik ez dek izango... zital ustela...!

PELLO: Zenbat aldiz, eskean ate ondora etor-tzen dan bat bezela, zure naitasunaren eskale etorri nitzan etxe ontara, eta zure aurrean txakur zintzo baten antzera makurtu nitzan.

MALEN: I...? ixilik egon adi... i makurtu...? gu bezelako baten aurrean makurtzeko ona aiz i... ik, emazte bezela baño neskametzat artu nai niñuken... eta, bein esanezkero ez autela maite, zertako abil ondolik...

PELLO: Neri ostikada eman zidazun bañan... ikusiko degu... nerea ez zera izango... bañan ez eta or gordeta daukazuten zakur orrena ere... ondo ixilka ibili zerate bañan gauzak jakiten dira...

MALEN: Iesus... zer asmo dek...? likixkeri zikin orrek... zer esan nai dek orrekin...? i bezelako gizaseme ustelik etxe ontan ez zegok...

PELLO: Ezetz...? ori aurki ikusiko degu... likitzak zuek, gure Eliza eta xinixmen aundiaren etsaietako bat etxean euki, bertan zurikatu, eta

gañera senargaitzat artu... gure baserri garbietako neskatx batek...! zuek likitzak, zuek...

MALEN: Iesus! Iesus...! zer entzuten det..? ero nazkagarria, joan adi emendik bereala... eta nere begien aurrean ez geigo agertu... (*aulkia jasoaz ekin nai dio...*).

PELLO: Joan...? bai ba noa... Orain ikusiko dezute...

(Pello barrenaldera azkarki ba dijoa... Malen bere alkiarekin etxera laxterka sartu eta atea ixten du.

Barren-barrendik Pellok txistu egiten du eta urrutirago beste txistu batek erantzuten dio. Berriz ere tximixt-turmoi ikaragarria.

Aitak sukaldeko leiotik Pello-ri deitzen dio...).

AITA: Zer abil or...? garai ontan zer dek..?

(«Pakean usteko», «ez jaramonik egiteko», sukalde-barrendik esaten diote, bañan berak jarraitzen du...). Zergatik utzi bear diot txoro arraio orri..? adi zak i... zerbait esan bear ba dek arpegiz-arpegi neri esaiak... (*Iñork ez dio erantzuten noski*)... Zer! nere aurrera agertzeko biotzik ez al dek..? A! bildurti txoralda... joan adi...

joan obe ere ba dek... (*Sartzen da. Leioa itxi ta argia itzaltzen dute*).

(Ontan itxura-txarreko zortzi edo amar gizon barren-barrendik agertu dira, guda-gizonak, bakoitzak bere zizpa eskuetan duela geldiro datoz; ixilka, baserriari begiratzen diote.

Asmo onik ez dakarte noski; etxebarru artan arkitzen dan bat-edo-baten eske datoz.

«Txinparta» dute aintzindari; au Pello-kin dator aurrera. Bertara iritxi gabe, onek, urrunxa-marretik baserriko atea erakusten dio).

PELLO: Ara! Etxeko atea ori dek... ortik ibiltzen dituk beti.

TXINPARTA: Ondo zeok... bada-ez-bada etxeko beste aldean gelditu diran mutillei ernai egoteko esaiotek... mandioko atetik edo leioen batetik ez dezala iges egin... orain ikusiko dek gauza polita...

PELLO: Ni ba niak... ez diat emen egon nai...

TXINPARTA: Zer, bildurtu egiten al aiz...? igesi al oa...? a! aul arraiea... ondo esaten ditek bai Pello-kirten...

PELLO: Ba niak... ba niak...

TXINPARTA: Oa bada, oa... emengo garbitasuna egiteko ire bearrik ez diat... i bezelako gizon ustelak aldamenean ez izatea obe... gu bezela ibiltzeko ona ago i...!

(Pello ba dijoa laxterka; Txinparta-k bere mutillei agintzen...).

Zuek emen gelditu zaitezte, izkilluak gertu euki, begia ernai... norbait igesi irtengo ba litzake bertan bota... zuek biok nerekin ateraño aurreratuko zerate... eta gero zer egin bear dezuten nik aginduko dizutet... ez gero atzerapausorik egin, ez bildurtu... ezagunak dirala ta kupituta ez gelditu e... alako gauzen bat gertatuko ba litzake zuei zer egin bear dizueten nik ba zekiat... or daukaten zakur ori bertan lerdekatu bear diagu... tira bada, ernai egon ta bildurrik gabe...

(Mutillak ori entzun eta, ixilik, bere gudatresnak prestatzen dituzte... bere zizpa-motza eskutan arturik Txinparta bi lagunekin atzeko ateraño ba doa; eskuan dakarkin makillaz atea gogorki jo ta gero deadarka asten da...).

... Tira, tira, etxeakoak... atea iriki bereala... ez degu betik galdu nai... iriki zazute azkar... *(geldi-*

tu gabe berak makillaz eta laguntzalle batek bere izkillu-aundiaren atze-aldez atea jotzen dute)... ez al dezute iriki nai...? bereala botako degu... eta etxeari su eman ere bai... milla dea-brukin... iriki berealaxe... bestela...

AITA: *(Atea iriki gabe barrendik erantzuten dio)...* Oinbeste ixtillukin zer bear dezute...? olako ixkanbilla jarriaz iñungo etxera etortzeko garaiak oiek al dira...?

TXINPARTA: Txorakeri oiek alde batera utzi ta atea iriki zazu bereala...

AITA: Zertarako nai dezute irikitzea...? gabe-ko garai ontan etxeko atea iñori ez zaiok iriki bear...

TXINPARTA: Irikiko al dezu ala ez... or gordeta daukazuten zakur ori bear degu... zuk ez badezu iriki bear nik laxter iriki araziko det... *(len baño indartsuago jotzen du berriz).*

1. LAGUNA: Meta batetik belar pilla bat artu ta azkar etxea sutan jarriko degu...

TXINPARTA: Orren bearrik ez dek... atearen serrallari tiro bat emanaz laister irikiko dek, bai...

2. LAGUNA: Aizkenik... irikiko al dezute...?

(Zerbait egiteko asmotan pixka bat urrutiratzzen diranean bat-batean atea irikitzen da eta Xabier bera agertzen zaiote esanaz...).

XABIER: Nere billa al zatozte...? Ona, bada, ni emen... zer bear dezute...?

(Lenbizi arrituta bezela gelditu dira bañan berealaxe ekiten diote...).

TXINPARTA: Zer bear degun...? oraintxe ikusiko dek... tira mutillak, eldu oni... onera zaurituta ekarritako gure etsai zikiña, emen gordeta egon dana i aiz beraz...?

XABIER: Euskal-Erria-ren aldeko euskaldun zintzoetakoa bai, ni naiz... zikiña ez, euzkotar garbia bai...

(Eldu eta joka ta bultzaka ate-ondotik artu ta aurrera dakarte; Xabier-ek berak ere ez diote barkatzen, burrukan asten dira bañan, besteak askoz geiago izanik, menderatzen dute; ardalla bizian dabiltzala Txinparta eta bere lagunak birauak entzutekoak ez dira; barrenaldean gelditutako beste lagunak ere biltzen dira eta guztien artean mastrakatu eta lurrera botatzen dute. Xabier-ek «Gora Euzkadi»ka ekiten duenean sutan jartzen dira...).

TXINPARTA: Motellek! jarri guztik or... prestatu izkilluak... Nik esaten detenean guztiok batean berari, e...

XABIER: *(Lurretik jeiki naiean dabillega etsaiei esaten die)*. A, zer euskaldunak, zer biozdun gizonak zuek... zauritua ta ezin mugitu dan anai bat menderatzeko oinbeste lagun bildu zerate eta izkillu ta tresnaz beteta etorri...?

TXINPARTA: Jarri motellek...! txutitu gabelurrean etzanda dagon bezela... bertan lerdekatu bear diagu... bota berari!

(Ori esaten ari danerako itxumustu ta zalapartan etxeko guztiak deadarka agerizen dira eta, laxterka, lurrean eroria dagon Xabier ta bere erailleen artean sartu ta izkillukiko gizonaiekiten diote, baita zizpa-muturretik eldu ere... guziak alkarren gainka itz egiten dute).

AMA: Zer egitera zoazte? Jainkoagatik geldirik egon zaitezte...!

MALEN: Ez dezute ilko...! ori baño len guztiok erail bear gaituzute...

AITONA: Zuek baño lenago, orain zabiltzaten alderdi orren aldekoak izan giñuan gu... gu beti zer izan geran ba dakizute... artarako kemena

baldin ba dezute bota zazute,... emen gatxiok... gure biotzak emen dituzute...

TXINPARTA: Tira, tira... kendu zaitezte ortik... bestela guztiok garbituko zaituztet... alde emendik...

JOXPANTONI: Biotzik ba du bota dezala...

1. LAGUNA: Ken zaitezte... kendu azkar...

AMA: Ez, ez, ez gera kenduko... gu bizi geran artean ez dezute erailko...

2. LAGUNA: Zer uste dezute, zuei begira egongo generala...? Kendu, kendu, zoazte ortik, bestela...

MALEN: Edozer gauza egiten ba dezute ere... ez gera joango...

TXINPARTA: Mutillak! zer egiten dezute... prestatu izkilluak...!

AITA: I, Txinparta, nere seme zarrena zuekin gudara eraman uana eorri ez al itzan izan?... irekin batean nola joan zan aztu al zaik?... eta gudan asi ta zuek baño ausarditasun geiagorekin sutan ta arraxko tokietan zebillela erori ta bere bizitza eman zuala ez al aiz gogoratzen...?

TXINPARTA: Ara zer gauza ateratzen dezun orain... zuen ateraldiak entzuteko ez nago... alde ortikan...!

AITA: Orduan seme bat eramán iaken... ta orain bestea kendu nai dirak...? ez, au ez dek eramango...!

TXINPARTA: Kendu zaitezte... bestela guztiok bertan garbituko zaituztet...

AITA: Ez, bigarren semea ez dirak kenduko...

3. LAGUNA: Zer! Krixtau-legearen etsai, zakur ori, zure semea dala...?

JOXPANTONI: I baño krixtau ohea eta euskaldun zintzoagoa dek.

AITA: Bai, nere semea dek...

(Izkillu-ondoaz joka asten dira; orduan guztiak deadarka Txinparta eta bere lagunei billaukeri aundienak esaten diozkate; Aitonak bati zizpa-muturretik eltzen dio eta biak indarka asten dira...).

AITONA: Ez, ez diat utziko,... larogei une ba dizkiat bañan i bezelako kaleume ustel bat menderatzeko ainbat kemen ba diat oraindik...

4. LAGUNA: Geldirik egon zaitea... zerorri botako dizut, e...

(Era-batera guztiok itz egiten dute eta alkarri ekin ere bai).

AMA: Likixkeri zikiñak...! lenago maltzurkerian seme bat kendu, era orain, pakean gaude-nean, bestea garbitu nai dezute!

JOXPANTONI: Orrelako ausartak ba zerate guda ari dan tokira zoazte... emen ez dek burrukarik, emen iñori kalterik ez zaiok egiten...

MALEN: Gu bizirik gauden artean ez dezute ilko...

TXINPARTA: Kendu, kendu ortik... alde... alde...! oraintxe gogobetetu nazute... ez det geiago ezeri begiratuko e...!

1. LAGUNA: Naikoa eraman dizutegu... eta bukatu bear degu...!

2. LAGUNA: Izkilluk eskuetan euki eta zeri begira gatzio...? motellek, amaitu dezagun lenbailen...

AITA: Zoazte Jainkoarekin eta utzi gaitzazute pakean...

(Xabier lurretik txutitu da eta deadarka ekiten du).

XABIER: Ni erail bear ba naute Euzkadi-ren alde nere odola emateko gertu naiz... bota dezatela...

MALEN: *(Bertaratu ta eltzen dio)*... Ez Xabier, ez... zuk il bear ba dezu nik ere bai zurekin...

XABIER: Malentxo, agur... nere biziak ez du oinbeste balio... nere odolez ain egarri ba dira, artu dezatela...

MALEN: Ez, ez, Xabier... ni zurekin... *(negarrez)*.

XABIER: Nigatik zuek kalte, izugarrien bat izatea ez det nai...

AITONA: Ez, arraioa...!

(Etxeko guztiak Xabier inguratzen dute berriz. Zizpa-dutenak eldu ta indarrez Xabier-engandik kendu arazi nai dituzte. Ez dituzte tiroz bota nai, bañan baserritarrak sendo ta indartsuak izanik amorerik ez dute ematen eta burrukan asten dira... nork aek indarrez menderatu...? burrukarekin batera alkarri izugarriak esaten diozkate... ixkanbilla ikaragarria da...).

TXINPARTA: *(Aitari)* Bañan zeñen alde ari zera-ten bai al dakizute?

AITA: Bai, ori zein dan ongi zekiagu... orrengatik bere alde bizia ere emango diagu bear bada...!

TXINPARTA: Ori gure etsai gaizto bat besterik ez da ta bertan erail bear degu...

AITA: Ez, gezurra dek ori, mutil on bat dek eta gure etxean ik eorrek in eraman uan nere seme zanaren ordezkoa...

TXINPARTA: Zuek olakoak ziñatenik ez nuan xinixtuko... zuek gure aldekoak izan zerate beti... zer aldaketa da au...?

AITONA: Gu ez gaituk aldatu... gu lengoak gaituk... zuek aldatu zerate... gu gazteak giñanean zuek bezelakoak ez giñuan.

TXINPARTA: Bada, gu orren eske etorri gera eta gure eginkizuna bete gabe ez gera berriz itzuliko... gutxienaz gurekin eraman bear degu...

AMA: Ez dezute botako... eta eramango ere...

3. LAGUNA: Ezetz?... ikusiko degu ori...

JOXPANTONI: Lenago guztiok erail bearko gaituzute... (*burrukan*).

TXINPARTA: Nor zeraten jakin da kalterik ez nizuten egin nai... bañan oraintxe nazkatua nago, ta... kentzen ez ba zerate... onez-onean

gure etsai ori ez ba didazute eman bear zuei botatzeko agintzera noa nere mutillei...

AITA: Egin zak nai dekena... bañan zer egiten deken eorrek igarriko diok... ire gain ere txamalda izugarria etorri litekek... ire agintarien artean guk ere ongi nai diguten adixkide ta laguntzalle onak ba dizkiagu... e!

(Ontan bi su-tunpa edo tiro-ots entzuten dira; izkillu dutenak arriturik alkarri begira unetxo batean gelditu eta tunpa-otsak izan diran aldera jaramon egiten dute... Berriz tunpa-otsak eta berealaxe besteak... Txinparta, aitaren aizkene-ko itzez ezpaz jarria ba zan oraingo zizpa-otsak kezketan sartzen dute... berriz ere tunpa ta tunpa...).

TXINPARTA: E?... zer da ori... Guretakoak or geldituak al dira?

1. LAGUNA: Ez, gutakorik ez da or gelditu...

2. LAGUNA: Oek gaikaldetik dira... *(tunpa ta tunpa berriz).*

3. LAGUNA: Beste oek bertarago ziran...

TXINPARTA: Ba diagu zerbait...!

(Etxekoak, Xabier-en inguruan estu-estu bilduta ixilik daude... tunpak gero ta bertarago entzuten dira...).

4. LAGUNA: Zer ote dan ikusi bearko degu...

2. LAGUNA: Gauz onik ez...!

TXINPARTA: Bai, ikusi zagun...

3. LAGUNA: Bañan etsaiak oneraño etorri al litezke...?

TXINPARTA: Nun dabiltzan zeñek zekik...?

(Tunpa-otsak gelditu gabe ari dira. Zizpakikoak lenbizi bat edo beste, gero geiago, ta aizkenik guztiak barrenaldera ba dijoaz, aizkenekoak laxterka. Bi esku-argi antxe lurrean utzi dituzte... etxekoak arriturik daude eta ixil-antzean alkarri ala diote...).

AMA: Ikusten al dezute...? zer da au...?

MALEN: ...Bai, Jainkoa gutzaz errukitu ote da...? Iesus!

AITA: Gauz arrigarria da au beintzat...

JOXPANTONI: Bai, zakur amorratuak bezela zeuden garaiean...

AITONA: Um! geiegi ez poztu oraindik... berriz etorri litezke e... eta erabaki zorrotzen bat artze-

ko ordua oraintxen da, e... Xabier-ek izkutatu bear luke...

AITA: Bai, bañan lenbizi tunpa-ots oiek zer diran jakin bear genduke... eta beste oiek zer egin duten ikusi dezagun ia bertan gelditu diran edo zearo alde egin ote duten...

XABIER: (*Biotz-ukituta*) Nigatik zuei kalterik etortzea ez nuke nai eta alde egitea onena izango da...

AITA: Itxo egin zazute... nik etxe-inguruak bereala miatuko ditut (*barrenaldera ba doa, Joxpantoni ondoren dijoakio*).

MALEN: Iesus! au gertaera... (*negarrez*)... (*Tunpa-otsak ba dira oraindik*).

AMA: Xabier...! (*besarkatzen du*)... au ere ikusi bear gendun... bizirik nola zauden ez dakit... Arantzazu-ko Amak lagundu digu... bera-ri eskerrak...

XABIER: Ama, Malentxo... bigarren aldiz bizia zor dizutet... nigatik egin dezutena bizi guztian ere ez dizutet ordainduko...

AMA: Ixilik zaude, guk baño aldi okerragoa izan dezu zuk eta...

XABIER: Bai, oraingoan bizia galtzen nuala etsita nitzan...!

MALEN: Ene...! zer arraxkoan izan geran... tunpa-ots oiei eskerrak... bestela...

XABIER: Eta Txomin nun da...?

AMA: Baztarren batean or egongo da bildurrez...

MALEN: Arritzekoa da ba... bera nor dan jakitaz...

AMA: Ez ote du gero iges egin...

JOXPANTONI: *(Barrenaldetik pozik dator)*... or ezer ez da agiri... nere ustez oso joanak dira... au poza...

MALEN: Iesus! ori ala izan dedilla...

AMA: Eta Aita nun degu...?

JOXPANTONI: Zearo alde egin duten ongi jakiteagatik aurrerago joan da...

AITONA: Ikusi al dezute zer gizonak... zitalondo, bildurti oiek gure artekoak, euskaldunak dirala esatea ere...!

XABIER: Bai, ala da, euskaldun batzuk, gure jatorri berekoak, gizon gaizkille oek izatea, ezin xinixtu liteke... negargarria da...!

AITONA: Tunpa-otsak aditu dituztenean nola iges egin duten...

XABIER: Bai... kale-ume ustelak bai dira...

AITONA: Batzuen-batzuk aurrera sartu ez ba dira...

XABIER: Ba liteke, bai...

MALEN: Guri naiko on egin digute beintzat...
(Aita barrenaldetik ba dator).

JOXPANTONI: Ara! Aita ere emen degu...

AMA: Ta... zer da... nun dira...?

AITA: Joan dira, joan dira... or ez da ezer nabaitzen... bidean bera naiko jetxi naiz ta zantzurik ez da... onezkero errira ba dijoaz laxterka... tunpa-otsaz zearo bildurtu dira...

Orain ongi ikusten da, ekaitza igaro danean zerua ederki garbitu du gau-giro argia dago, illargi ederra aurki agertuko da... eta tunpa-otsaiek zeñenak ote, ziran...?

XABIER: Orixe bera esaten ari giñan orain-txe... ori da gauza arrigarria...

(Ontan ezker-aldeko sasi baztar batean zarrata da, norbait ba dabil an... ura aditzen dutenean guztiak ara begira jarri eta bildur-mugira egiten dute...).

AMA: Aditzen al dezute...?

MALEN: Bai, or zerbait ba dabil... berriz emen ote ditugu...?

JOXPANTONI: Iesus! ez dezazutela esan... ene bada... (*Xabier-i*) zu izkutatu zaite beintzat...

XABIER: Aietakoen bat gelditu ote da...?

AITA: Ez det uste... pixtien bat ez ba da...

AITONA: Laister ikusiko degu ori...

(Aitona ara aldera asten danean, ezker aldeko sasi tartetik agertzen zaiote Txomin, bere zizpa sorbaldatik zintzilika duala, alai ta jator, bere egintzaz pozik, garaile. Guziak arriturik gelditzen dira, gertatu dana orduan ulertzen dute eta, besarka ta musu, mutiko bizkorra guzien artean jan bear dute).

MALEN: Txomin...! bañan i al itzan...? zer egin dek...?

JOXPANTONI: Eta zizparekin...? zer abil...?

AITONA: Bañan su-tunpak ik bota. al dituk...?

TXOMIN: Noski... zeñek botako zitun bada... ?

AITA: Bejondeikela, motell...! i aiz gizona...

XABIER: Iri eskerrak bizirik natxiok... (*besarkatzen du*) bizia zor diat...

AMA: Txomin... nere semea... bañan olako gauz bat egitea nola bururatu zaik...

TXOMIN: Zer bada...? ni txoroen bat naizela uste al zenduten...?

(Malen ta Joxpantoni-k musu ta estutuak ematen diozkate).

AITONA: Bañan Txomin, zer egin deken bai al dakik...?

TXOMIN: Jakingo ez det bada...? Gizon txar zeken oien tankera ikusi ta... gero Xabier artu ta mastrakatu nai zutenean begira negon... eta zer... negarrez asiko al nitzan...? ez arraioa...! aek uxatzeko zerbait egin ber nuan... eta gure Aitonak esaten duanez ola dabiltzan gizon gaizkille oiek oso bildurtiak izaten dirala, zer egin det... aitaren zizpa gordeta nun zegon ba nekien eta su-zorroak ere bai... guziak artu, mandioko leiotik ixilka irten eta goiko sastrakara sartu... ta urrutienetik asi ta tunpa ta tunpa, etxe-aldera urbilduaz... oek aditutakoan bildurtuko zirala ba nekien bai nik...

AMA: Beraz, aitaren zizpa nun zegon ba ekiten e...!

TXOMIN: Jakingo ez nuan bada...!

AMA: Ustez ongi gordea zegoken ba...

AITONA: Ongi egin dek, motell... iri eskerrak arraxko ederretik atera gaituk.

MALEN: Goiko-Amak gauz ori bururatu arazi dik...

JOXPANTONI: Bejondeikela Txomin...! orren azkarra itzanik ez nian uste...

XABIER: Eskerrak Txomin, nere anai gaztea,... eskerrak zuei guztiei zuek ekin dezuten bezela sartu ez ba ziñaten, gizon oker-eraille oek nere-kikoa azkar egiña zuten...

MALEN: Iesus!, Iesus...! ori ere ikusi bear gendun...

AITA: Bai, gizon oek orren likitzak ziranik ez nuen esango...

AITONA: Nola garbitu ez zaituzten ez dakit... oraindik bear bezela ez naiz oartzten... arraxko izugarria igaro degu guztiok.

XABIER: Lenago asko maite ziñuzten, nere biotzean ongi sartuak ziñaten guziok, bañan orain... Malentxo, nere emazte Jainkoaren aurrean artzen det... eta zuek nere aita-amak, nere senideak zerate gaurtandik... eta gure aiton laztana... *(besarkatzen du... emakumeak nega-*

rrez dira, aita-aitonak biotz-mugira sakon bigu-
ñaren mende... Txomin-ek musuka estutzen
du...).

MALEN: Xabier... maitea...!

AMA: Seme...!

AITA: Jainkoa-ri eskerrak... aurrera ere bea-
rrean izango gera ta berak lagundu deigula...

XABIER: Orain... zuei au esan bearrak biotza
puskatzen dit bañan... ni nai-ta-nai-ez emendik
alde egin bearrean arkitzen naiz... negargarria
da bañan, zuek ikusten dezuten bezela, emen
egoterik ez det... gizon zital oiek berriz ere eto-
rriko dira eta lenbizikoan iritxi ez dutena bigarre-
nean egingo dute noski... eta zuek guztiontzat
ere kalte aundien bat gertatu liteke...

AITA: Bai, pozgarria ez da, bañan ongi esaten
dezula uste det...

AMA: Nunbaiten, emen inguruan, ez al litzake
izkutatuko edo...

XABIER: Izkutatzea zalla izango litzake...
auzoan salatzalleak ba dirala ikusia dago... ta...

AITONA: Bai, ala da... lenago ere beste ergel,
txoro ori izan ez ba zan ez zan emen ezer gerta-
tuko...

MALEN: Eta nora joan... zu oraindik bear beze-la sendatuta ez zaude ta...

XABIER: Ez, naiko sendo nago, naiko indar ba daukat... bearrean arkituezkero ongi ibilliko naiz...

AMA: Orain, oinbestez gañera orrela joan bear... au naigabea...

AITA: Eta nora joan, ordea...?

XABIER: Nola edo ala, nere lagunak ari diran tokira urbildu bear naiz...

AITA: Bañan ori zalla dezu... aiek urrutixamar dira...

XABIER: Mendiz-mendi eta zuzenean ez da ain urruti... joango naiz...

AITA: Eta bidean arrapatzen ba zaituzte...?

XABIER: ...Betik ez det galdu bear... berealaxe bideari ekin bear diot... bear ditutenak artu eta noan...

JOXPANTONI: (*Negarrez*) Bañan, oraindik sendatu gabe ta... gaizki ibilli bearra zera...

XABIER: Bai, Joxpantoni, nere arreba maitea... nai-ta-ez alde egin bearrean naiz... gelditzea okerragoa izango litzake...

(Guztiak illun ta naigabetuak daude. Bat-bateann Malen-ek bere barnean erabaki izugarri bat artu du eta gogorki, ezparik gabe, ala dio...).

MALEN: Ez zera bakarrik joango... ni zure emaztea naiz noski... bada ni zukin joango naiz... *(guztiak arrituak gelditzen dira...).*

XABIER: Bañan zu... nola... ain arraxko aundietako tokira... ezin liteke...

MALEN: Berdin da, zu zoazen tokietara zukin joango naiz...

AMA: Bañan Malen, erotu egin al zain...? nola joango aiz i...?

MALEN: Bai, Ama, erabakia artu det, ezerengatik ez naiz geldituko.

AMA: Iesus...! au gertaera... au bear genduen orain...!

JOXPANTONI: Bañan i joan, eta guk emen zer egin bear diñagu...?

MALEN: Zuek emen antolatuko zerate... Xabier joan ta ni emen ezin gelditu naun...

AITA: Eta oraindik bere emaztea ez aizena gogoratzen al aiz...?

MALEN: Al duan bezin laxter Xabier-ek bere ezkontz-itza beteko duala ziur naiz...

AITA: Bai, nik ere ori ongi ba zekiñat, bañan...

XABIER: Gaurtandik Malentxo nere emazteztat daukatela ziñ egiten dizutet... bera nekin etortzeak, alde batetik, kezka ta bildurra ematen dit, bañan, bestetik, zearo poztutzen nau; zuentzat naigabe aundia dala ikusten det eta orretzek biotza illuntzen dit...

AITA: ...Bere egitako gogoala ala ba da... zer egingo zaio...!

XABIER: Berealaxe bideari lotu bearrak gera, ez degu betik galdu bear...

TXOMIN: (*Kupituta*) Bañan joan egin bear al dezute...?

XABIER: Bai, motell... aldi txar au ere, bein edo bein, etortzekoa uan eta etorri zaiguk...

MALEN: Eraman bear ditugunak artzera noa... bereala emen naiz...

AMA: Lagunduko diñat...

AITONA: (*Gogorki eta kemen aundiaz*) Biok bakarrik ez zerate joango... ni ere zuekin joango nauk... Malen! nere jantzierantzi zerbait pardelean artu zan...

AITA: Bañan aita, burutik oso nastu al zera ala...?

XABIER: Aitona, zu nola gukin etorriko zera... urte geiegi dituzu.

JOXPANTONI: Iesus...! zu joatea nola liteke...

TXOMIN: (*Lepotik elduta negarrez*)... Aitona, zu ez... zuk gukin gelditu bear dezu... Aitona gabe guk zer egin bear degu emen...?

AMA: (*Etxeko atetik*) Ori ezin liteke... ez zendun egitan esango noski...

AITONA: Bai, benetan esan det... oiekin noa... ez det geiago emen egon nai... naiko ikusi det... gizon zital-gaizkille oien mendean ezin egon niteke... Xabier-en aldeko gizonak euskaldunagoak dirala eta gizatasun geiago dutela uste det...

XABIER: Eskerrik asko, Aitona... zu gukin etortzeaz ni pozik izango nitzake... bañan zutzat arraxko aundia izango litzakela iruditzen zait... batetik, gabeko ibillia, eta gero, guda ari dan tokian tarteen bat billatu eta, ixilka, andik aurrera jo bear degu...

AITONA: Bada, nik emen inguruko mendi guztien berri iñork baño obeto dakit eta gabez izanarren, baita begi-itxutan ere, pausorik galdu gabe eramango zaituztet... Burruka nun ari dan

gutxi-gora-bera ba dakit... eta Jainkoak nai ba du, eguna argitzerako andik aurrera izango gera...

AMA: *(Etxetik atera ta)* Bañan, ba zoazela ez zenduan egitan esango e...?

AITA: Ala dio...

AITONA: Bai, bai, eta nere bi illobatxoekin pozik izango naiz...

AMA: Iesus...! au da gure gain datorren txamalda... au izugarria da... ezin sinistu liteke...

XABIER: Ez geiegi estutu... aldi luzea igaro baño len guziok emen gera berriz...

AITONA: Ori, ori...! eta orduan Txinparta bezelako nagusirik ez da emen izango...

XABIER: Ez det uste...!

AITONA: Nik, beste oñetakoak jantzi bear ditut...

AMA: Goazen... biderako jan pixka bat ere bearko dezute...!

(Aitona ta Ama etxeratzen dira; Joxpantoni-k ere negarrez jarraitzen diote; guztiak illun ta nai-gabetuak dira...; Aita ta Xabier alkarrekin mintzatzen diran artean Txomin arritua dago).

AITA: Auxen da lana...! (*buru-auste aundiaren mende*).

XABIER: Ala da... gaurko ekaitza izugarria izan da... eta au guztia nigatik zuei gertatzeak naigabe aundiena egiten dit...

AITA: Zugatik... ez... zuk errurik ez dezu... ala gertatu bearko zan ta... zer egingo dezu... Jainkoak lagun dakigula guztioi...

XABIER: Luzaro gabe guda au amaituko da noski eta orduan guztiok zoriontsu berriz bilduko gera...

AITA: Jainkoak nai dezala ala izatea...

TXOMIN: Ni ere gogoz joango nitzake zuekin...

AITA: Ixilik egon adi... orixe bakarrik bear diagu orain... asi adi i ere...

XABIER: Ez, i ola ibiltzeko gaztegia aiz... gañera ik emen Aita-ri lagundu bear diok...

TXOMIN: Bai, ori ala da bañan ni zuekin ederki ibilliko nitzake...

AITA: Olako gauzik ez dezakela aitatu ere...

XABIER: Ez, ik eta Joxpantonik emen aitaamekin baserria jasotzen naiko lan ba dezute...

AITA: Bai, naikoa baño geiago, buruz-gain ere bai... Jainkoak oraindño bezelako osasun ona degigula...

XABIER: Ori da lenengoa...

(Malen etxetik irtetzen da; biderako eran jantzia dator; bi pardel dakartzki).

MALEN: Ara...! ni gertu naiz...

XABIER: Bai, zu bereala prestatu zera... lenbailen joatea onena izango genduke... beste zital oiek berriz ere etorri litezke...

MALEN: Zuk oñetakorik aldatu edo zerbait artu bearrik ez al dezu...?

XABIER: Ez, au beste soñekorik ez det... beste atorra eta espartziñak artuko ziñuzen noski...

MALEN: Bai, emen pardelean sartu ditut...

XABIER: Ain ongi artu naun etxe-barrunbe maite oni agur bat biotz-biotzez egin gabe ez det joan nai... *(etxebarnera dijoa).*

AITA: Txomin... bada-ez-bada, norbaiten zantzurik ba ote dan ate-aurreko kaxkotik begiratu zak...

TXOMIN: Ta gau illunean nola ikusiko det...

AITA: Illun ez zeok... ekaitza igaro ondoren zerua naiko garbitu dik, tartetan illargiak ere argitasun ederra zabaltzen dik...

AITA: Malen! diru pixka bat ere artu bearko den...

MALEN: Amak eman dit... gañera, bein araez-kero ezeren bearrik ez degula Xabier-ek esaten du...

AITA: Bai, bañan... zer gerta ere...

MALEN: Amak eman ditena naikoa izango det, noski...

AITA: Aitonari begira zaiozute... urte asko diz-kin eta ez zekiñat nola ibilliko dan...

MALEN: Pozik dijoa beintzat...

AITA: Bai, bere Malentxo-kin joateagatik edo-zer gauza egingo liken...

MALEN: Eta Xabier ere asko maite du...

AITA: Bai, ala den... Xabier, seme bat bezela, guziok maite diagu.

(Aitona, Xabier, Ama eta Joxpantoni etxetik irtetzen dira; onek bildu bat dakarki, ta Amak, eskuetan, beste bildu bat ba du. Gero Txomin ere urbiltzen zaiote).

XABIER: ...Ba al gera...?

AITONA: Bai, irurok gertu gerala uste det...
abiatu giñezke...

(Alkar laztantzen ta agurka guztiak asten dira; emakumeak negarrez, batez ere Ama ta Joxpantoni, Txomin-ek ere malkoa ez du urruti; Aita oso illun ta naigabetua dago...).

XABIER: Aita, Ama... *(biei eltzen diote)* Eske-
rrik oberenak zuei... biotz-biotzez maite zaituet...
bizirik zuengatik naiz... Malentxo-k dakarkiten
betiko zorientasuna ere zuei zor dizutet... bizi
naizen artean ez zait aztuko... Gugatik bildurrik
ez izan, lasai egon zaitezte al dan azkarrena,
onenean biar bertan, Malen, Elizaz, nere emaz-
tea izango da...

AITA: Jainkoa-ren aurrean, Aitak eta Amak
gogoz bedeinkatzen zaituztegu...

MALEN: Eskarrik asko... *(negarrez besarka-
tzen ditu).*

XABIER: Arantzazuko Amak oraintxe arestian
ain ederki lagundu digun bezela, gero ere bere
eskutik eukiko gaitu, eta berealaxe beste aldean
izango gera... eta uste det gure berriak aurki
izango dituzutela...

AMA: Jainkoak ala naidetzala... gu zuei begira gelditzen gerala ez aztu...

XABIER: Ez, ez, gure gogoan izango zerate beti... eta aldi luzea igaro baño lenago guztiok emen bilduko gera berriz...

AMA: Ai! ala ba litz...!

MALEN: Bai nik itxaropen osoa det... biotzak esaten dit, eta ala gertatuko dala ziur naiz...

XABIER: Agur, Joxpantoni, nere arreba maitea... eta Txomin, mutiko zintzo, biotz ederra... (*alkarri eltzen diote*).

AITONA: Joan bear ba degu goazemazute lenbailen...

XABIER: Bai, zuetatik ezin aldendu gera... bañan emen egotea kaltegarri da gutzat... goazen...

MALEN: Agur... agur.... ongi izan zaitezte... berriz ikusi arte...

AITONA: Agur... agur... guztioi... (*ba dijoaz*).

XABIER: (*Etxe-aldera biurtuta*) Aitzondo base-ri eder, aterpe, babes-toki maitea, aizkenik zutzat agur ta esker ugariak... guztioi agur... agur...!

An dijoaz irurak; Aitona pauso sendoz aurretik da, ba dirudi gaztetu egin dala bat batean; gero Malen ta Xabier; izkutatu baño len oraindik agur egiten diote eskua jasota...

Nekazari aiek etxeko atadian kupigarri gelditu dira; beste irurak izkutatu diran arte mendialdera begira egon dira; Txomin aen ondoren pixka bat joan ta gero besteetara bildu da.

Enparanza-erdian Ama ta Joxpantoni belaunikatu ta negarrez daude Goiko-Ama-ri otoitz egiñez. Aita, bien erdian burua makurtu eta besoak bular-gañean toleztuak dituala, illuntasun izugarriaren mende arkitzen da; Txomin, berriz, aitari bizkarretik eldu eta berari begira arritua dago.

Zeruan ekaitz-aldiaren ondoren odeiak urratu dira noski eta illargi beteak bere argitasun biguñña alde guztietara zabalduaz, aldi garratz ontanxe ain errukarri diran Aitzondo-ko lau euzkotar gizarajoak goxoki bildu eta egoki agertu-arazten ditu.

Gero Aitak, burua zerurontz jaso eta besoak
zabaldurik, bere biotzeko oñazerik aundienaz
esaten du...

... GUDA MADARIKATUA...!!

Guda madarikatua...! Ala da, bai, ongi gero madarikatua. Beragatik Aitzondo-garaikoa, baserri eder maitagarria nola gelditu dan ikusi utsak, biotza erdibi lezake.

Bere seme zarrena, baserriko nekazaritzari jarraipena eman bear zion gizon gazte zintzoa galdua da betirako.

Beste seme egoki, euskaldun jator, biozkor, maitatia Jainkoak etxera ekarri diote; bertan izan dan aldi motxean guztientzat aingeru bat bezela agertu da, beren biotzetan sakon-sakoneraño sartu zaiote; etxeko alabaren maitetasunaren bidez egiazko seme izatera iritxi da eta begiko ninia baño geiago maite dute.

Bañan gertaera izugarri batez, bere bizia galtzeko arraxko zorrotz, estu, latzean, arkitu ondoren urrun joan bear izan du.

Eta berarekin batera, alaba maiteak, ainbeste gozamen ta igurtziz asi zuen bere biotzetako kutuna, etxeko lan guztietan amaren laguntzalle izan dan nexka lirain, polita, baserriaren poz ta alaitasuna zanak, bere maitearen ondoren alde egin du.

Oek gazteak dira eta edozer gauza gertatuta ere kemena ba dute ta nola edo ala irtengo dira; bañan berekin joan dan larogei urteko aitona zarrak zer egin bear du?

Baserrian onek usten duan utzunea ez da nolanaikoa izango noski; bizitza luzeak eman dion aren jakintasun sakona bear-bearra zan; sendiodolaren deiaz etxeko guztien maitetasunik aundiena aitonarentzat izan da beti; zartzarrok berekin izaten duan indar-galtzeagatik lanerako gauza ez izanarren, oraindik ere arren itzalak, arren itz batek, arren oarpen batek beste lan askok baño indar geiago zuan.

An joan dira irurak, mendiz-mendi, gau illunean, illargiaren argitasuna eta Goiko-Amaren errukia laguntzalle bakar dituela.

Arraxko-aldi ikaragarrietik Jainkoa-ren mirari batez urten dira eta orain azkatasuneko bizikera berri batera sortuko ba lira bezela, pozik dijoaz.

Gau ontan ibillera. txar bat egin bearrean arkitzen dira, bañan ajolik ez diote; bere barnean itxaropen aundi bat ba dute eta beretzat eragozpenik ez da. Ez baten urteen aztuntasuna, ez

bestearen eme-argaltasuna, ezta irugarrenaren eriaultasuna, iñundik ez dira agiri; biotzeko indarrak guztiak aztu arazi ditu, eta menditontor ta malkar, erreka-baztar ta zelaiak, laister igarotzen dituzte ta atzean gelditzen dira.

Toki aietako berri Aitonak ongi daki eta oinkada bat galdu gabe zuzen-zuzen, iñork ikusi gabe, arin, pozik doaz.

Bitartean, Aitzondo basetxe zabal, eder, gozoa, kabi utsaren antzera illun, otz, naigabepean autsia gelditu da; bere oin-arriak kendu ba litzaizka bezela, sendi jator arren sor-lekuak ikara izugarria egin du.

Bertako biztanle giz-emakume zintzo, leialak, gogo-oñaze ta samintasun beltzaren mende lur jota daude.

Bere biotzeko iru zati aiek mendian gora, illunpean galdu diranean, etxe-aurreko atadian zer gertatzen zaioten ongi nabaitu eziñik, geldirik, mugitzeko kemenik gabe, negar ta zotin, errukarri, alditxo batean an egon dira gizarajoak.

Gero etxeratzen dira, bañan barrengo egoera garratzagoa da oraindik. Sukaldea otza arkitzen

dute, sua itzalia da, aizkeneko zalapartan mai, alki ta tresna guztiak nastuak gelditu dira.

Ezertako gogorik gabe, bakoitza baztar batean eseri eta bere naigabeari burruka bizia egiñaz, alkarri ezer esateko bildurrez ixil-asko daude; noizik-beingo zotin-otsa besterik ez da entzuten.

Etxe artako bizia zearo amaitu dala dirudi; biotz maitekor aiek erioak bere atzaparretan apurtu ditu. Otoitz bat egiteko ere indarrrik ez dute. Bai atsekabe illuna, ura garraztasun elkorra! Txintik egin gabe aldi luzea daramate.

Ontan, ikulluko bei baten marruak bizira piztu-arazten ditu; marrua bein ta berriro aditzen da. Orduan Aitak kolko-barnean sartua daukan burua jaso ta ala dio illunki: «Abere gaizoei jaten ematea guztioi aztuzaugu eta or daude goseak... Joxpantoni, Txomin bazka ematera zoazte...».

Bañan seme-alabak, uzkur egiñaz, geldirik daude, ez dira mugitzen, bildurtu egiten dira; Aitak ori ulertzen du eta geiago ezer esan gabe bera txutitu ta ikullura dijoa.

Azkar betetzen du ango eginkizuna eta berriz sukaldera biurtzen danean, bere buruaren jabe

egiñik, emazte-aurrei sendoki, gizatasun osoan, xuxpeltu-arazteko, mintzatzen diote:

«—Orrela egonaz ezer ez degu aurreratzen, gure erorkera orrenbesterañokoa ez da; or joan zaizkigun oiek etxe ontan uzten duten utsunea aundia da. Orain gu bakartasun otzean arkitzen gerala egia da, bañan orrengatik lur-jota ez degu gelditu bear. Bizi bear degu oraindik, joan diranak geiago etorriko ez dirala iruditzen zaigu, bañan ez da ala, aiek ere biziko dira eta egunen batean berriz emen ditugu; naigabeak ez gaitu zearo menderatu bear; gure biotzak goruntz jaso ditzagun...».

Eta Amak erantzun dio: «Ongi esaten dezu, bizi bear degu; guztia al lezaken jaunari lagundu deigula biotzez eskatu dezaiogun, eta Beragan itxaropen osoa jarririk otoitz egin dezagun; egun obeak ere etorriko dira».

Eta bere sinismen osoaz, Goiko-Ama-ri benetakako eskaera egiñez, agurtza esaten dute.

Amaitu dutenerako beren barrenak atsedean aundi bat artu dute. Txomin-ek ere, askotan bezela, otoitz-aldian ez du lo-artu, ernai egon da, gertaera zorrotzak astindu izugarria egin dio.

Guztien barnean naigabea garaitu eta pake-tasun-argia piztutzen asi da, eta alkarri gau-onak emanda, makur bañan, etsita, oiera dijoaz. Gogo ta soin, neke-aldi garratza igaro ondoren oieko atsedenaren bearra ba dute. Biar ere bizi dirarentzat eguna zabalduko du eta berriz lanari gogor ekin bearko zaio.

Etxeko gizarajoak ain ordu latza igaro duan artean ezertaz ez dira oartu, ala izatea ohea da, bañan berak otoitzean ari zirala etxe-inguruan, kuskusean ta salaketan, norbait ibilli da; sukaldeko leiora ere bertaratu da eta leiatillak, beti bezela, erdi-irikiak arkiturik barrengo gertaera ikusi du. Berak nai zuenik ez du arkitu noski eta alde egin du.

Lengo zapelatza bera, jira-bira, usaiean dabil; bañan berak arrapatu nai duen egaztia, egoei eragin eta urrutiratu zaio; oraingoan beintzat atzaparretatik iges egin dio.

Euzkadi-ren betiko atsekabe izugarria auxe da. Bere semeak ajolik bear ez lioteken eginkizunetan sartuak ibilli oi dira; besteren onaren alde

ta etxearen kaltetan, beren ondasunak zearo galdu ta bere odola erruz ixuri dute.

Eta bere kalteak asko ez dirala, euzko-erriari egiten dioten galera ikaragarria da. Gure betiko etsaiak ez dira lo egoten, aldi guztietan ernai dira; Euskal-Erriaren berezetasuna begiz ezin ikusi dute eta edozein egokiera arkitzen duten bakoitzean, bere eskubidetatik, bere izaeratik, al duen zatirik aundiena kentzen diote.

Oraingo aldian euzko-pizkunde ederrean aizkeneko berrogei ta amar une oietan egin diran lan aundiak, zearo galtzeko zorira ekarri dituzte. Jainkoa-ren mirari batez ez dira oso galduko.

Eta gure Euzkadi maitea zearo galdu bear ote degu ba?

Ez, Aitzondo-ko nekazari zintzoak bezela, gure erria ere ekaitz izugarriak astindu du zearo; aiek bezela bere sendia txeatua ikusi du, etxeko itxaropen ta oin-arri eder ziranak, alde egin bearrean arkitu dira; berekin batean Aitona ere, antziñeko euzko-gogo zar, sendo, jator, egiazkoa, bizitzeko bear duan azkatasun billa, igesi joan da.

Ez dio ajolik. Bertan gelditu diran baserritar zintzoak etxea zainduko dute. Eta egun batez guztiak berriz bilduko dira, eta, pozaren-pozez, bere sorterri, bere jaiotetxea jaso eta bizikera sendo, iraunkor, ederrean, jarriko dute.